



Instituto Vasco de Cualificaciones
y Formación Profesional
Kualifikazioen eta Lanbide
Heziketaren Euskal Institutua



GIZARTE
ETA KULTURA
ZERBITZUAK

Oinarrizko Curriculum Diseinua
**GENERO-BERDINTASUNA SUSTATZEKO
GOI-MAILAKO TEKNIKARIA**



AURKIBIDEA

1. TITULUAREN IDENTIFIKAZIOA	4. or.
2. LANBIDE PROFILA ETA LANBIDE INGURUNEA	4. or.
2.1 Konpetentzia orokorra	
2.2 Kualifikazioen eta konpetentzia-atalen zerrenda	
2.3 Lanbide-ingurunea	
3. HEZIKETA ZIKLOAREN IRAKASGAIK	5. or.
3.1 Heziketa-zikloaren helburu orokorrak	
3.2 Lanbide-moduluaren zerrenda, ordu-esleipena eta kurtsoa	
3.3 Lanbide-moduluak	
1. Gizarte-trebetasunak	
2. Lehen laguntzak	
3. Gizartean esku hartzeko metodologia	
4. Gizarte-garapena	
5. Informazioa eta komunikazioa generoaren ikuspegitik	
6. Genero-indarkeriaren prebentzioa	
7. Emakumeentzako enplegua sustatzea	
8. Berdintasuna sustatzeko jardun-esparruak	
9. Emakumeen gizarte-mailako parte-hartzea	
10. Berdintasunerako gizarte-hezkuntzazko esku-hartzea	
11. Genero-berdintasuna sustatzeko proiektua	
12. Ingeles teknikoa	
13. Laneko prestakuntza eta orientabidea	
14. Enpresa eta ekimen sortzailea	
15. Lantokiko prestakuntza	
4. GUTXIENEN ESPAZIOAK ETA EKIMAPENDUAK	130. or.
4.1 Espazioak	
4.2 Ekipamenduak	
5. IRAKASLEAK	131. or.
5.1 Irakasleen espezialitateak eta irakasteko eskumena heziketa-zikloko lanbide-moduluetan	
6. LANBIDE MODULUEN ARTEKO BALIOZKOTZEAK	132. or.
7. TITULUKO LANBIDE MODULUEN ETA KONPETENTZIA ATALEN ARTEKO TRAZABILITATE ETA EGOKITASUN LOTURAK	132. or.
7.1 Konpetentzia-atalen egokitasuna lanbide-moduluekin, horiek baliozkotu edo salbuesteko	
7.2 Lanbide-moduluaren egokitasuna konpetentzia-atalekin, horiek egiaztatzeko	

1. TITULUAREN IDENTIFIKAZIOA

Genero-berdintasuna sustatzeko goi-mailako teknikariaren titulua elementu hauek identifikatzen dute:

- Izena: Genero-berdintasuna sustatzea.
- Maila: Goi-mailako Lanbide Heziketa.
- Iraupena: 2.000 ordu.
- Lanbide-arloa: Gizarte- eta kultura-zerbitzuak.
- Irakaskuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatuko erreferentea: INSN-5b.
- Goi-mailako hezkuntzako kualifikazioen Espainiako esparruan duen maila: 1. maila, goi-mailako teknikaria.

2. LANBIDE PROFILA ETA LANBIDE INGURUNEA

2.1 Konpetentzia orokorra

Titulu honen konpetentzia orokorra da emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna sustatzearekin lotutako esku-hartzeak programatu, garatu eta ebaluatzea, gizartean esku hartzeko estrategiak eta teknikak aplikatuta, sexuagatik diskriminatzeko arriskua dagoen egoerak hautemanez eta emakumeen gizarte-mailako parte-hartzea sustatuta.

2.2 Titulu honetan biltzen diren Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionaleko kualifikazioen eta konpetentzia-atalen zerrenda:

Osatutako lanbide-kualifikazioak:

- Emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerako sustapena: SSC451_3 (1096/2011 Errege Dekretua, uztailaren 22koa, lanbide-kualifikazioen katalogo nazionala osatzen duena, Gizarte- eta kultura-zerbitzuak lanbide-arloko bederatziz lanbide-kualifikazio ezartzearen bidez). Konpetentzia-atal hauek barne hartzen ditu:
 - UC1453_3: Informazio-kanalak sustatzea eta mantentzea esku-hartzearen ingurunean, genero-ikuspegia txertatuta.
 - UC1454_3: Emakumeen parte-hartzea eta sare egonkorren sorrera bultzatzea, genero-ikuspegia baliatuta, gizartean jarrerak aldatzen eta emakumeak ahalduz lagunduko dutenak.
 - UC1582_3: Esku-hartzearen ingurunean erakunde, enpresa, emakume eta eragileak hauteman eta informatzea lan-harremanei buruz eta enplegua sortu, bertara sartu eta egonkortzeari buruz, betiere emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorra oinarritzat hartuta.
 - UC1583_3: Emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerako proiektuak hauteman, aztertu, ezarri eta ebaluatzeko lanetan parte hartzea.
 - UC1584_3: Emakumeen aurkako indarkeriazko egoerak hautematea, prebenitzea eta arreta jasotzeko prozesuan laguntzea.
- Gizarte-dinamizazioa SSC321_3 (1368/2007 Errege Dekretua, urriaren 19koa, lanbide-kualifikazioen katalogo nazionala osatzen duena, kultura- eta gizarte-zerbitzuak lanbide-arloko sei lanbide-kualifikazio ezartzearen bidez). Konpetentzia-atal hauek barne hartzen ditu:
 - UC1020_3: Gizarte-eragile nagusiekin (herritarrekin, teknikariek eta administrazioekin) harremanak ezartzea eta mantentzea, horien arteko harremanak dinamizatuta.



UC1021_3: Gizarte-proiektuetan eta -baliabideetan herritarren parte-hartzea sustatzea.

UC1022_3: Gizarte edo lurralde-esparru jakin bat osatzen duten eragileen artean garatzen diren gizarte-jardunen eta -proiektuen eta herritarrek parte hartzeko plangintza, garapena eta ebaluazioa dinamizatzea.

UC1023_3: Elkarte-ehunaren sorreran eta garapenean parte hartzea, bultzatzea eta laguntzea.

UC1024_3: Gizarte-proiektuen eta -jardunen komunikaziorako eta hedapenerako estrategiak ezartzea.

UC1025_3: Gizarte-eragileen arteko gatazkak kudeatzean, bitartekaritza-prozesuak eta -teknikak aplikatzea.

UC1026_3: Genero-ikuspegia txertatzea gizartean esku hartzeko proiektuetan.

2.3 Lanbide-ingurunea

Titulu hau lortzen duten pertsonak esparru publiko zein pribatuan jardungo dute, genero-berdintasuneko zerbitzuak emateko sektorean, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra xede duten eta ekonomia- eta gizarte-zerbitzuak ematen dituzten erakunde eta entitateetan, honako hauetan, besteak beste: elkarteak, fundazioak, erakundeak, sindikatuak, enpresak, aholkularitzak, udal-zerbitzuak, berdintasuneko erakundeak eta gizarte-zentroak.

Zeregin eta lanpostu aipagarrienak hauek dira:

- Emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasunaren sustatzailea.
- Emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerako sustatzailea.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorraren arloko laguntza-teknikaria.

3. HEZIKETA ZIKLOAREN IRAKASGAIK

3.1 Heziketa-zikloaren helburu orokorrak:

1. Errealitatea aztertzeko baliabideak, estrategiak eta tresnak hautatzea, eta horien ezaugarriak, aukerak eta mugak aztertzea, betiere pertsona hartzaileen beharrei eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko esku-hartze testuinguruari buruzko informazioa lortzeko.
2. Plangintza-prozedurak aplikatzea, beren elementuak errealitatearen azterketatik lortutako informazioarekin lotuta, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko esku-hartzeak programatzeko.
3. Gizonen eta emakumeen arteko tratu- eta aukera-berdintasunaren esparru legala, ekonomikoa, lanekoa eta soziala interpretatzea, eta genero-ikuspegia esku-hartzearen fase guztietan txertatzeko irizpideak, estrategiak eta tresnak identifikatzea.
4. Genero-berdintasuna sustatzeko goi-mailako teknikariari eta lantaldeko kideei eskatutako kompetentziak aztertzea, bai eta esku-hartze testuinguru eta plangintzan ezarritako kalitate-irizpideak ere, genero-berdintasuna sustatzeko proiektuen ezarpena bideratzeko.
5. Espazioak, estrategiak eta materialak aukeratzea, eta komunikazioaren esparruko aurrerapen teknologikoen aukerak aztertzea, emakumeak eta orokorrean, herritarrak informatu, eurekin komunikatu eta sentsibilizatzeko jarduerak garatzeko.

6. Kudeaketa-teknikak aplikatzea, eta, horretarako, beharrezko baliabideak, finantziazio-iturriak eta aurrekontu-kontrolarekin lotzen den dokumentazioa aztertzea, genero-berdintasuna sustatzeko sailak, programak eta jarduerak antolatzen.
7. Gizarte-garapenerako prozesuak eta estrategiak interpretatzea, esparru legala eta eskura dauden baliabideak aztertuta, betiere gizarte-eragile guztiei laguntza teknikoak, dokumentuzkoak eta logistikoak emateko eta haien arteko harremanak eta autokudeaketa errazteko.
8. Parte hartzeko eta dinamizatzeko teknikak hautatzea eta gatazka-sorburuak aztertzea –taldeak dinamizatzeko–, errespetua eta elkartasuna sustatuta.
9. Harremanak ezarri eta mantentzeko estrategiak diseinatzea, sare eta topagune potentzialak aukeratuta, emakumeen parte-hartzea sustatzeko esku-hartzeak gauzatzeko.
10. Emakumeen ordaindutako lanean eragina duten faktoreak aztertzea, eta enplegu-sorguneak identifikatzea, eurak lanean txertatzea bultzatzeko.
11. Arrisku-faktore potentzialak hautematea, ebaluatzeko tresnak eta adierazleak aplikatuta, genero-indarkeria prebenitzeko estrategiak diseinatzen.
12. Jardun-protokoloak aplikatzea, bigarren mailako biktimizazio-prozesuak aztertuta, genero-indarkeria prebenitzeko programak eta ekintzak ezartzeko.
13. Jardun-protokoloak aukeratzea, babes-eskubide, -zerbitzu eta -baliabideen alorreko araudi legala interpretatuta, genero-indarkeria jasandako emakumeei aholkuak eman eta laguntzeko.
14. Istripuetan edo larrialdietan jarduteko protokoloak deskribatzea, lehen laguntzak aplikatzeko teknika egokiak hautatuta.
15. Prestakuntza- eta sentsibilizazio-estrategiak eta -materialak diseinatzea, xede den biztanleriaren beharrak eta ezaugarriak aztertuta, berdintasunaren alorreko eta emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioari lotutako gizarte- eta hezkuntza-jarduneko ekintzak garatzeko.
16. Ebaluazio-teknikak eta -tresnak hautatzea eta, horretarako, plangintzan ezarritako kalitate-adierazleak eta irizpideak aztertzea, baita prozesuarekin lotzen den dokumentazioa ere, esku-hartze prozesua eta lortutako emaitzak ebaluatzeko.
17. Sektoreko bilakaera zientifikoarekin, teknologikoarekin eta antolamendukoarekin lotzen diren ikaskuntza-baliabideak eta -aukerak aztertzea eta erabiltzea, baita informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ere, eguneratze-izpirituari eusteko eta laneko egoera berrietara eta egoera pertsonal berrietara egokitzeko.
18. Sormena eta berrikuntzako espirtua garatzea, lanaren eta norberaren bizitzaren prozesuetan eta antolamenduan agertzen diren erronkei erantzuteko.
19. Erabakiak arrazoituta hartzea eta, horretarako, tartean diren aldagaiak aztertzea, hainbat esparrutako jakintzak integratzea eta arriskuak eta erabaki okerrak hartzeko aukera onartzea, askotariko egoerei, arazoei edo gorabeheriei aurre egiteko eta horiek ebazteko.
20. Gidaritza-, motibazio-, gainbegiratze- eta komunikazio-teknikak garatzea talde-laneko testuinguruetan, betiere lantaldeen antolamendua eta koordinazioa errazteko.
21. Komunikazio-estrategiak eta -teknikak aplikatzea eta transmitituko diren edukietara, xedera eta hartzailen ezaugarrietara egokitzeko, komunikazio-prozesuen eraginkortasuna ziurtatzeko.
22. Laneko arriskuen prebentzioko eta ingurumen-babeseko egoerak ebaluatzea, norberaren eta taldearen prebentziorako neurriak proposatuz eta aplikatuz, lan-prozesuetan aplikatzeko den araudiaren arabera, betiere ingurune seguruak bermatzeko, bai eta sexu-jazarpena eta sexuagatiko jazarpena hautemateko, prebentzioko eta babesteko egoerak ere.
23. Irisgarritasun unibertsalari, guztiontzako diseinuari eta aniztasunaren kudeaketari erantzuteko beharrezkoak diren lanbide-ekintzak identifikatzea eta proposatzea.



24. Ikaskuntza-prozesuan egindako lanetan eta jardueretan kalitate-parametroak identifikatzea eta aplikatzea, ebaluazioaren eta kalitatearen kultura baloratzeko eta kalitate-kudeaketako prozedurak gainbegiratzeko eta hobetzeko gai izateko.
25. Ekintzailtzako, enpresako eta ekimen pertsonaleko kulturarekin lotzen diren prozedurak erabiltzea, enpresa txiki baten oinarrizko kudeaketa egiteko edo lan bat egiteko.
26. Baldintza sozialak eta lanekoak arautzen dituen lege-esparrua kontuan harturik, gizarteko eragile aktibo gisa dituen eskubideak eta betebeharrak zein diren jakitea, herritar demokratiko gisa parte hartzeko.

3.2 Lanbide-moduluen zerrenda, ordu-esleipena eta kurtsoa:

LANBIDE MODULUA	Ordu-esleipena	Kurtsoa
0017. Gizarte-trebetasunak	132	1
0020. Lehen laguntzak	60	2
0344. Gizartean esku hartzeko metodologia	165	1
1128. Gizarte-garapena	132	1
1401. Informazioa eta komunikazioa generoaren ikuspegitik	165	1
1402. Genero-indarkeriaren prebentzioa	160	2
1403. Emakumeentzako enplegua sustatzea	160	2
1404. Berdintasuna sustatzeko jardun-esparruak	165	1
1405. Emakumeen gizarte-mailako parte-hartzea	120	2
1406. Berdintasunerako gizarte- eta hezkuntza-jarduna	132	1
1407. Genero-berdintasuna sustatzeko proiektua	50	2
E-200. Ingeles teknikoa	40	2
1408. Laneko prestakuntza eta orientabidea	99	1
1409. Enpresa eta ekimen sortzailea	60	2
1410. Lantokiko prestakuntza	360	2
Zikloa, guztira	2.000	

3.3 Lanbide-moduluak: aurkezpena, ikaskuntzaren emaitzak, ebaluazio-irizpideak, edukiak eta orientabide metodologikoak

**1. lanbide-modulua****GIZARTE TREBETASUNAK****a) Aurkezpena**

Lanbide-modulua:	Gizarte-trebetasunak
Kodea:	0017
Heziketa-zikloa:	Genero-berdintasuna sustatzea
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	132 ordu
Kurtoa:	1
Kreditu kop.:	6
Irakasleen espezialitatea:	Gizarte arloko esku-hartzea (Bigarren Hezkuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Tituluaren profilari lotutako modulua.
Helburu orokorrak:	4 / 5 / 8 / 9 / 14 / 19 / 20 / 21

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Ingurunearekiko komunikazioa eta harreman sozialak errazteko estrategiak eta teknikak ezartzen ditu, eta adimen emozionalaren eta sozialaren printzipioekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Adimen emozionalaren eta sozialaren printzipioak deskribatu ditu.
- Gizarte-trebetasunek lan-jardunean duten garrantzia balioetsi du.
- Komunikazio-prozesu batean etapa guztiak ezaugarritu ditu.
- Komunikazio-estiloak, eta horien abantailak eta mugak identifikatu ditu.
- Pertsonarteko harremanetan hitzezko zein hitzik gabeko komunikazioa erabiltzearen garrantzia balioetsi du.
- Zereginak esleitzeko, jarraibideak jasotzeko eta ideiak eta informazioa trukatzeko komunikazio eraginkorra ezarri du.
- Egoeraren arabera gizarte-trebetasun egokiak erabili ditu, kultura-aniztasuna aintzat hartuta.
- Pertsonak ez epaitzeko eta haien bereizgarri pertsonalak (hala nola emozioak, sentimenduak, nortasuna...) errespetatzeko interesa agertu du.
- Aldaketaren eta gertatzen den guztitik ikastearen aldeko jarrera agertu du.
- Autokritikak eta autoebaluazioak pertsonen arteko harremanetako eta komunikazioko trebetasun egokiak garatzeko duten garrantzia balioetsi du.

2. Talde-lana dinamizatzen du, teknika egokiak aplikatuta eta horien aukeraketa justifikatuta, aintzat hartuta taldearen ezaugarriak, egoera eta helburuak.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Talde baten funtsezko elementuak, eta taldearen egitura eta dinamika alda dezaketen faktoreak deskribatu ditu.
- b) Taldeen dinamizazio- eta funtzionamendu-teknikak analizatu eta aukeratu ditu.
- c) Talde-lanak bakarkako lanarekiko dituen alde onak azaldu ditu.
- d) Talde batean ager daitezkeen rolak eta beren arteko loturak bereizi ditu.
- e) Taldeko komunikazioaren oztopo nagusiak identifikatu ditu.
- f) Hainbat jardun-estrategia planteatu ditu, gidaritzak eta rolek taldearen egituran eta funtzionamenduan duten eginkizunaz baliatzeko.
- g) Talde-laneko prozedura gisa zereginen banaketa zehaztu du.
- h) Taldearen konfiantza bereganatzeko jarrera jasanbera eta enpatia izatearen garrantzia balioetsi du.
- i) Lankidetzako lan-giro lasaia lortu du.
- j) Norberarena ez bezalako iritziak eta taldearen erabakiak errespetatu ditu.

3. Bilerak zuzentzen ditu, bildutakoen eta testuinguruaren arabera erabil daitezkeen esku-hartzeta eta antolaketako moduak eta estiloak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Bileren motak eta funtzioak deskribatu ditu.
- b) Bilera bat garatzeko etapak deskribatu ditu.
- c) Bilerak moderatzeko teknikak aplikatu ditu, bai eta horiek justifikatu ere.
- d) Ideiak argi eta labur adierazteko gaitasunaren garrantzia egiaztatu du.
- e) Bilera baten arrisku-faktoreak eta sabotaje posibleak deskribatu ditu, eta horiek ebazteko estrategiak justifikatu.
- f) Bileren deialdia egitean informazio ona eta zabala ematearen beharra baloratu du.
- g) Bileretan parte hartzea lortzeko, motibazioak eta erabilitako estrategiek duten garrantzia deskribatu du.
- h) Bilera baten informazioa biltzeko eta emaitzak ebaluatzeko teknikak aplikatu ditu.
- i) Bilerak zuzentzean, errespetuz eta tolerantziaz aritu da.

4. Gatazkak kudeatzeko eta arazoak konpontzeko estrategiak ezartzen ditu, estrategia horiek testuinguruaren arabera hautatuta eta eskura dauden ereduak analizatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Taldeko arazo eta gatazken iturri nagusiak aztertu eta identifikatu ditu.
- b) Gatazkak kudeatzeko teknika eta estrategia nagusiak deskribatu ditu.
- c) Arazoen irtenbideak bilatzeko eta ebazteko estrategiarik egokienak identifikatu eta deskribatu ditu.
- d) Erabakiak hartzeko prozesuaren fase guztiak deskribatu ditu.
- e) Arazoak eta gatazkak ebatzi ditu, kasu bakoitzean egokiak diren prozedurak aplikatuta.
- f) Arazoak eta gatazkak konpontzeko irtenbide posibleei buruz besteek dituzten iritziak errespetatu ditu.
- g) Bitartekaritza- eta negoziazio-teknikak behar bezala aplikatu ditu.
- h) Erabakiak hartzeko prozesuan, erabiltzaileak kontuan hartu ditu, beren adina eta egoera fisiko eta mentala gorabehera.
- i) Erabakiak hartzeko zeregina eta prozesuaren autoebaluazioa planifikatu ditu.
- j) Erabakiak hartzeko unean komunikazio-trukeak duen garrantzia balioetsi du.

5. Talde-prozesuak eta lanbide-funtzioak garatzeko hark duen gizarte-kompetentzia ebaluatzen ditu, hobe daitezkeen alderdiak identifikatuta.



Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ebaluazio-adierazleak hautatu ditu.
- b) Gizarte-ikerketako teknikak eta teknika soziometrikoak aplikatu ditu.
- c) Profesionalaren abiapuntuko egoera pertsonalari eta sozialari buruzko autoebaluazioa egin du.
- d) Informazioa biltzeko tresnak diseinatu ditu.
- e) Datuak ezarritako euskarrietan erregistratu ditu.
- f) Bildutako datuak interpretatu ditu.
- g) Hobetu beharra duten egoerak identifikatu ditu.
- h) Hobekuntzan bete beharreko jarraibideak ezarri ditu.
- i) Profesionalak gauzatutako prozesuaren amaierako autoebaluazioa egin du.

c) Oinarrizko edukiak:

1. GIZARTE HARREMANAK ETA KOMUNIKAZIOA LAGUNTZEN DUTEN ESTRATEGIAK ETA TEKNIKAK EZARTZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Komunikazioaren eta bizi-kalitatearen arteko harremana aztertzea jardun-esparruetan. - Komunikazio eta gizarte-harremanen printzipioak adimen emozionalaren eta sozialaren printzipioekin lotzea. - Zereginak esleitzeko, jarraibideak jasotzeko eta ideiak eta informazioa trukatzeko komunikazio eraginkorra ezartzea. - Komunikazio enpatiko eta asertiboa ezartzea. - Egoera bakoitzera egokitutako gizarte-trebetasunak erabiltzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte-trebetasunak eta antzeko kontzeptuak. - Komunikazio-prozesua. Etapak. Hitzeko komunikazioa, hitzik gabekoa eta paralinguistikoa. - Komunikazioaren errazgarriak eta oztopoak. - Testuinguruaren komunikazio-balorazioa: komunikazioaren errazgarriak eta oztopoak/mugak. - Adimen emozionala. Emozioak eta sentimenduak. - Hezkuntza emozionala. - Gizarte-adimena. - Babes-mekanismoak. - Komunikazioko eta gizarte-trebetasunetako programak eta teknikak. - Komunikazio-estiloak: estilo oldarkorra, estilo inhibitua/pasiboa, estilo asertiboa. - Haur Hezkuntzako goi-mailako teknikariaren eta antzeko profilen printzipio deontologikoak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte-trebetasunek lan-jardunean duten garrantzia balioestea. - Pertsonarteko harremanetan hitzeko komunikazioa, hitzik gabekoa zein paralinguistikoa egoki erabiltzearen garrantzia balioestea. - Pertsonak ez epaitzeko interesa eta haien bereizgarri pertsonalak (hala nola emozioak, sentimenduak, nortasuna...) errespetatzeko jarrera. - Aldaketaren eta gertatzen den guztitik ikastearen aldeko jarrera. - Autokritikak eta autoebaluazioak pertsonen arteko harremanetako eta komunikazioko trebetasun egokiak garatzeko duten garrantzia balioestea.

2. TALDE LANA DINAMIZATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Talde-egitura eta -prozesuak aztertzea. - Talde baten egitura eta dinamika alda dezaketen faktoreak identifikatzea. - Taldea dinamizatzeko teknika eta tresna egokiak aplikatzea. - Taldea dinamizatzeko tekniken hautaketa justifikatzea, haren ezaugarriak, egoera eta helburuak aintzat hartuta. - Talde-lanak bakarkako lanarekiko dituen alde onak aztertzea. - Hainbat jardun-estrategia aplikatzea, gidaritzak eta rol positiboek taldearen egituran eta funtzionamenduan duten funtzioaz baliatzeko, eta rol negatiboak neutralizatu edo zuzentzeko. - Lankidetzako lan-giro lasaia lortzea. - Taldean konfiantza egokia eta kohesioa lortzeko teknikak eta dinamikak aplikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Taldea: motak eta ezaugarriak. Talde baten egitura eta dinamika. Talde-garapena. - Komunikazioa taldeetan. Komunikazio-estiloak. Hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioa. Beste hizkera batzuk: ikonoak, ikus-entzunezkoak, IKTak. Oztopoak eta mugak. - Taldeak analizatzeko teknikak. - Taldeak dinamizatzeko teknikak. - Lankidetzak eta lehiakortasuna taldeetan. - Talde-dinamikak. Talde-dinamiketara aplikatutako oinarri psikosozilogikoak. - Lantaldea. Lankidetzak-lanerako estrategiak. Zereginen antolamendua eta banaketa. - Bakarkako lana eta talde-lana. - Taldeko rola: rol positiboak eta negatiboak. Rol positiboak bultzatzeko eta negatiboak neutralizatu edo zuzentzeko jardun-estrategiak. - Konfiantza eta kohesioa taldean.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Taldearen garapenean komunikazioak duen garrantzia baloratzea. - Motibazioak talde-dinamikan duen eragina baloratzea. - Talde-lanean banakoen arteko desberdintasunak errespetatzea. - Taldearen konfiantza bereganatzeko jarrera jasanbera eta enpatia izatearen garrantzia balioestea.

3. BILERAK ZUZENTZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Bilera bateko partaideen tipologia identifikatzea. - Bilerak moderatu eta dinamizatzeko teknikak era justifikatuan aplikatzea, partaideen eta testuinguruaren ezaugarrien arabera. - Bilera batean, gatazkak konpontzeko estrategiak era justifikatuan aplikatzea. - Bilera baten informazioa biltzeko eta emaitzak ebaluatzeko teknikak era egokian aplikatzea. - Talde baten portaeran eragina duten faktoreak aztertzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Bilera, talde-lan moduan hartuta.

	<ul style="list-style-type: none"> - Bilera motak eta haien funtzioak. - Bilera bat garatzeko etapak. - Bilerak dinamizatzeko eta moderatzeko teknikak. - Arrisku-faktoreak bilera batean. Gatazka posibleak. Ebazpen-estrategiak. - Bilera baten informazioa biltzeko eta emaitzak ebaluatzeko teknikak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ideiak argi eta labur adierazteko gaitasunaren garrantzia balioestea. - Bileren deialdia egitean informazio ona eta zabala ematearen beharra balioestea. - Bileretan parte hartzea lortzeko, motibazioak eta erabilitako estrategiek duten garrantziaz ohartzea. - Bilerak errespetuz eta tolerantziaz gidatzea.

4. GATAZKAK KUDEATZEKO ETA ERABAKIAK HARTZEKO ESTRATEGIAK EZARTZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Taldeko gatazkak ebazteko teknika eta estrategia egokiak aplikatzea. - Bitartekaritza- eta negoziazio-teknikak behar bezala aplikatzea. - Erabakiak hartzeko prozesuaren plangintza eta autoebaluazioa egitea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gatazka: kontzeptua, ezaugarriak eta tipologia. - Taldeko arazoak eta gatazkak. Gatazken iturri nagusiak. - Arazoak ebazteko teknikak eta estrategiak. - Erabakiak hartzeko prozesua. Faseak. Prozesuaren plangintza eta ebaluazioa. - Taldeko gatazken kudeaketa. - Negoziazioa eta bitartekaritza. Negoziazio- eta bitartekaritza-teknikak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Talde-dinamiketan garapena errazten duen elementu positibotzat baloratzea gatazka. - Arazoak eta gatazkak ebazteko garaian errespetuak eta tolerantziak duten zeregina baloratzea. - Erabakiak hartzeko unean komunikazio-trukeak duen garrantzia balioestea.

5. GIZARTE KONPETENTZIA ETA TALDE PROZESUAK EBALUATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Taldeak aztertzekeo estrategiak eta tresnak analizatzea. - Informazioa biltzeko tresnak diseinatzea. - Taldeekiko lanean, gizarte-ikerketako teknikak eta teknika soziometrikoak aplikatzea. - Lortutako emaitzak interpretatzea. - Hobetzeko jarraibide egokiak ezartzea, lortutako emaitzen arabera. - Profesionalaren abiapuntuko egoera pertsonalari eta sozialari buruzko autoebaluazioa egitea, hobetu daitezkeen alderdiak identifikatuta.
----------------	--

kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte-kompetentziaren ebaluazioa. - Taldeen egitura eta prozesuen ebaluazioa. - Gizarte-ikerketako teknikak. - Oinarrizko soziometria. - Datu-bilketa. - Informazioa biltzeko tresnak. Tresnen diseinua. - Emaitzak analizatzea eta interpretatzea. - Hobetzeko jarraibide posibleak ezartzea, lortutako emaitzen arabera. - Haur-hezitzailearen hasierako prestakuntzaren eta bizialdi osoko prestakuntzaren azterketa eta prozesua.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte-kompetentzia hobetzeko estrategia gisa baloratzea autoebaluazioa. - Taldeak hobetzeko eta garatzeko estrategia gisa baloratzea talde-ebaluazioa. - Konfidentzialtasuna datuen tratamenduan.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Irakatsiko den lehenengo blokea «**Gizarte-harremanak eta komunikazioa laguntzen duten estrategiak eta teknikak ezartzea**» izango da. Bertan, besteak beste, gizarte-trebetasunei, komunikazioari, eta adimen emozional eta sozialari buruzko hainbat kontzeptu eta prozedura zehaztu eta aztertuko dira.

Ostean, «**Talde-lana dinamizatzea**» eta «**Bilerak zuzentzea**» blokeak landuko dira, zeinetan irakatsi eta ikasteko prozesuak aztertu eta abian jarriko baitira, honako hauen inguruan, esaterako: komunikazio-teknikak, talde-dinamikak, taldeak dinamizatzeo estrategiak, bilera motak, etapak, bilera baten informazioa biltzeko eta emaitzak lortzeko teknikak, eta abar.

Bloke horien ondoren, gatazkak ebatzi eta kudeatzeko gai honetan bilduko da arreta: «**Gatazkak kudeatzeko eta erabakiak hartzeko estrategiak ezartzea**». Bertan, talde-arazoak eta -gatazkak, gatazken iturri nagusiak, arazoak ebazteko teknikak eta estrategiak eta abar aztertuko dira.

Alderdi horiek guztiak jorratutakoan, «**Gizarte-kompetentzia eta talde-prozesuak ebaluatzea**» blokea irakatsiko da. Horren barruan, soziometriaren oinarrizko teknikak, gizarte-kompetentzia ebaluatzeoak, ikerketa-teknikak, emaitzak aztertu eta interpretatzeoak eta abar landuko dira.

2) Alderdi metodologikoak

Lanbide-modulu honek barne hartutako prestakuntzaren bidez, ikasleek beharrezko gizarte-trebetasunak eskuratuko dituzte, laguntza-lanbidea garatu eta beste pertsona batzuekiko lanbide-harremanetan behar bezala jardun ahal izateko, euren portaera harreman horien ezaugarrietara eta testuingurura egokituta.

Modulua prozedurazkoa eta jarrerazkoa da funtsean, eta jarduera praktikoak eta dinamikoak dira protagonistak.

Behar-beharrezkoa da gizarte-trebetasunei buruzko kontzeptuzko alderdiak ezagutu, aztertu, ulertu eta horien inguruan hausnartzea, baina garrantzitsuena horiek guztiak barneratzea da. Gizarte-trebetasunak arituz ikasi eta eskuratzen dira, horietan trebatuz.

Horretarako, hainbat partaidetza-metodo jarriko dira praktikan, esaterako:

- Jarraibideetan oinarritutako ereduak eta informazio kontzeptuala: hitzezko zein keinuzko jarraibideak eta taldeko solasaldia edota eztabaida, garatu beharreko trebetasunaren inguruan.
- Modelatzea eta imitazioa: behaketaren bidez ikastean datza. Hala, ikasleek trebatu nahi den trebetasuna edo portaera behar bezala erakusten duten ereduak ikusiko dituzte.
- *Role-playing* edo antzezpena (jokabidearen saiakuntza): taldeko dramatizazio-teknika horrek portaerak eta jarrerak aldatu zein eskuratzen laguntzen du.
- Hainbat talde-dinamika (lankidetzak-jarduerak, gatazkak ebaztekoak, komunikaziokoak, eta abar), zeinetan parte-hartzea eta osteko talde-hausnarketa beharrezkoak baitira.

Jarduera gehienak taldekoak izango dira, eta talde-lana izango da nagusi (talde txikiak edo handiak). Nolanahi ere, bakarkako jarduerak ere egingo dira, hausnarketa-jarduerak eta gizarte-konpetentzien autoebaluazioa egitekoak kasu.

Irakasleak ikasleen arteko lankidetzak eta moduluaren inguruko motibazioa bultzatu beharko ditu, bai eta lan-arloan, lanbide-jardunean eta orokorrean, gure bizitzan gizarte-trebetasunak dituzten balioak eta garrantzia balioesteko jarrerak helarazi ere.

Era berean, gizarte-trebetasunak eta pertsonen arteko harremanetakoak baloratu eta saritzen diren testuinguruak ere sustatuko ditu; era horretan, trebetasun horiek eskuratu eta praktikan jartzeko interesa piztuko du ikasleengan.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Talde-dinamikak: aurkezpena-ezagutza.
- ✓ Horma-irudi edo collage bat egitea talde txikitik, non gizarte-trebetasun ezberdinen adibideak jasoko dituen mapa kontzeptuala irudikatuko baita.
- ✓ Emozioei buruzko horma-irudi edo collage bat egitea.
- ✓ Komunikazio-estiloari buruzko *role-playinga*.
- ✓ Komunikazioaren errazgarri eta blokeatzaileei buruzko *role-playinga* (errazgarriak lantzeko, modelatze-teknika erabil daiteke).
- ✓ Lankidetzako talde-dinamikak.
- ✓ Talde-lanari eta talde-rolari buruzko talde-dinamikak.
- ✓ Gatazken ebazpenari eta talde-rolari buruzko talde-dinamikak.
- ✓ Taldeko kohesio eta konfiantzari buruzko talde-dinamikak.

- ✓ Talde txikitan, taldea dinamizatzeko hainbat teknika diseinatzea, ostean praktikan jartzeko.
- ✓ *Braimstorming*, talde-lanak bakarkako lanarekiko dituen alde on eta txarrei buruz.
- ✓ Lan-bilera baten *role-playinga*.
- ✓ Gatazken ebazpenari buruzko dinamikak.
- ✓ Bitartekaritza- eta negoziazio-teknikak *role-playing* bidez antzeztea.
- ✓ Teknika soziometrikoa aplikatzea.
- ✓ Gizarte-konpetentziaren autoebaluazioa.

2. lanbide-modulua

LEHEN LAGUNTZAK

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Lehen laguntzak
Kodea:	0020
Heziketa-zikloa:	Genero-berdintasuna sustatzea
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	60 ordu
Kurtoa:	2
Kreditu kop.:	3
Irakasleen espezialitatea:	Osasun- eta laguntza-prozedurak Diagnostiko kliniko eta ortoprotesikoko prozedurak (Lanbide Heziketako irakasle teknikoa) Irakasle espezialista
Modulu mota:	Tituluaren profilari lotutako modulua.
Helburu orokorrak:	13 / 14 / 22

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Larrialdi bateko laguntzaren hasierako balorazioa egiten du, eta arriskuak, eskura dauden bitartekoak eta beharrezko laguntza mota deskribatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Eremua prozedura egokiaren arabera babestu du.
- Istripua izan duten pertsonak manipulatzeari norbera babesteko erabili beharreko teknikak identifikatu ditu.
- Larrialdietako botikinaren gutxieneko edukia, eta produktuen eta sendagaien oharrak deskribatu ditu.
- Biktima anitz daudenerako jardun-lehentasunak ezarri ditu.
- Aire-bideen iragazkortasuna egiaztatze prozedurak deskribatu ditu.
- Aireztatze/oxigenatze funtzionamendu-baldintza egokiak identifikatu ditu.
- Odoljariorik izanez gero jarduteko prozedurak deskribatu eta gauzatu ditu.
- Konorte-maila egiaztatze prozedurak deskribatu ditu.
- Bizi-konstanteak hartu ditu.
- Bizkortzeari buruzko nazioarteko koordinazio-batzordeak (ILCOR) xedatutako protokoloaren arabera identifikatu du jardun-sekuentzia.

2. Oinarrizko bizi-euskarriko teknikak aplikatu eta deskribatzen ditu, eta lortu beharreko helburuarekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Bihotz-biriketako bizkortzearen funtsak deskribatu ditu.
- b) Aire-bidea zabaltzeko teknikak aplikatu ditu.
- c) Aireztapen- eta zirkulazio-euskarriko teknikak aplikatu ditu.
- d) Kanpoko desfibrilazio erdiautomatikoa (KDE) egin du.
- e) Bizkortze ondoko neurriak aplikatu ditu.
- f) Lesio, patologia edo traumatismo ohikoenak adierazi ditu.
- g) Istripua izan duen pertsonaren lehen eta bigarren mailako balorazioa deskribatu du.
- h) Agente fisikoen, kimikoen eta biologikoen ondoriozko lesioen aurrean, lehen laguntzak aplikatu ditu.
- i) Premiazko patologia organikoen aurrean, lehen laguntzak aplikatu ditu.
- j) Zein kasutan edo egoeratan esku hartu behar ez den zehaztu du.

3. Biktimak immobilizatu eta mobilizatzeko prozedurak aplikatzen ditu, eta, horretarako, baliabide materialak eta teknikak hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Biktimarengana hurbiltzeko beharrezko maniobrak egin ditu.
- b) Immobilizatu eta mobilizatzeko baliabide materialak identifikatu ditu.
- c) Pertsona lesionatu baten aurrean hartu beharreko jarrera-neurriak ezaugarritu ditu.
- d) Mobilizazio eta lekualdatze desegokiaren ondorioak deskribatu ditu.
- e) Gaixoak edo istripua izan dutenak immobilizatu eta mobilizatzeko sistemak prestatu ditu, material ohikoekin eta berariazkoak ez direnekin nahiz beste baliabide batzuekin.
- f) Segurtasunerako eta norberaren babeserako arauak eta protokoloak aplikatu ditu.

4. Istripua izan duenari eta familiei zein laguntzaileei laguntza psikologikoa eta autokontrollekoa emateko teknikak aplikatzen ditu, eta komunikazio-estrategia egokiak deskribatu eta aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Istripua izan duen pertsonarekin eta laguntzaileekin komunikatzeko oinarritzko estrategiak deskribatu ditu.
- b) Istripua izan duen pertsonaren behar psikologikoak antzeman ditu.
- c) Istripua izan duen pertsonaren egoera emozionala hobetzeko laguntza psikologikoko oinarritzko teknikak aplikatu ditu.
- d) Istripua izan duen pertsonari jardun osoan zehar konfiantza eta baikortasuna emateak duen garrantzia baloratu du.
- e) Istripu, larrialdi eta doluko egoeretan antsietatea sorrarazten duten faktoreak identifikatu ditu.
- f) Dolu, antsietate, larritasun edo agresibitateko egoera bat kontrolatzeko erabili behar diren teknikak zehaztu ditu.
- g) Laguntzean huts egin izana psikologikoki gainditzeko erabili behar diren teknikak zehaztu ditu.
- h) Estres-egoeretan norbera kontrolatzearen garrantzia baloratu du.



c) Oinarrizko edukiak:

1. LARRIALDIETAKO LAGUNTZAREN HASIERAKO BALORAZIOA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Esku hartzeko eremua babesteko teknikak aplikatzea. Larrialdietako arreta-zerbitzuetarako sarbideak identifikatzea. - Norbera babesteko teknikak identifikatu eta aplikatzea. - Informazioa emateko teknikak aplikatzea. Berariazko terminologia erabiltzea. - Lesioen larritasuna eta mota kontuan hartuta, jardun-lehentasanak identifikatzea. Bizi-arriskua dakarten egoerak identifikatzea. Oinarrizko triajeak egitea. - Istripua izan duen personaren hasierako baloraziorako teknikak aplikatzea. Aire-bideen iragazkortasuna, aireztapena eta zirkulazioa egiaztatzea. Konorte-maila baloratzeko. Bizi-konstanteak hartzea. - Bizkortzeari buruzko nazioarteko koordinazio-batzordeak (ILCOR) xedatutako protokoloaren arabera identifikatzea jardun-sekuentzia. - Lehen laguntzetako botikinaren oinarrizko materiala identifikatu eta erabiltzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Larrialdietarako sistemak. - Lehen laguntzak. Helburuak eta mugak. BAS jokamoldea (babes-sistemak, abisu-sistemak eta sorospen-sistemak). - Istripuak. Motak eta ondorioak. - Eremua babesteko sistema. Metodoak eta materialak. - Mediku- eta osasun-terminologia lehen laguntzetan. Informazioa emateko protokoloak. - Biktima anitz daudenerako jardun-lehentasanak. Triage sinpleko metodoak. - Istripua izan duen pertsona baloratzeko teknikak. Bizi-arriskuaren zantzuak helduengan, haurrengan eta bularreko umeengan. Larrialdi-zantzuak eta -sintomak. - Miaketa egiteko protokoloak. Konorte-maila baloratzeko sistemak. Bizi-konstanteak hartzea. - Lehen esku-hartzailearen jarduna. Lege-esparrua, erantzukizunak eta etika profesionala. - Norberaren babesa eta segurtasuna esku-hartzean. Arriskuak. Neurriak eta ekipamendua. - Lehen laguntzetako botikina. Osagaiak, erabilera eta aplikazioak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ingurune seguruak sortzeko segurtasun-arauei eta protokoloiei zorrotz jarraitzea. - Jardunaren barruan, istripua izan duenarengan konfiantza eta lasaitasuna sortzeko interesa eta baretasuna erakustea. - Bere jardunaren mugez jabetzea.

2. BIZI EUSKARRIKO TEKNIKAK APLIKATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Bizi-arriskuko egoerak aztertzea. - Bizi-seinaleen presentzia identifikatu eta egiaztatzea. - Jarrera-tratamendu egokia aplikatzea. - Bizi-euskarriko teknikak identifikatzea eta egoera bakoitzerako xedatutako jardun-protokoloekin lotzea. - Bihotz-biriketako oinarritzko bizkortze-teknikak (BBB) aplikatzea. - Aire-bidea zabaltzeko teknikak aplikatzea. - Aireztapen- eta zirkulazio-euskarriko teknikak aplikatzea. - Kanpoko desfibriladore automatikoak erabiltzea. - Bizkortze ondoko neurriak aplikatzea. - Istripua izan duten pertsonen lehen eta bigarren mailako balorazioa egitea. - Lehen laguntzako teknikak aplikatzea honako lesio hauetan: agente fisikoen ondoriozkoak (hala nola traumatismoak, zauriak, odoljarioak, beroa edo hotza, elektrizitatea eta erradiazioak), agente kimikoen ondoriozkoak, agente biologikoen ondoriozkoak eta premiazko patologia organikoaren ondoriozkoak.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Aire-bideen iragazkortasuna kontrolatzea. Zabaltzeko eta buxadura kentzeko teknikak. Mantentze-lanak. - Bihotz-biriketako oinarritzko bizkortzea (BBB). Protokoloak helduekin, bularreko umeekin eta haurrekin. - Kanpoko desfibrilazio automatikoa (KDA). Teknikak. Tresnerien funtzionamendua eta mantentzea. Egoera bereziak. Informazio-prozedurak. Legeak. Ziurtagiria. - Istripua izan duen pertsonaren balorazioa. Bizi-seinaleak. Lehen eta bigarren mailako balorazioa. Esku hartu behar ez den egoerak. - Hasierako arreta agente fisikoen ondoriozko lesioetan (hala nola, traumatismoak, zauriak, odoljarioak, beroa edo hotza, elektrizitatea eta erradiazioak). - Hasierako arreta agente kimikoen eta biologikoen ondoriozko lesioetan. - Hasierako arreta premiazko patologia organikoan. - Konortearen asaldurak. Konorterik gabe dauden pertsonak baloratu eta zaintzea. - Krisi konbultsiboak dituzten pertsonak zaintzea.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ordena eta zehaztasuna jardun-protokoloak aplikatzean. - Errespetua eta zuhurtzia istripua izan duen pertsonarekiko tratuan. - Jardunaren barruan, istripua izan duenarengan konfiantza eta lasaitasuna sortzeko interesa eta baretasuna erakustea. - Tinkotasuna larrialdietako zerbitzuaren jarraibideak betetzean eta ez jarduteko egoeretan. - Bere jardunaren mugez jabetzea.

3. IMMOBILIZATU ETA MOBILIZATZEKO PROZEDURAK APLIKATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Istripua izan dutenak immobilizatu eta mobilizatzekeo teknikak aplikatzea. - Jarrera egokian jartzeko teknikak aplikatzea. - Immobilizatu eta mobilizatzekeo sistemak prestatzea (hala nola ferulak eta ohatilak).
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Immobilizatu, mobilizatu eta garraiatzeko teknikak. Oharrak. Motak. Materialak. Ohatilak. Ondorioak.

	<ul style="list-style-type: none"> - Lekualdatzeko beharra ebaluatzea. - Segurtasun- eta itxarote-jarrerak. Lekualdatzeko jarrerak. Oharrak. - Segurtasunari eta arriskuen prebentzioari buruzko arauak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ordena eta zehaztasuna jardun-protokoloak aplikatzean. - Errespetua eta zuhurtzia istripua izan duen pertsonarekiko tratuan. - Norbera babesteari eta segurtasunari buruzko araei zorrotz jarraitzea. - Jardunaren barruan, istripua izan duenarengan konfiantza eta lasaitasuna sortzeko interesa eta baretasuna erakustea.

4. LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA ETA AUTOKONTROLEKOA EMATEKO TEKNIKAK APLIKATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Kasuak kasu komunikazio-teknikak aplikatzea. Komunikazioan jokabide egokienak hautatzea. - Dolu, antsietate, larritasuna edo agresibitateko egoerak kontrolatzeko eta horietan laguntza psikologikoa emateko oinarritzko teknikak aplikatzea. - Autokontrolako eta hutsegitea edo adore falta gainditzeko teknikak aplikatzea. - Istripu, larrialdi eta doluko egoeretan antsietatea sorrazten duten faktoreak identifikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Oinarritzko komunikazio-estrategiak. Pertsonen arteko komunikazioa errazten duten teknikak. - Lehen esku-hartzailearen erantzun emozionala. Lehen esku-hartzailearen zeregina baloratzea. Istripu edo larrialdiko egoeretan antsietatea sorrazten duten faktoreak. Kontrol-teknikak. - Laguntza psikologikorako oinarritzko teknikak. Istripua izan duen pertsonaren eta haren familiakoen behar psikologikoak. Dolu, larritasun, antsietate, urduritasun edo agresibitateko egoerak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Jardunaren barruan, istripua izan duenarengan konfiantza eta lasaitasuna sortzeko interesa eta baretasuna erakustea. - Autokontrola estres-egoeren aurrean eta frustrazio-jasamena. - Zuhurtzia eta interesa sekretu profesionalari eusteko.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Modulu honen edukiak hurrenkera honi jarraituta irakastea gomendatzen da:

- Lehen laguntzen helburuak, terminologia, BAS (babestea, abisatzea eta sorostea).
- Lehen esku-hartzailea, bere jardunaren mugak, esparru etikoa, beste profesionalakiko harremana...
- Segurtasuna eta autobabesa, arrisku pertsonalak eta prebentzio-neurriak.
- Lehen laguntzetako botikina.
- Istripua izan duen pertsonaren hasierako balorazioa, zantzuak eta sintomak, esplorazio-protokoloak, bizi-konstanteei erreparatzea, eta abar.

- Oinarrizko bizi-euskarria aplikatzea, BBB, aire-bideak, desfibriladoreak erabiltzea...
- Mobilizatzeko eta immobilizatzeko teknikak. Segurtasun-jarrerak.
- Lehen laguntzak ematea traumatismoak, zauriak eta odoljarioak daudenean.
- Lehen laguntzak ematea beste egoera batzuetan (adibidez, beste eragile fisikoek, kimikoek edo biologikoek zein patologia organikoak eragindakoak).
- Komunikatzeko zein laguntza psikologikoa eta autokontrolakoa emateko teknikak aplikatzea.

2) Alderdi metodologikoak

Modulu honetan funtsezkoa da ikasleek ikasitako teknikak larrialdi-egoeretan aplikatzeko gauza izatea; horrenbestez, ezinbestekoa da praktikoki garatzea. Hala, ikasgelan lehen laguntzetako teknikak modu praktikoan aplikatuko dira behar bezalako ezaugarriak dituzten egoeretan.

Egoera horien ezaugarriak zehazteko, arlo profesionala har daiteke erreferentziatza, era horretan gehien gertatzen diren egoerak aurkezteko. Hainbat aldaketa egin daitezke esku hartzen duten pertsoneri edota horien adinari edo ezaugarriari, istripuaren tokiari eta abarrei dagokienez. Planteatutako egoerari zein aplikatutako teknikari buruz azterketa eta gogoeta egitea garrantzitsua izango da ikaskuntza horiek orokortzearen.

Eduki teorikoek bigarren mailako funtzioa dute; hortaz, teknikak aplikatzeko beharrezkoak diren neurrian erantsiko dira. Nolanahi ere, bigarren mailako eginkizun hori gorabehera, beharrezkoak dira jarduna ulertzeko eta hobeto gogoratzeko, eta, era horretan, teknikak praktikan jorratu ez diren beste egoera batzuetan aplikatu ahal izateko eta informazioa helarazi ahal izateko edota larrialdiak koordinatzeko zentro baten jarraibideei jarraitzeko.

Lehen laguntzak emateko egoera batekin lotuta ikasiko dira eta, oro har, unitate didaktiko bakoitzaren hasieran. Aurkezteko sistemak, azalpenezko metodoak adibidez, eta metodo askoz parte-hartzaileagoak erabil daitezke, hala nola ariketak ebatzea eta eskemak prestatzea, betiere ikasleen parte-hartzea eta jakin-mina lortzeko.

Ikasteko materiala, batetik, lehendik prestatutakoa izan daiteke (apunteak, aldizkariak edo eskulibururen bat), eta beste kasu batzuetan ikasleek beraiek presta dezakete material hori, bibliografia edo aplikazio informatikoak kontsultatuta. Ikasleak ohitu behar dira laneko protokoloak eta jarraibideak erabiltzera, eta horiei behar bezala eta zehaztasunez jarraitzera. Protokolo batzuei dagokienez, azken gomendioei adi egon beharra dago (ILCOR, esaterako), maiz berritzen baitituzte.

Jarduera praktikoak egiteko, honako bitarteko hauek behar dira: lehen laguntzetako manikiak (helduak, umeak eta bularreko umeak), oxigenoterapiako ekipoa, desfibriladorea, norbera babesteko ekipoa, sendatzeko materiala, immobilizatzeko materiala eta mobilizatzeko materiala, eta ikastetxeko hainbat gune erabil daitezke, besteak beste, ikasgelak, patioak, eskailerak edo korridoreak.

Profesionalen edo beste ikaskide batzuen jardunak, iruditan hartuta, azter daitezke; hala, zer osasun-arreta eman duten ikusi ondoren, hobekuntzak proposa daitezke edo interesgarriena nabarmen daiteke.

Ezinezkoa da lehen laguntzak emateko egoera guztiak praktikan garatzea (adibidez, eragile fisiko, kimiko edo biologiko guztiek zein patologia organikoak eragindakoak). Hainbat egoera aukera daitezke, maizen gertatzen direnak edo larrienak esaterako, ikasleek jarduteko oinarrizko trebetasunak gara ditzaten (hala nola sintoma batzuk ezagutzea, laguntza ematen hastea, telefonoz harremanetan jartzea larrialdiak koordinatzeko zentroarekin, informazioa ematea eta jarraibideei jarraitzea).

Laguntza psikologikoarekin eta komunikatzeko teknikekin lotutako edukiak ohikoak dira oso ikasketa-planetan. Horiei heltzeko, ikasleen aurretiko ezagutzak hartu behar dira oinarritzat, eta aurretik ikasi badira, larrialdietako komunikazioarekin eta laguntzarekin lotura handien duen atala aztertuko da. Taldeko teknikak egin daitezke (*role-playing*, kasu-azterketak...) ikasleek nola jokatzen duten ikusteko eta trebetasunak ager ditzaten.

Modulu honetan lortutako trebetasun batzuk oso egoera txarretan aplikatu beharko dira (presa, nerbioak...), horregatik oinarritzko edukiak eta garrantzitsuenak ongi finkatu behar dira (jardunaren sekuentziak, BBB, autobabesa...). Moduluaren amaieran, ikasitakoa berrikusteko denbora bat ezar daiteke; bertan askotariko egoerak presta daitezke, unitate didaktiko guztien edukiekin lotuta, era horretan ikasleek lortutako heldutasuna ebaluatzeko.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Jarduteko BAS protokoloa aplikatzea hainbat egoeratan. Gunea eta istripua izan duena babestea. Abisatzea eta informazioa igortzea. Sorospen-neurriak hastea.
- ✓ Norberaren arriskuak identifikatzea, eta istripu-kasu ezberdinetako prebentzio-neurriak erabiltzea.
- ✓ Lehen laguntzetako botikinaren oinarritzko osagaiak identifikatzea. Produktuen zerrendak prestatzea, baita horiek erabiltzeko arauak biltzen dituzten agiriak ere. Sendaketak egitea.
- ✓ Laguntzaren hasierako balorazioa egitea hainbat egoeratan. Zantzuak eta sintomak bilatzea. Bizi-konstanteak hartzea. Jardun-protokoloa identifikatzea.
- ✓ Lehen laguntzetako hainbat teknika aplikatzea. Oinarritzko bizi-euskarriko teknikak aplikatzea. BBB egitea. Aire-bideei erreparatzea. Kanpoko desfibriladore automatikoa erabiltzea. Pertsonak mobilizatzea. Istripua izan dutenak lekualdatzea. Pertsonak immobilizatzea.
- ✓ Kasuak kasu komunikazio-teknikak aplikatzea. Informazioa prestatzea eta transmititzea.
- ✓ Laguntza psikologikoko teknikak aplikatzea.
- ✓ Taldeko tekniketara parte hartzea. Iritziak eta sentimenduak adieraztea.
- ✓ Laneko dependentziak eta egoerak aztertzea, eta horietako bakoitzean egon daitezkeen arriskuak zehaztea.
- ✓ Larrialdietako egoerak aztertzea zer egin behar den eta zer egin behar ez den baloratzeko.
- ✓ Jarduteko idatzizko eta ahozko protokoloak interpretatzea.

3. lanbide-modulua

GIZARTEAN ESKU HARTZEKO METODOLOGIA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Gizartean esku hartzeko metodologia
Kodea:	0344
Heziketa-zikloa:	Genero-berdintasuna sustatzea
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	132 ordu
Kurtoa:	1
Kreditu kop.:	9
Irakasleen espezialitatea:	Gizarte arloko esku-hartzea (Bigarren Hezkuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal hauei lotuta dago: UC1022_3: Gizarte edo lurralde-esparru jakin bat osatzen duten eragileen artean garatzen diren gizarte-jardunen eta -proiektuen eta herritarrek parte hartzekoen plangintza, garapena eta ebaluazioa dinamizatzea. UC1024_3: Gizarte-proiektuen eta -jardunen komunikaziorako eta hedapenerako estrategiak ezartzea. UC1026_3: Genero-ikuspegia txertatzea gizartean esku hartzeko proiektuetan.
Helburu orokorrak:	1 / 2 / 3 / 5 / 16 / 18 / 19 / 20 / 23 / 24

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Gizarte-errealitatea aztertzeko metodoak, teknikak eta tresnak zehazten ditu, ezaugarriak eta aplikazio-esparrua interpretatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- Informazioa lortzeko metodo, teknika eta tresna nagusiak identifikatu ditu.
- Tresna eta baliabideak aplikatzeko eskakizunak zehaztu ditu.
- Teknika eta tresnen aplikazioak, aukerak eta mugak identifikatu ditu.
- Xedearekin koherenteak diren tresnak landu ditu.
- Komunikazioaren teknologiak erabili ditu informazioa lortzeko tresnak lantzean.
- Egoerarako egokiak diren analisi-teknikak hautatu ditu.
- Esku-hartzearen errealitatean analisiaren zeregina justifikatu du.

h) Informazioa biltzearen eta tratatzearen alderdi etikoak baloratu ditu.

2. Gizartean esku hartzeko proiektua osatzen duten elementuak zehazten ditu, eta elementu horiek plangintza-ereduekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Gizartean esku hartzeko hainbat eredu teoriko alderatu ditu.
- b) Gizartean esku hartzeko plangintzaren mailak identifikatu ditu.
- c) Plangintza-ereduak alderatu ditu.
- d) Plangintza-prozesuaren faseak deskribatu ditu.
- e) Gizartean esku hartzeko proiektuak behar bezala funtsatzearen beharra justifikatu du.
- f) Plangintzaren oinarriko elementuak identifikatu ditu.
- g) Gizarteko esku-hartzean aplikatzekoak diren metodoak, teknikak eta tresnak alderatu ditu.

3. Gizartean esku hartzeko proiektuak sustatzeko eta hedatzeko estrategiak zehazten ditu, eta eskura dauden baliabideak erdietsi nahi diren lorpenekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Publizitateari eta hedabideei buruzko oinarriko prozesuak eta kontzeptuak azaldu ditu.
- b) Gizarte-proiektuen sustapenean eta hedapenean hedabideek duten garrantzia argudiatu du.
- c) Sustapen- eta hedapen-kanpaina bateko oinarriko elementuak identifikatu ditu.
- d) Gizarte-proiektuak sustatzeko eta hedatzeko bitarteko, estrategia eta teknika nagusiak deskribatu ditu.
- e) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabili ditu sustapen- eta hedapen-materialak lantzeko.
- f) Gizarte-proiektuak sustatzeko eta hedatzeko kanpainak diseinatu ditu, askotariko baliabideak erabilia.
- g) Gizarte-proiektuak sustatzeko eta hedatzeko beharra argudiatu du.
- h) Gizarte-proiektuak sustatzeko eta hedatzeko prozesuetan, informazioaren egiazkotasuna bermatu beharra justifikatu du.

4. Gizartean esku hartzeko proiektuak lantzean genero-ikuspegia txertatzen du, eta erabilitako estrategiak eta irizpideak indarrean dagoen esparru teorikoarekin eta legalarekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Genero-ikuspegitik egiten den errealitatearen analisiaren garrantzia argudiatu du.
- b) Gizartean esku hartzeko proiektuak egitean, genero-ikuspegia txertatzearen beharra argudiatu du.
- c) Aukera-berdintasuna sustatzen duen lege-esparrua interpretatu du.
- d) Parte-hartzearen ingurunean dauden aukera-berdintasuneko erakundeen eta organismoen informazioa eta baliabideak interpretatu ditu.
- e) Proiektuetan genero-ikuspegia txertatzeko irizpideak identifikatu ditu.
- f) Hizkuntza ez-sexistaren erabilerari buruzko nazioarteko protokoloak aztertu ditu.
- g) Gizartean esku hartzeko proiektuen plangintzan hizkuntza ez-sexista erabiltzea ziurtatu du.
- h) Sustapen- eta hedapen-tresnetan genero-ikuspegia txertatzeko estrategiak identifikatu ditu.
- i) Genero-indarkeriaren adierazpen nagusiak identifikatu ditu, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunen erakusle moduan.

5. Gizartean esku hartzeko proiektuetako ebaluazio-prozedurak definitzen ditu, eta, horretarako, eredu teorikoak aztertzen ditu eta genero-ikuspegia hartzen du aintzat.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Gizarteko esku-hartzea ebaluatzeko ereduak, teknikak eta tresnak deskribatu ditu.
- b) Ebaluazioaren funtzioak eta printzipio orokorrak azaldu ditu.
- c) Ebaluazioaren faseak deskribatu ditu.
- d) Gizartean esku hartzeko proiektuak ebaluatzeko teknikak, adierazleak, irizpideak eta tresnak zehaztu ditu.
- e) Diseinatutako proiektuetan kalitatea kudeatzeko prozedura orokorrak ezarri ditu.
- f) Gizartean esku hartzeko proiektuetan genero-ikuspegia txertatu dela egiaztatzeko estrategiak eta tresnak zehaztu ditu.
- g) Programen funtzionamendua optimizatzeko eta horien kalitatea bermatzeko ebaluazioa egitearen beharra argudiatu du.
- h) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabili ditu ebaluazio-txostenak eta memoriak lantzeko eta aurkezteko.

c) Oinarrizko edukiak:

1. ERREALITATEA AZTERTZEKO METODOAK, TEKNIKAK ETA TRESNAK ZEHAZTEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Informazio-iturri nagusiak eta informazioa erregistratzeko sistemak aztertzea: <ul style="list-style-type: none"> • Behaketa. • Elkarrizketa. • Galdetegia. • Inkesta. • Dokumentu-bilduma. - Informazioa biltzeko tresnak lantzea eta aplikatzea. - Datuak aztertzea eta interpretatzea: <ul style="list-style-type: none"> • Metodoak, teknikak eta tresnak. • Oinarrizko estatistika. - Gizarte-ikerketan informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte-ikerketako metodoak eta teknikak: <ul style="list-style-type: none"> • Oinarrizko kontzeptu eta alderdi teorikoak. • Ikerketa-ekintza. • Teknikak eta tresna kualitatiboak eta kuantitatiboak. • Oinarrizko laginketa-tekniken analisia. - Tekniken eta tresnen aukerak eta mugak. - Informazio-iturriak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Informazioa biltzearen alderdi etikoen balorazioa. - Informazioaren fidagarritasuna eta baliozkotasuna.

2. GIZARTEAN ESKU HARTZEKO PROIEKTUEN ELEMENTUAK ZEHAZTEA

prozedurazkoak	- Gizartean esku hartzeko eredu teorikoak aztertzea.
----------------	--

	- Gizartean esku hartzeko proiektu bat planifikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Eredu teorikoak gizartean esku-hartzean: ekologikoa eta sistemikoa, besteak beste. - Gizarteko esku-hartzearen plangintza: <ul style="list-style-type: none"> • Kontzeptua, funtzioak eta eredu teorikoak. • Plangintza-mailak: plana, programa eta proiektua. • Planifikazio motak. • Printzipio orokorrak eta plangintzaren eskakizunak. • Plangintzaren alde onak, alde txarrak eta mugak. - Gizarteko esku-hartzearen programazio-teknika bereizgarriak. - Plangintzaren prozesua. Faseak eta elementuak: <ul style="list-style-type: none"> • Oinarrizko kontzeptuak. • Elementu metodologikoak: esku hartzeko estrategiak eta teknikak, jarduerak eta zereginak. • Denborak definitzeko teknikak. • Giza baliabideen eta baliabide materialen antolamendua eta kudeaketa. • Barne-koherentziaren analisia. • Bezeroei arreta emateko prozesua. • Atzeraelikadura.
jarrerazkoak	- Goi-mailako teknikariaren jardunaren ardatz gisa baloratzea proiektua.

3. PARTE HARTZEKO PROIEKTUAK SUSTATZEKO ETA HEDATZEKO ESTRATEGIAK ZEHAZTEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte-proiektuak sustatzeko eta hedatzeko materialak lantzea. - Gizarte-proiektuak sustatu eta hedatzeko, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea: testu-lanketako programak, aurkezpenak, irratia eta bideoa...
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Publizitatearen eta komunikazioaren oinarrizko kontzeptuak. - Publizitatea eta hedabideak gizarteko esku-hartzean: <ul style="list-style-type: none"> • Sustapen- eta hedapen-estrategiak. Marketina. • Gizartean esku hartzeko proiektuak sustatzeko eta hedatzeko kanpainen diseinua.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Elementu materialen (tresnen eta ekipoen) balio tekniko berriak kontuan hartzeko alde zuzeneko jarrera izatea (ekarpen positiboa). - Gizarte-proiektuak sustatzeko eta hedatzeko zereginen garrantzia baloratzea.

4. GENERO IKUSPEGIA TXERTATzea GIZARTEAN ESKU HARTZEKO PROIEKTUETAN

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Errealitatea genero-ikuspegitik aztertzea. - Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen duten baliabideak edota organismoak aztertzea. - Sustapen- eta hedapen-tresnetan, genero-ikuspegia txertatzea.
kontzeptuzkoak	- Genero-ikuspegia, gizartean esku hartzeko proiektuak diseinatzean.

	<ul style="list-style-type: none"> - Aukera-berdintasunaren legezko esparrua. - Nazioarteko protokoloak. Hizkuntza ez-sexistaren gidak eta eskuliburuak. - Sustapen- eta hedapen-tresnetan, genero-ikuspegia txertatzea.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Talde-dinamiketan garapena errazten duen elementu positibotzat baloratzea gatazka. - Arazoak eta gatazkak ebazteko garaian errespetuak eta tolerantziak duten zeregina baloratzea.

5. GIZARTEAN ESKU HARTZEKO PROIEKTUAK EBALUATZEKO PROZEDURAK DEFINITZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Proiektuak ebaluatzea: <ul style="list-style-type: none"> • Kontzeptua, funtzioak eta eredu teorikoak. • Ebaluazioaren printzipioak eta motak. • Ebaluazioa, programazio-elementu gisa. - Ebaluazio-prozesua aztertzea: <ul style="list-style-type: none"> • Faseak. • Ebaluazioaren edukiak. • Ebaluazio-baliabideen eta -jardueren antolaketa. - Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko, parte-hartzeen ebaluazioa eta jarraipena egitea. - Txostenak eta memoriak egitea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizartean esku hartzeko proiektuetan, kalitatea kudeatzea. - Informatika-euskarriak informazioaren tratamenduan eta antolamenduan.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ebaluazioan, objektibotasuna baloratzea. - Gizartean esku hartzeko proiektuen ebaluazioaren garrantzia baloratzea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziarioa

Modulu hau egituratzeko, honako fase hauek ezartzea proposatzen dugu:

1. Gizarteko esku-hartzea antolatzea.
 2. Parte hartzea/Gauzatzea.
 3. Gizarteko esku-hartzea ebaluatzea.
 4. Gizarteko esku-hartzea sustatzea/hedatzea.
 5. Gizarteko esku-hartzearen kalitatea kudeatzea.
1. **Lehenengo faseak** (antolaketa-funtzioa), besteak beste, alderdi hauek barne hartzen ditu:
- ✓ Beharrak hautematea.
 - ✓ Programazioa.
 - ✓ Parte-hartzea kudeatzea/koordinatzea.



- ✓ Txostenak egitea.
2. **Bigarren faseak** (parte hartu/gauzatzeko funtzioa), besteak beste, alderdi hauek barne hartzen ditu:
 - ✓ Informazioa biltzea.
 - ✓ Jarduna antolatzea.
 - ✓ Parte hartzeko estrategiak aplikatzea.
 - ✓ Jarduerak kontrolatzea, jarraitzea eta ebaluatzea.
 - ✓ Lotutako dokumentazioa lantzea eta betetzea.
 3. **Hirugarren faseak** (ebaluazio-funtzioa) parte-hartzea orokorrean kontrolatzeko eta jarraitzeko diseinatutako prozeduren ezarpena barne hartzen du.
 4. **Laugarren faseak** (sustatze/hedatze-funtzioa), besteak beste, alderdi hauek barne hartzen ditu:
 - ✓ Kanpainak eta proiektuak sustatzea.
 - ✓ Publizitate-euskarriak lantzea.
 5. **Bosgarren faseak** (kalitatea kudeatzeko funtzioa), besteak beste, alderdi hauek barne hartzen ditu:
 - ✓ Zerbitzua baloratzea.
 - ✓ Prozesua kontrolatzea.

2) Alderdi metodologikoak

Moduluaren helburuak lortzea ahalbidetzen duten irakatsi eta ikasteko prozesuko jardun-ildoek moduluaren prozedurazko ikuspegia izango dute abiapuntu: ikasgela barruan eta kanpoan simulazioak egingo dira, eta metodologia aktibo eta motibatzailea erabiliko da, ikasleek eragile aktibo gisa parte har dezaten irakatsi eta ikasteko prozesuan. Horretan, honako hauek hartuko dira lehentasuntzat:

- talde-lana.
- informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea.
- gizartean esku hartzeko, plangintzak duen balioaren inguruan sentsibilizatzea.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Programen dokumentu-azterketa.
- ✓ Gizarte-errealitatea aztertzeko tresnak lantzea eta aplikatzea.
- ✓ Sustapen- eta hedapen-kanpainak eta estrategiak diseinatzea, beharrezkoak diren materialak landuta.
- ✓ Gizartean esku hartzeko proiektuak ebaluatzea.
- ✓ Proiektuak sustatzea eta hedatzea.

4. lanbide-modulua

GIZARTE GARAPENA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Gizarte-garapena
Kodea:	1128
Heziketa-zikloa:	Genero-berdintasuna sustatzea
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	132 ordu
Kurtoa:	1
Kreditu kop.:	7
Irakasleen espezialitatea:	Gizarte arloko esku-hartzea (Bigarren Hezkuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Kompetentzia-atal hauei lotuta dago: UC1020_3: Gizarte-eragile nagusiekin (herritarrekin, teknikariekin eta administrazioekin) harremanak ezartzea eta mantentzea, horien arteko harremanak dinamizatuta. UC1021_3: Gizarte-proiektuetan eta -baliabideetan herritarren parte-hartzea sustatzea. UC1023_3: Elkarte-ehunaren sorreran eta garapenean parte hartzea, bultzatzea eta laguntzea. UC1025_3: Gizarte-eragileen arteko gatazkak kudeatzean, bitartekaritza-prozesuak eta -teknikak aplikatzea.
Helburu orokorrak:	1 / 2 / 3 / 4 / 5 / 6 / 7 / 8 / 9 / 16 / 18 / 22

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Gizarte-proiektuak diseinatzen ditu, eta, horretarako, gizarte-errealitatearen analisisian eta esku-hartzearen plangintzan gizarte-eragileen parte-hartzea bermatuko duten estrategiak hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Gizarteko egiturazko elementuak eta gizarte-prozesuaren eragile nagusiak identifikatu ditu.
- Gizarte-garapenaren testuinguruak, esparruak eta esku-hartze sektoreak identifikatu ditu.
- Gizarte-eragileekin harremanak sortzeko eta mantentzeko estrategiak definitu ditu.

- d) Gizarte-mailako eragileen, sare sozialen, proiektuen eta programen datu-baseak sortu ditu.
- e) Gizarte-garapeneko programak eta esperientziak aztertu ditu.
- f) Pertsonen, kolektiboen, taldeen eta erakundeen nahiak eta interesak identifikatzeko tresnak definitu ditu.
- g) Gizarte-proiektuetan parte hartzeko plangintzarako faseak, estrategiak eta tresnak deskribatu ditu.
- h) Informazio-bideei eta -iturrii buruzko datuak eguneratuta mantentzearen garrantzia argudiatu du.

2. Gizarte-prozesuen eraikuntzan herritarren parte-hartzea sustatzeko jarduerak egiten ditu, eta esparru legalarekin eta eskura dauden baliabideekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Gizartearen eta herritarren partaidetza-prozesuak eta horien esparru legala ezaugarritu ditu.
- b) Gizarteko edo zonako taldeen, kolektiboen, entitateen eta erakundeen partaidetza-maila identifikatzeko tresnak landu ditu.
- c) Gizarte-mailako parte-hartzea errazten edo eragozten duten faktoreak identifikatu ditu.
- d) Gizarte-eragileen parte-hartzea eta elkarlana sustatzeko baliabideak eta estrategiak hautatu ditu.
- e) Gizarte-laguntzan oinarritutako gizarteko esku-hartzeak ezaugarritu ditu.
- f) Gizarte-laguntzako prozesuetan gizarte-dinamizatzailearen zeregina deskribatu du.
- g) Gizarte edo zona batean dauden topagune formalek eta informalek identifikatu ditu.
- h) Topaguneen eta materialen kontrolerako eta partaidetza-kudeaketarako protokoloak ezarri ditu.

3. Gizarte-eragileen artean komunikazioa eta informazio-trukea sustatzeko baliabideak eta estrategiak aplikatzen ditu, lurraldearen eta gizartearen ezaugarriak eta informazio-beharrak identifikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Komunikazio-teknikak eta -estrategiak hautatu ditu, lurraldearen eta gizartearen ezaugarriei erreparatuta.
- b) Gizartearen informazio-beharrak identifikatzeko tresnak landu ditu.
- c) Jardun-lurraldean dauden komunikazio formaleko eta informaleko tresnak identifikatu ditu.
- d) Gizartearen dinamizazioan, informazio-iturri nagusiak identifikatu ditu.
- e) Gizarte-prozesuetan sortutako informazioa biltzeko eta sistematizatzeko tresnak landu ditu.
- f) Gizarte-proiektuen eta -jardunen komunikaziorako eta hedapenerako baliabideak eta estrategiak erabili ditu.
- g) Gizarte-esparruan informazioa trukatzeko eta hedatzeko protokoloak landu ditu.
- h) Jardueren hedapen-maila eta emandako informazioaren inpaktua baloratzeko adierazleak definitu ditu.

4. Elkarre-ehunari laguntza eta euskarri teknikoa eskaintzeko jardunak egiten ditu, elkarre-ehuna eratzeko eta kudeatzeko lege- eta administrazio-esparrua aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Entitate edo elkarre bat eratzeko eta kudeatzeko lege-esparrua eta administrazio-prozedurak aztertu ditu.

- b) Entitate edo elkarte bat eratzeko dokumentuak bete ditu.
- c) Entitateen eta elkarten antolamendu-egitura eta egitura funtzionala deskribatu du.
- d) Elkarte-ehuna garatzean eta mantentzean gizarte-dinamizatzailaren zeregina eta funtzioak deskribatu ditu.
- e) Informazioa kudeatzen duten hainbat organismoren, erakunderen eta baliabideren dokumentazioa eskatzeko bideak identifikatu ditu.
- f) Entitateek edo elkarteek administrazioen eskutik jaso ditzaketen laguntzak eta prestazioak identifikatu ditu.
- g) Elkarte-ehunari laguntzeko baliabideei buruzko gidak eta datu-baseak landu ditu.

5. Gizarte-bitartekaritzako prozesuak garatzen ditu, eta, eginkizun horretan, gatazkaren eta inplikaturako gizarte-eragileen ezaugarriak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Gatazkaren egoera ezaugarritzeko muntzako informazioa lortu du.
- b) Aztertutako egoerak bitartekaritzaren mende egon behar duen argudiatu du.
- c) Gizarte-bitartekaritzako prozesua egitearen faseak eta baldintzak errespetatu ditu.
- d) Erabilitako tekniken eta prozeduren aukeraketa argudiatu du.
- e) Bitartekaritza-prozesuan entzute aktiboko jarrera izan du.
- f) Prozesuaren ebaluazioa egiteko eta erabakien jarraipena egiteko jardun-ildoak ezarri ditu.
- g) Bitartekaritza-prozesuarekin lotzen den dokumentazioa bete du.
- h) Prozesuarekin lotzen den informazioa fidagarria, baliozkoa eta konfidentziala izatearen beharra baloratu du.

6. Gizarte-proiektuak ebaluatzeko jarduerak egiten ditu, eragileen parte-hartzea ahalbidetuko duten estrategiak, teknikak eta tresnak hautatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ebaluazio parte-hartzaileko estrategiak eta tresnak hautatu ditu, gizartearen ezaugarriari eta lortu beharreko helburuei erreparatuta.
- b) Parte hartzeko prozesuen jarraipena egiteko tresnak landu ditu, gainerako eragileekin elkarlanean.
- c) Ebaluazioa biltzeko eta aztertzeko teknikak eta tresnak eragileen errealitatera egokitu ditu.
- d) Ebaluazioaren emaitzak inplikaturako taldekide eta eragile guztiei komunikatzeko protokoloak ezarri ditu.
- e) Gizarte-eragileen artean ezarritako lotura eta koordinazio-maila identifikatzeko aukera emango duten analisi-tresnak identifikatu ditu.
- f) Gizarte-proiektuan erabilitako komunikazio-estrategien eta -tresnen erabilgarritasuna egiaztatzeko irizpideak eta adierazleak ezarri ditu.
- g) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabili ditu ebaluazio-txostenak eta memoriak lantzeko, aurkezteko eta hedatzeko.
- h) Parte-hartzearen kalitatea kudeatzeko prozedura orokorrak ezarri ditu.

c) Oinarrizko edukiak:

1. GIZARTE PROIEKTUAK DISEINATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte-garapeneko esku-hartzearen testuinguruak, esparruak eta sektoreak identifikatzea. - Gizarte-eragileen harremanak sortzeko eta mantentzeko estrategiak definitzea.

	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte-eragileekin harremanak sortzea eta mantentzea: <ul style="list-style-type: none"> • Estrategiak. - Gizarte-arloko datu-baseak lantzea: <ul style="list-style-type: none"> • Informazioa aukeratzea, sailkatzea eta artxibatzea. Oinarrizko printzipioak. • Egiteko irizpideak: fidagarritasuna, eguneratze erraza eta gizarteko kideen aprobetxamendu autonomoa. Irisgarritasuna. • Informazioa mantentzea eta eguneratzea. • Gizarte-garapeneko programa eta esperientzia zehatzak aztertzea. - Errealitatearen analisi parte-hartzailea: <ul style="list-style-type: none"> • Pertsonen, kolektiboen, taldeen eta erakundeen nahiak eta interesak identifikatzeko tresnak. • Gizarte-arloan datuak biltzeko teknikak eta tresnak.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte-egituraren analisia. Gizartearen antolamendua: <ul style="list-style-type: none"> • Gizarte-egituren mugaketa. Gizarte eta kultur adierazleak: <ul style="list-style-type: none"> ○ «Gizartearen» kontzeptua. ○ Gizartearen egiturazko elementuak. ○ Lurraldea, biztanleria, eskaria eta baliabideak. ○ Gizarte-sarea, taldeak, kolektiboak eta auzoa. - Gizarte-garapena: <ul style="list-style-type: none"> • Garapenaren ikuskerak. Aurrekari historikoak. • Esku-hartzearen testuinguruak, esparruak eta sektoreak. • Landa-eremua eta gizarte-garapena. - Gizarte-prozesuaren eragileak: <ul style="list-style-type: none"> • Administrazioa eta erakundeak. • Biztanleria eta antolamenduak. • Baliabide teknikoak eta profesionalak. - Gizarte-taldea. - Gizarte-dinamizatzailea. Zeregina eta funtzioak. Aurkezpen-protokoloak. - Parte-hartzearen plangintza: <ul style="list-style-type: none"> • Prozesuetara eta emaitzetara bideratutako parte-hartzearen plangintza: esparru logikoaren ikuspegia.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Parte-hartzearen balorazioa, gizarte-garapenaren ardatz gisa. - Informazio-bideei eta -iturriei buruzko datuak eguneratuta mantentzearen garrantzia.

2. GIZARTE PROZESUEN ERAIKUNTZAN HERRITARREN PARTE HARTZEA SUSTATZEKO JARDUERAK EGITEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte-mailako parte-hartzea aztertzea: <ul style="list-style-type: none"> • Teknikak eta tresnak. • Irizpideak eta adierazleak. - Gizarte-mailako parte-hartzearen prozesuan eragina duten faktoreak aztertzea: <ul style="list-style-type: none"> • Gizarte-mailan parte hartzeko jarrerak eta motibazioak. - Gizarte-eragileen parte-hartzea eta elkarlana sustatzeko baliabideak eta estrategiak hautatzea. - Parte hartzeko estrategiak aplikatzea. Sentsibilizazioa eta motibazioa. Gizartea prestatzea eta gaitzea. - Gizarte-laguntzako prozesuetan gizarte-dinamizatzailearen zeregina
----------------	---

	deskribatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizartearen eta herritarren parte-hartzea: <ul style="list-style-type: none"> • Abiapuntua. • Historia. • Oraingo egoera. - Gizarte-boluntariotza: <ul style="list-style-type: none"> • Bilakaera historikoa. - Boluntariotzaren esparru legala nazioarte-, estatu- eta autonomia-mailetan. <ul style="list-style-type: none"> • Boluntariotza eta lankidetzak. • Boluntariotzak gaur egun duen zeregina. • Herritarren parte-hartzearen esparru legala. • Herritarren parte-hartzearen erregelamenduak. - Gizartean esku hartzeko gizarte-laguntza: <ul style="list-style-type: none"> • Sare sozialak. Sare sozialen motak eta osaera. • Autolaguntzako taldeak. • Profesionalaren zeregina. - Espazioak baliabide metodologiko gisa. - Topaguneak. Partaidetza-kudeaketa: <ul style="list-style-type: none"> • Erabiltzeko eta funtzionatzeko protokoloak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Zehaztasunez lan egitea. - Arazoen eta ezusteko egoeren aurrean erantzuteko gaitasuna.

3. GIZARTE ERAGILEEN ARTEAN KOMUNIKAZIOA ETA INFORMAZIO TRUKEA SUSTATZEKO BALIABIDEAK ETA ESTRATEGIAK APLIKATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarteko informazio-beharrak hautemateko metodoak eta teknikak aplikatzea. - Gizarte-inguruneko komunikazio-baliabideak identifikatzea: <ul style="list-style-type: none"> • Baliabide formalak eta informalak. • Baliabideak ikertzea. - Gizarte-garapenean, informazio- eta prestakuntza-kanpainak egitea. - Gizarte-esparruan, informazioa kudeatzea: <ul style="list-style-type: none"> • Informazioa eguneratzea. Garrantzia. • Informazioa trukatzeko protokoloak. • Egiteko irizpideak: eragimena harreran, hartzaileen ezaugarriekiko egokitzapena, bideak, euskarriak, denborak, aldiak, tresnen errentagarritasuna. • Informazioaren inpaktua. Adierazleak.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte-mailako parte-hartzeari aplikatutako komunikazio-teknikak. - Komunikazioan parte hartzen duten faktoreak, betiere gizarte-dinamizazioaren esparruan. - Gizarte-esparruan, informazioa kudeatzea: <ul style="list-style-type: none"> • Informazio-bideak eta -iturriak. • Datu-baseak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Parte-hartzearen balorazioa, gizarte-garapenaren ardatz gisa. - Informazio-bideei eta -iturriei buruzko datuak eguneratuta mantentzearen garrantzia.

4. ELKARTE EHUNARI LAGUNTZEKO ETA EUSKARRI TEKNIKOA EMATEKO JARDUNAK EGITEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte-elkarteen eta entitateen antolamendu-egitura eta egitura funtzionala aztertzea: <ul style="list-style-type: none"> • Lanaren antolaketa. • Komunikazioa. • Barne-prestakuntza. • Langileen kudeaketa. • Profilak eta funtzioak. - Administrazio-antolaketa: artxiboak eta prozedurak. - Elkarte-ehunari laguntzeko baliabideak hautatzea. - Baliabideak lortzea. - Elkarte-ehuna garatzean eta mantentzean, gizarte-dinamizatzailearen zeregina eta funtzioak deskribatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gobernu kanpoko erakundeak (GKE), fundazioak eta gizarte-izaerako elkarteak: <ul style="list-style-type: none"> • Esparru historikoa. - Esparru legala: <ul style="list-style-type: none"> • Elkarteei buruzko legea. • Fundazioei buruzko legea. - Elkarte/fundazio bat sortzeko prozesua: <ul style="list-style-type: none"> • Fase bakoitzaren ezaugarriak. - Giza baliabideak elkarrekin, fundazioetan eta GKEetan. - Profesionalaren zeregina eta funtzioak elkarrekin laguntzeko eta euskarri teknikoak emateko garaian. - Herri-administrazioa elkarrekin laguntzan. - Finantzazio motak: diru-laguntzak, hitzarmenak, kontratuak eta zerbitzugintza.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Parte-hartzearen balorazioa, gizarte-garapenaren ardatz gisa. - Informazio-bideei eta -iturriei buruzko datuak eguneratuta mantentzearen garrantzia.

5. GIZARTE BITARTEKARITZAKO PROZESUAK GARATzea

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte-bitartekaritzako prozesuak egitea: <ul style="list-style-type: none"> • Etapak identifikatzea. Fase bakoitzaren ezaugarriak. • Gizartean gatazkak kudeatzeko teknikak aplikatzea. • Gizarte-bitartekaritzako erabakiak. Ezaugarriak eta baldintzak. • Gizarte-bitartekaritzan parte hartzen dutenen zeregina: • Profesionala bitartekaritza-prozesuan. Funtzioak eta trebetasunak. - Bitartekaritza-prozesuen ebaluazioa eta jarraipena egitea: <ul style="list-style-type: none"> • Kanpo-ebaluatzaileekiko koordinazioa gizarte-bitartekaritzan. - Bitartekaritza-prozesuarekin lotzen den dokumentazioa betetzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte-esparruko gatazken kudeaketa: <ul style="list-style-type: none"> • Ezaugarriak. • Ohiko gatazken definizioa eta motak. • Gatazkaren osagaiak gizarte-esparruan.

	<ul style="list-style-type: none"> • Gatazkaren zikloak. - Gizarte-bitartekaritza: <ul style="list-style-type: none"> • Motak, ezaugarriak eta protagonistak, gizarte-esparruko gatazken kudeaketan. • Bitartekaritza-prozesua gizarte-dinamizazioan. • Gizarte-bitartekaritzaren printzipioak. • Aplikazio-esparruak. • Gizarte-bitartekaritzaren onuradunak. • Gizarte-bitartekaritzaren alde onak eta txarrak.
jarrerazkoak	- Prozesuarekin lotzen den informazioa fidagarria, baliozkoa eta konfidentziala izatearen beharra baloratzea.

6. GIZARTE PROIEKTUAK EBALUATZEKO JARDUERAK EGITEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Partaidetza-prozesuak ebaluatzea. Tresnak, irizpideak eta adierazleak. - Eragileen arteko harremanak eta koordinazio-maila ebaluatzea. Tresnak, irizpideak eta adierazleak. - Komunikazio-estrategiak eta -tresnak ebaluatzea. Tresnak, irizpideak eta adierazleak. Informazioaren hedapenaren eta inpaktuaren adierazleak. - Parte-hartzea ebaluatzea: <ul style="list-style-type: none"> • Teknikak eta tresnak. • Teknikak eta tresnak eragileetara egokitzea. - Gizarte-esparruko txostenak eta memoriak egitea: <ul style="list-style-type: none"> • Gizarte-eragileetara egokitzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ebaluazioa gizarte-esparruan: ezaugarriak eta prozesua. - Kanpo-ebaluatzaileekiko koordinazioa. - Emaitzak aurkeztea eta hedatzea. - Kalitatearen kudeaketa gizarte-esparruan.
jarrerazkoak	- Prozesuarekin lotzen den informazioa fidagarria, baliozkoa eta konfidentziala izatearen beharra baloratzea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziak

Lanbide-modulu honek honako funtzio hauek gauzatzeko beharrezkoa den prestakuntza hartzen du baita: esku-hartzea antolatzea; zuzendu/gainbegiratzea; esku hartu/gauzatea; ebaluatu, sustatu eta hedatzea; koordinazio/bitartekaritza-lana egitea; kalitatea kudeatzea, eta gizarte-proiektuak administratzea.

Lehenengo faseak (antolaketa-funtzioa), besteak beste, alderdi hauek barne hartzen ditu:

- Beharrak hautematea.
- Programazioa.
- Esku-hartzea kudeatzea, koordinatzea eta gainbegiratzea.

– Txostenak egitea.

Bigarren faseak (zuzendu/gainbegiratzeko funtzioa) esku-hartzearen antolaketan eta garapenean parte hartzen duen lantaldearen eta pertsona-taldearen zuzendaritzarekin lotutako alderdiei egiten die erreferentzia.

Hirugarren faseak (esku hartu/gauzatzeko funtzioa), besteak beste, alderdi hauek barne hartzen ditu:

- Informazioa biltzea.
- Jarduna antolatzea eta garatzea.
- Jarduerak kontrolatzea, jarraitzea eta ebaluatzea.
- Lotutako dokumentazioa lantzea.
- Erabiltzaileei eta bestelakoei informatzea eta komunikatzea.

Laugarren faseak (ebaluazio-funtzioa) parte-hartzea orokorrean kontrolatzeko eta jarraitzeko diseinatutako prozeduren gauzatzea barne hartzen du.

Bosgarren faseak (sustatze/hedatze-funtzioa), besteak beste, alderdi hauek barne hartzen ditu:

- Kanpainak eta proiektuak sustatzea.
- Publizitate-euskarriak lantzea.

Seigarren faseak (koordinazio/bitartekaritzako funtzioa), besteak beste, alderdi hauek barne hartzen ditu:

- Atzeraelikadura ezartzea.
- Gatazkak kudeatzea.

Zazpigarren faseak (kalitatea kudeatzeko funtzioa), besteak beste, alderdi hauek barne hartzen ditu:

- Zerbitzua baloratzea.
- Prozesua kontrolatzea.

Zortzigarren faseak (administrazio-funtzioa), besteak beste, alderdi hauek barne hartzen ditu:

- Inbentarioak eta dokumentazioa kudeatzea.
- Giza baliabideak, eta baliabide material eta ekonomikoak kudeatzea.
- Mantentzea kudeatzea.
- Lizentziak, baimenak eta beste batzuk kudeatzea.
- Prebentzioa kudeatzea.

Funtzio horiei lotutako lanbide-jarduerak gizartearentzako zerbitzuen sektorean aplikatuko dira, gizarte-dinamizazioaren azpisektorean.

2) Alderdi metodologikoak

Moduluaren helburuak lortzeko aukera emango duten irakatsi eta ikasteko prozesuan jarduteko ildoek honako hauek izango dituzte aztergai:

- gizarte-errealitatearen azterketa.
- talde-lana, gizarte-errealitatea aztertzeko tresnak landu eta gizarte-proiektuetan parte hartzeko estrategiak diseinatzeko.
- informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera, informazioa lortu, kudeatu eta komunikatzeko, bai eta proiektuak sustatu eta zabaltzeko ere.

Irakaslea modulua osatzen duten edukiak landuz joango da, horientzat proposatutako sekuentziarioa kontuan hartuta. Horren bidez, ikasleek oinarri teoriko egokia izango dute, irakasleek diseinatutako jarduerak egiteko orduan euskarri gisa baliatzeko

moduan. Garrantzitsua da zuzentze-ildo bat ezartzea, modulua esanguratsua izateko, hari izaera globala emateko eta arlo itxiak ezartzeko joera saihesteko.

Garrantzitsua da modulu honetako prozedurazko edukiak alde batera ez uztea, horiek adieraziko baitute irakatsi eta ikasteko eta ebaluazioko jardueren zehaztapena.

Hala ere, kontzeptuzko egitura duen unitate didaktikoren bat ezartzeko erabakia hartuz gero, ez da aurreko gomendioaren aurkakotzat hartuko. Gehiegi ez erabiltzea gomendatzen da, horien orde, ikasleentzako metodologia aktiboen eta garapenean nolabaiteko autonomia eskatzen dietenen alde eginez.

Gomendagarria iruditzen zaigu jarduerak bakarkako lana bultzatzea (horrela, ikasleak beren irakaskuntza eraikiz joango dira) eta talde-lana ere indartzea. Horrela, animazio soziokulturalean profesionalen arteko koordinazioak eta talde-lanak duten garrantzia ikasiko dute ikasleek.

Gomendatzen da ikasleek aurrerago, beren lanbide-jardunean, aurkituko dituzten egoerak simulatzen dituzten jarduerak diseinatzea; hartara, ingurunea egokituko da, hainbat ustezko egoera praktikoa aurkeztuko, eta simulazioak egingo dira.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Gizarte-errealitatea aztertzeke tresnak lantzea eta aplikatzea.
- ✓ Gizarte-proiektuetan parte hartzea sustatzeko estrategiak eta kanpainak diseinatzea.
- ✓ Gizarte-bitartekaritzako prozesuak egitea.

5. lanbide-modulua

INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA GENEROAREN IKUSPEGITIK

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Informazioa eta komunikazioa generoaren ikuspegitik
Kodea:	1401
Heziketa-zikloa:	Genero-berdintasuna sustatzea
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	165 ordu
Kurtsoa:	1
Kreditu kop.:	12
Irakasleen espezialitatea:	Gizarte arloko esku-hartzea (Bigarren Hezkuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal honi lotuta dago: UC1453_3: Informazio-kanalak sustatzea eta mantentzea esku-hartzearen ingurunean, genero-ikuspegia txertatuta.
Helburu orokorrak:	1 / 2 / 3 / 5 / 6 / 7 / 17 / 20 / 21 / 24

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Komunikazio-prozesuak genero-ikuspegitik ezaugarritzen ditu, eta pentsamenduaren eta hizkuntzaren arteko loturak eta sexuagatiko diskriminazioan horiek zer-nolako eragina duten aztertzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- Hizkuntzaren, pentsamenduaren eta generoaren arteko loturak definitu ditu.
- Nortasunaren eta giza harremanen eraikuntzan hizkuntzak duen zeregina identifikatu du, bai eta sinesmen- eta ezagutza-sistemetan duena ere.
- Hizkuntzak generoaren eraikuntzan eta gizarte-irudikapenean duen eragina balioetsi du.
- Emakumeen eta gizonen gizarte-irudikapen hierarkizatueta ere duen hedapenean komunikabideek duten zeregina zehaztu du.
- Komunikabideen diskurtsoak gizarte-erproduzioan eta -eraldaketan duen eragina baloratu du.
- Generoaren eta emakumeen zereginaren gizarte-pertzepzioan eragina duten komunikazio-prozesuak ezaugarritu ditu.
- Hizkuntzaren erabilera sexistan, komunikazioaren, boterearen eta androzentrismoaren arteko loturak duen eragina identifikatu du.

2. Komunikazio- eta informazio-prozesuetan generoagatiko diskriminazio-egoerak hautematen ditu, eta mezuaren edukia eta erabilitako hizkera hitzezkoa eta ikonikoa aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Genero-ikuspegia baliatuta azter daitezkeen komunikazioaren elementuak identifikatu ditu, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak hautemate aldera.
- b) Komunikazio-prozesuak genero-ikuspegitik aztertzeko estrategiak eta teknikak erabili ditu.
- c) Generoagatiko diskriminazio motak identifikatu ditu komunikazioan eta informazioan.
- d) Hizkera hitzezko eta ikononikoaren erabilera sexistak eta androzentrikoaren eraginez, emakumeei eta gizonen behar eta interesei ere ematen zaizkien ikusgarritasun, tratamendu eta garrantzi desberdinak aztertu ditu.
- e) Hainbat esparrutan erabilitako komunikazio-sistemak eta -tresnak genero-ikuspegitik aztertzeko protokoloak erabili ditu.
- f) Mezuen edukietan, baita hitzezko hizkeran eta ikonikoan ere, estereotipo sexistak eta diskriminatzaileak hautemateko estrategiak eta tresnak aplikatu ditu.
- g) Komunikazioan eta informazioan sexuagatiko diskriminazio-egoerak erregistratzeko tresnak erabili ditu.
- h) Bildutako informazioa baliagarria eta nahikoa den baloratu du.

3. Komunikazio- eta informazio-ekintzak diseinatzen ditu genero-ikuspegia baliatuta, eta adierazpen- eta hizkuntza-baliabide ez-sexistak eta ez-diskriminatzaileak eta komunikazio-estiloetan aldaketa sustatzeko estrategiak aukeratzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Komunikazio-estiloetan mantentzen diren elementuak eta aldaketa sustatzen dutenak identifikatu ditu.
- b) Komunikazio-estiloetan genero-berdintasunaren alde egiteko eta emakumeen eta gizonen errealtate anitz guztiak era orekatuan adierazteko estrategiak ezarri ditu.
- c) Komunikazio- eta informazio-ekintzak egin ditu, gaur egungo genero-desberdintasunezko egoera eta arrakalen inguruan sentsibilizatu eta salatzeko.
- d) Alternatiba ez-sexistak definitu ditu, gizonen neurri berean eta tratatu berdina emanez, emakumeak gizarteratu eta ikusarazteko mezuak lantzeko.
- e) Pentsamendu- eta komunikazio-eredu ez-sexistak eta ez-androzentrikoetara aldatzeko komunikazio-jarraibideak ezaugarritu ditu.
- f) Gizarte-ingurunean emakumeek egiten duten lana eta daukaten parte-hartzea erakusteko komunikazio-formulak identifikatu ditu.
- g) Testuak eta mezuak formatu bibliografiko, ikus-entzunezko eta digitalean eta genero-ikuspegia baliatuta egiteko jarraibideak aintzat hartu ditu.
- h) Genero-ikuspegia berdintasunezko komunikazio-jarraibide gisa aintzat hartzearen garrantzia balioetsi du.

4. Komunikazio- eta informazio-jardunak ezartzen ditu, eta material ez-sexistak eta ez-diskriminatzaileak aukeratu eta lantzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Testuak eta mezuak formatu bibliografiko, ikus-entzunezko eta digitalean egin ditu, genero-ikuspegia baliatuta.
- b) Informazio- eta komunikazio-mezuak landu ditu, emakumeak, beren bizitzak, ekarpenak eta beharrak ikusaraziz, eta gizonen kasuan emandako tratamendu berdina izan dute, informazioaren eta komunikazioaren esparru eta erregistro guztietan.

- c) Komunikabideetan hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egiteko jarraibideak aplikatu ditu, genero-ikuspegia baliatuta.
- d) Hizkuntzaren erabilera ez-sexista eta ez-diskriminatzailea sustatzeko hedapen-tresnak landu ditu.
- e) Hizkuntzaren erabilera ez-sexistari erantzuten dioten komunikazio-euskarriak sortu ditu.
- f) Hizkuntzaren eta komunikazioaren erabileran gizonen eta emakumeen arteko diskriminaziorik eza sustatzen duten jarraibideak oinarri dituzten informazio-ekintzak proposatu ditu.
- g) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabili ditu material ez-sexistak lantzeko eta hedatzeko.
- h) Hizkuntzaren erabilera ez-sexista eta ez-diskriminatzailea sustatzen duten estandarren eskakizunak errespetatu ditu.
- i) Komunikazio- eta informazio-prozesuetan, datuak babesteko araudia errespetatu du.

5. Komunikazio- eta informazio-jardunak genero-ikuspegia baliatuta ebaluatzen ditu, eta komunikazio- eta informazio-prozesuetan kalitatea bermatzeko horrek duen garrantzia baloratzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Komunikazio- eta informazio-jardunetan, ebaluatzeko jarduerak eta estrategiak planifikatu ditu.
- b) Komunikazio- eta informazio-jardunak genero-ikuspegitik ebaluatzeko teknikak eta tresnak aukeratu ditu.
- c) Komunikazio- eta informazio-prozesuak genero-ikuspegitik ebaluatzeko adierazleak aukeratu ditu.
- d) Datuak ezarritako formatuetan erregistratu ditu, komunikazio-estilo ez-diskriminatzaileetara aldatzeko ekintzak bideratzeko.
- e) Txostenak eta memoriak idatzi ditu, hizkeraren erabilera ez-sexista eta ez-diskriminatzailea eginez.
- f) Esku-hartzeko testuinguruan eta esku-hartze taldearen barruan informazioa helarazteko kanalak eta bideak aukeratu ditu, genero-ikuspegitik emakumeen eta gizonen arteko ekitatea bermatzen dutenak.
- g) Informazioa era argian, ordenatuan eta egituratuan helarazi du.
- h) Komunikazio- eta informazio-prozesuetan, genero-ikuspegia kalitate-irizpide gisa hartzearen garrantzia balioetsi du.

c) Oinarrizko edukiak:

1. KOMUNIKAZIO PROZESUAK GENERO IKUSPEGITIK EZAUGARRITZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Hizkuntza-adierazpenak nortasunaren, gizarte-harremanen eta generoaren gizarte-ikuskeraren eraikuntzan duen zeregina identifikatu eta aztertzea. - Emakumeen eta gizonen gizarte-irudikapen hierarkizatueta ere duen hedapenean komunikabideek duten zeregina hautematea eta aztertzea. - Emakumeen eta gizonen gizarte-irudikapeneko ereduak komunikabideek eskaintzen dizkieten balorazio berezitu eta hierarkizatuaren kasuak identifikatu eta aztertzea. - Komunikazioa genero-ikuspegitik aztertzea. - Komunikazioaren, boterearen eta generoaren arteko lotura identifikatzea komunikabideetako informazio-transmisioan. - Genero-indarkeriaren informazio- eta dibulgazio-tratamendua
----------------	---

	interpretatzea komunikabideetan, botere politikoetan eta, oro har, gizartean. - Komunikabideek genero-ideologiaren transmisioan eta gizarte-erlaketan duten zeregina aztertzea. - Publizitatean ematen den genero-ikuspegiari buruzko ikerketa.
kontzeptuzkoak	- Pentsamendua, kontzeptuak, terminoak eta generoa. - Komunikazio-prozesuak. - Errealitatearen ikuspegi androzentrikoa. Eredu maskulino hegemonikoa unibertsal bihurtzea. - Errealitatearen ikuspegi ez-androzentrikoa. Emakumeen eta gizonen errealitate guztien ikuspegi inklusiboa. - Komunikabideak, gizarte-erproduzio eta -aldaketarako tresna gisa. - Komunikazioa eta boterea. Emakumea komunikabideetan. - Publizitatea eta generoa. - Informazioaren gizartea eta emakumeak.
jarrerazkoak	- Pertsonarteko harremanen esparru guztietan komunikazio ez-sexista erabiltzearen garrantzia balioestea. - Gizarte-komunikabideetan hizkuntzaren tratamendu ez-sexista baliatzeak duen garrantziaren inguruan sentsibilizatzea. - Emakumeenganako tratamendu desberdinen eta diskriminatzaileen inguruko balorazio kritikoa. - Pentsamenduaren eta hizkuntzaren arteko harremana aintzat hartzea, bai eta jarrera-aldaketan duen garrantziaz jabetzea ere.

2. GENEROAGATIKO DISKRIMINAZIO EGOERAK HAUTEMATEA KOMUNIKAZIO ETA INFORMAZIO PROZESUETAN

prozedurazkoak	- Komunikazioa genero-ikuspegitik aztertzea. - Komunikazioan eta informazioan azaltzen diren genero-rolak eta -estereotipoak identifikatzea. - Komunikazioan eta informazioan azaltzen diren generoagatiko diskriminazio motak ikertzea eta kategorizatzea. - Hainbat esparrutan erabilitako komunikazio-sistemak eta -tresnak genero-ikuspegitik aztertzeko protokoloak aukeratzea eta erabiltzea. - Jardun-eredu berriak, desberdintasuna zuzentzeko esku-hartzeak eta esperientziak definitzea eta lehenestea, batez ere emakumeei dagokienez. - Komunikazio- eta informazio-prozesu zehatzetan emakumeei eta gizonari, bai eta beren interes eta beharrei ere, emandako tratamendua eta garrantzia aztertzea.
kontzeptuzkoak	- Komunikazioan eta informazioan azaltzen diren genero-rolak eta -estereotipoak. - Komunikazioan azaltzen diren diskriminazio-prozesuak eta -moduak. - Hitzeko eta hitzik gabeko komunikazioan azaltzen diren estereotipo sexualak eta diskriminatzaileak aztertu eta hautemateko estrategiak, teknikak eta tresnak. - Hainbat esparrutan erabilitako komunikazio-sistemak eta -tresnak genero-ikuspegitik aztertzeko protokoloak. - Izendatzearen eta izendatzeko moduaren garrantzia. Emakumeak zein gizonak izendatu eta ikusgai bihurtzeko moduak.
jarrerazkoak	- Jarrera kritikoa eta analitikoa genero-rol eta -estereotipoen transmisioan. - Autobeheketa baloratzea, generoagatiko sinesmen, jarrera eta portaera diskriminatzaileak aztertzeko abiapuntu gisa.

	<ul style="list-style-type: none"> - Informazioa eskaini eta komunikatzeko moduan, generoaren araberako testuinguru diskriminatzaileetan inplizitu dauden alderdi etikoak antzematea. - Komunikazio proaktiboaren banakako eta gizarte-mailako lorpenak eta onurak baloratzea, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna eta legezkoa hobetzen duen heinean. - Moldagarritasuna eta aldaketetara egokitzea.
--	---

3. KOMUNIKAZIO ETA INFORMAZIO ESPARRUKO JARDUNAK DISEINATZEA, IKUSPEGI EZ SEXISTA ERABILITA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Komunikazio- eta informazio-jardunak diseinatzea, gaur egungo genero-desberdintasunezko egoerak eta genero-arrakalak salatzen eta horien inguruan sentsibilizatzen. - Komunikazio eta informazioaren esparruan, jardun ez-sexistak eta ez-androzentrikoak diseinatzeko jarraibideak aztertzea. - Estrategiak lantzea, hainbat esparrutako komunikazioan eta hizkuntza-adierazpenean eredu ez-sexistetara aldatzeko. - Gida eta eskuliburuen hizkuntza-erabilera ez-sexista eta ez-diskriminatzailea aztertzea. - Hizkuntza-adierazpen ez-sexista egiaztatzea administrazio-alorrean eta idatzizko dokumentazioan, orokorrean. - Komunikazio ez-sexista aztertzea ikus-entzunezko hizkeran. - Hizkuntza-adierazpen ez-sexista identifikatzea gizarte-komunikabideetan.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Komunikazio-estiloetan mantentzen diren eta aldaketa sustatzen duten elementuak. - Hizkuntza-adierazpen ez-sexista gizarte-komunikabideetan, eta laudagarriak diren beste aukera batzuk. - Berdintasuna sustatzeko komunikazio-jarraibide gisa genero-ikuspegiak eta emakumeen benetako ikusgarritasunak duten garrantzia. - Genero-desberdintasunak eta -arrakalak. Sexuaren araberako estatistika-datuak eta horien genero-azterketa.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Hizkuntza-adierazpen ez-sexistak pertsonen garapen osorako, elkar aintzatesteko eta emakumeak eta gizonak gizarteratzerako duen garrantzia balioestea. - Idatzizko dokumentazioan, ikus-entzunezko hizkeran, IKT berrietan eta gizarte-komunikabideetan hizkuntza ez-sexista erabiltzeak dituen ondorioak baloratzea. - Informazio-bilketaren alderdi etikoen inguruan sentsibilizatzea.

4. KOMUNIKAZIO ETA INFORMAZIO JARDUN EZ SEXISTAK EZARTZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Tresnak, euskarriak edota espazioak sortzea, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunaren kausak, egoerak, eta horren erreproduzio- eta justifikazio-baliabideak identifikatzeko helburuarekin. - Testuak eta mezuak hainbat komunikazio-euskarritan lantzea, emakumeak eta beren bizitzak, ekarpenak eta beharrak ikusaraziz, beren bizitza-esparru guztietan eta gizonen tratamendu berdina emanez. - Hainbat esparrutan hizkuntza ez-sexista eta ez-diskriminatzailea erabiltzea sustatzeko tresnak lantzea eta hautematea. - Gizarte-komunikabideetan hizkuntza ez-sexista erabiltzeko jarraibideak aplikatzea. - Genero-berdintasunari buruzko legeria eta araudiaren ikuspegi historikoaren konparazio-azterketa, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun eraginkorra agerian uzte aldera. - Informazioaren tratamenduan, datuen babesari buruzko araudiaren aplikazio-mailaren konparazio-azterketa egitea hainbat esparrutan. - Emakumeen zeregina eta beren ekarpenak hedatzea eta ikusaraztea bizitza pribatu eta sozialaren esparru guztietan.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Informazioaren tratamenduari lotutako datuen babesari buruzko araudia. - Hainbat esparrutan hizkuntza ez-sexista erabiltzea sustatzeko tresnak. - Gizarte-komunikabideetan hizkuntza ez-sexista erabiltzeko jarraibideak. - Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, material ez-sexistak eta ez-diskriminatzaileak lantzeko eta hedatzeko.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lana garatzeko zehaztasuna eta konpromisoa. - Ostean aztertuko diren informazio ez-sexistaren iturriei buruzko datuak eguneratuta mantentzearen garrantzia. - Hizkuntza-informazio ez-sexista fidagarria eta baliozkoa izatearen beharra balioestea. - Hizkuntza inklusiboa, ez-sexista eta ez-androzentrikoa positiboki baloratzea, egungo errealitatea irudikatzeko modurik zuzenena den aldetik.

5. KOMUNIKAZIO ETA INFORMAZIO JARDUNAK GENERO IKUSPEGITIK EBALUATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ebaluatzeko estrategiak aplikatzea informazio- eta komunikazio-jardueretan. - Emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatua bermatuko duten neurriak aplikatzea ebaluazioaren fase guztietan. - Komunikazio- eta informazio-jardunak genero-ikuspegitik ebaluatzeko teknikak, tresnak eta adierazleak aukeratzea eta erabiltzea. - Txostenak eta memoriak idaztea genero-ikuspegia baliatuta, eta hizkeraren eta irudien erabilera ez-sexista eta ez-androzentrikoa eginez.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ebaluazio-estragiak informazio- eta komunikazio-jardueretan. - Komunikazio- eta informazio-jardunak genero-ikuspegitik ebaluatzeko



	teknikak eta tresnak. Adierazleak. - Informazio-transmisioa genero-ikuspegitik. - Genero-ikuspegia, kalitatea kudeatzeko irizpidea. - Genero-ikuspegia, trebetasun guztiak barne hartzeko eta berritzeko faktorea.
jarrerazkoak	- Ebaluazioa kalitate-elementu gisa baloratzea, gizarte-proiektuak aztertu eta jarraitzeko orduan. - Parte-hartzearen ebaluazioan, talde-lanak eta koordinazioak duten garrantzia aintzat hartzea. - Informazioa biltzearen alderdi etikoak balioestea.

d) Orientabide metodologikoak

Hurrengo atalaren helburua aurrez adierazitako edukien transmisio pragmatikoa egiteko modurik egokiena azaltzea da.

Hori dela eta, irakatsi eta ikasteko prozesuek moduluaren beraren behar didaktikoei erantzun beharko diete, baina, horiez aparte, moduluak hizpide duen errealitatearen ondoriozko beharrak eta zikloko ikasleek dituztenak ere aintzat hartu beharko dituzte.

1) Sekuentziak

Hona hemen modulua lantzeko egituraketaren eskema:

1. Informazio- eta komunikazio-jardunak planifikatzea, diseinatzea eta antolatzea, ikuspegi ez-sexista eta ez-diskriminatzailea erabilia.
 2. Informazio- eta komunikazio-ekintzak genero-ikuspegia aintzat hartuta ezartzea.
 3. Prozesu osoa ebaluatzea eta kalitate-kontrola egitea informazio eta komunikazioko esku-hartzeetan, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren ikuspegitik.
1. Egunotan, komunikazioaz hitz egitea aukerez betetako mundu bat eskura jartzen diguten teknologia berriez eta aurrerapenez mintzatzea da.
Hala ere, ez dugu ahaztu behar hizkuntza-gaitasunaren bidezko informazio-trukea giza prozesu bat dela, eta gure esku dagoela gaitasun horren euskarri diren hizkuntzak pertsona bakoitzari, bere idiosinkrasiaren testuinguruaren barruan, zor zaizkion errespetuz eta duintasunaz erabiltzea.

Bereizten gaituen beste ezaugarri bat gure kidekoen inguratzeko eta eurekin taldeko kide sentitzeko harremanak ezartzeko dugun beharra da, eskubide eta betebeharrak, parte-hartze, lan eta aintzatespen berdinak izanda.

Horregatik, komunikazio-prozesuek, bai maila partikularrean bai sozialean, oro har, ezaugarri horiek eduki behar dituzte, eta horien artean, hauxe da aipatzekoa: berdintasuna genero-ikuspegitik (horixe da, hain zuzen ere, bai modulu honekin eta bai ziklo osoarekin ezarri nahi dena).

Hau da, helburua da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna deritzon errealitate horren berri ematea, askotan, zoritxarrez, paperean jasotako asmo onetan bakarrik geratzen baita.

Horregatik, premiazkoa da berdintasun horren eraginkortasuna jasotzea, eta emakumeak bizitza pribatuan eta gizarte-bizitzan duen inplikazioa eta ekarpena ikusaraztea.

Are gehiago, komunikabideen ganean jardun behar dugu, berdintasun eraginkorraren falta salatu eta horri aurre egiteko helburuarekin, baina baita berdintasun hori agerikoa izatea lortzeko ere, masa-komunikabideetako pertsonen eta tresnen komunikazioan, informazioan eta hizkuntzaren erabileran.

Genero-ikuspegia txertatzea zera da: pertsona guztien, emakume zein gizonen, errealitate osoaren, errealitate eta interes zein behar guztien inguruan informatzea eta komunikatzea. Hau da, bizitza osoaren, jardun-esparru guztien, pertsona guztien, aniztasun osoaren, pertsona, adin, egoera, ikuspegi guztien eta abarren inguruan informatzea eta komunikatzea, eta eginkizun horretan, emakumei eta gizonei balio, tratamendu eta garrantzi berdinak ematea beti, protagonisten sexua gorabehera.

Hasierako planteamenduan, beraz, beharrezkoa litzateke komunikazio-prozesu generikoaren osagaiak eta guztiontzako sistema orekatua eta eraginkorra bihurtzen duten (edo bihurtu beharko luketen) harremanak definitzea; era berean, praktikan jartzen den tipologia eta testuinguruak eta nola erregulatzen den ere zehaztu beharko lirateke.

Horrekin guztiarekin, sexuagatiko diskriminazio-egoerak definitzen dituzten desbiderapenak zein beharrak hauteman eta aztertzeko oinarria osatuko dugu, ostean, existitzeko edota mantentzeko sintomak aurkitu eta horiek elikatzen dituen sustraiari aurre egiteko.

Fase honetako gure jardunaren azken pausoa –eta garrantzitsua ere– genero-ikuspegia aintzat hartzeko informazio- eta komunikazio-ekintza berriak planifikatu eta antolatzea izango litzateke.

2. Egokiak diren jardunak mugatu ostean, ezin gara teoriara mugatu; aitzitik, kasuan kasu zuzen eta egokitzat jo ditugun jarraibideak praktikara eramane behar ditugu.

Hala, puntu honetan, lau alderdi hartu behar ditugu kontuan:

- a. Garrantzitsua da araudia ezagutzea, bateko, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren sustapen aktiboaren eta diskriminazio ez-sexistaren alorretan, eta, besteko, datu pertsonalen babesarekin lotutako guztian, kalterik ez eragiteko ez gizabanakoei ez gure ekintzei, ezjakintasuna arrazoi (horrek ez baititu kanpo uzten egindako falten ondorio posible eta gertagarriak).
- b. Pertsona guztiak ez dira berdinak eta ez dute gauza bera behar, egoera bakoitzaren arabera. Kasu eta egoera partikular bakoitzera behar bezala egokitu behar den gida moduan ulertu beharra dago jardun-jarraibide generikoa. Hori egin ezean, helburuei erantzuten ez dieten eta eraginkorrak ez diren ekintzak garatzeko arriskua dago, eta, gainera, gerta daiteke horiek berriro planteatu ezin izatea, arrazoiak direnak direla.
- c. Informazio-erabilera txarrak eta generoagatiko diskriminazioak ez dute ez interes alderdikoirik, ez sexurik ez proportziorik. Maila horretako edozein diskriminaziori aurre egin eta irtenbidea aurkitu beharko genioke, nahiz eta, zenbait sektoretan, garrantzirik ez duela edota «normala» dela adierazi.
- d. Behin hori esanda, esan behar dugu egungo errealitateak (eta zer esanik ez, aurreko garaierakoek ere) ustez gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna badagoela adierazten duela, eta, horren ondorioz, behar-beharrezkotzat jotzen dugu berdintasun hori ezartzea eguneroko bizitzako giza harremanetan, komunikabideetan, idatzizko komunikazioan eta ahozko elkarrekintzan modu eraginkorrean.

3. Azkenik, garrantzitsua da ere zehaztea prozesuko pauso bakoitza era jarraituan eta aldian-aldian kontrolatu beharko dela, aipatutako diseinutik hasi eta azken pausoa ezarri arte.

Ohiko ebaluazioak eta doikuntzak aintzat hartuko diren arren, balorazio jarraitua egiten bada, inkongruentzia txikiak zein esku-hartzeak pikutara joatea eragin dezaketen akats posibleak hauteman ahalko ditugu.

Bestetik, estrategia eta balorazio-irizpideek eurek, halaber, irtenbide edota alternatibarik laudagarriena nola planteatu daitekeen adieraz diezagukete.

Azken batean, gainbegiratzea, berez, proiektua aurrera eramateko beste tresna bat da.

2) Alderdi metodologikoak

Prestakuntzaren alorreko (arautua zein ez-arautua) ezagutzek, sarritan, supozizio teorikoen aukera zehatz eta murriztaileetara mugatzeko joera dute, eta ikasleak ez du aukerarik izaten ezagutza horiek ikasgela ez den errealitate batean aplikatu eta esperimendatzeko –porrota ere esperimendatu dezake–.

Horregatik, bistakoa den horretan huts egiteko arriskua gorabehera, errealitatea ikasgelara ekartzeko beharra azpimarratu behar dugu, edota, bestela esanda, mundua eta gure egunerokoa gure irakaskuntza eta eragiketen zentroa izan daitezen nahi dugu.

Guri dagozkigun bi alderdiek horretarako esparru ezin hobea eskaintzen digute. Izan ere, genero-estereotipo eta -rolen esleipenak guztiongan du eragina, gure bizitzan zehar, modu batean edo bestean, nahi ala ez nahi, eta era kontzientean zein oharkabean. Baina egia da, baita ere, pertsonen arteko komunikazio-harremanak gure gizartearen zimenduak direla.

Ikaskuntza onaren eredua aipatzen denean, ikasleek prozesuan zeregin aktiboa izan behar dutela esan ohi da. Bada, esperientziarik onena ikasleek eurek beren bizipenak, edota ezagutzen dituzten edo ezagutu izan dituzten beste subjektu eta talde batzuen bizipenak adieraztea da, aurrerago esku hartu beharko duten egiazko egoeretara hurbiltzeko.

Hala ere, beti izan beharko dugu kontuan sektoreko eragile gisa dugun zeregina, eta horrek berekin dakarren eta eskatzen duen distantzia profesionala (horrek ez du esan nahi, ordea, bihozgabea izango dela).

Baliatu beharko ditugun esperientziekin identifikatu eta geureak egiteak ez du esan nahi gure objektibotasuna galduko dugunik; aitzitik, esparru horretan ditugun ageriko gabeziak lantzeko modurik egokienaren bilaketan inplikatzeko akuilua izango da.

Illo horretan, ikasgelatik kanpoko lana bezain garrantzitsua edota garrantzitsuagoa izango da hezkuntza-esparruan adierazitakoak duen gizarte-eraginaren neurketan sakontzeko. Horretan, eragina izango du ikasleen bakarkako eta taldeko azterketak (irakasleak bideratu eta gainbegiratu du).

Esan beharrik ere ez dago, moduluaren azterketa teorikoari ere leku egingo zaio. Hala ere, egokia izango litzateke irakasleak eduki guztiak eman beharrean, ikasleak bultza ditzala ikasgairako eduki egokiak bilatu eta sortzeko. Nork bere kabuz ezagutzak deskubritzea motibatzailea da, baina ikaslea galduta egon ez dadin, jarraitu beharreko bidea adierazi ahalko die hezitzaileak ikasleei, eta oinarritzko nozioak emango dizkie une bakoitzean proposatutako bakarkako eta taldeko helburuak lortzeko.

Halaber, plus bat izan daiteke eskola-testuingurutik kanpoko pertsonen parte hartzea, hala nola kazetaritzaren edota hizkuntzalaritzaren esparrukoek eta genero-ikuspegitik berdintasuna bultzatu nahi duten erakundeetakoek. Gainera, etorkizuneko sustatzaile gisa ikasleek izango duten zereginaren inguruko ikuspegi interesgarri, berritzaile eta fidela eman dezakete.

Eta, metodologiari helduz, ezin dugu alde batera utzi ikasgelan ezarri beharreko obligazio etiko eta profesionala, bertan berdintasun eraginkorra egon dadin lantzen ari garen edukioi dagokienez: berdin baloratu, aintzatetsi, eskatu eta tratatzen diren ikasleak, irakasleak, gizonak eta emakumeak.

Ezinbestekoa da ikasleak ahal adina zorrotasunez prestatzea, batez ere esparru jakin batean, guri dagokigun figura hain garrantzitsua barne hartuko duten enplegu-sorguneak eraginkor bihurtzeko.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Informazio- eta komunikazio-jardunak planifikatzea, diseinatzea eta antolatzea, ikuspegi ez-sexista eta ez-diskriminatzailea erabilita:
 - Ikasleek terminologia bilatzea eta euren artean kontzeptuak trukitzea, guztiek behar bezala hitz egin dezaten (genero-ikuspegia; emakumeak ikusaraztea; androzentrismoa; genero-berdintasuna; ahozko zein idatzizko erabilera zuzena, esaterako, termino generikoak baliatzean edota bi sexuak aipatzean hizkuntzak horretarako baliabide egokirik ez duenean, eta abar).
 - *Brainstorming* ariketa, ikasleek informazioaren tratamendu ez-sexistaren inguruan dituzten ideiak biltzeko.
 - Banan-banan, informazio sexista eta diskriminatzailea helarazten duten adibide errealek biltzea, sektoreka.
 - Ikasleek dakizkiten hizkuntzen inguruan (euskara, gaztelania, ingelesa...), hizkuntza-mailan sexismoa edota androzentrismoa erakutsi dezaketen termino, adierazpen, esaera eta abarrei buruz hitz egitea.
 - Zikloko testu-liburuak, eskuliburuak eta abar aztertzea, informazioaren erabilera ez-sexistaren irismena egiaztatzeko.
 - Ikasleen landa-lana: hainbat masa-komunikabidetako datuak biltzea (prentsa idatzia, irratia, telebista, prentsa digitala...), genero-ikuspegitik informazioa nola tratatzen duten ikusteko.
 - Taldeka, ikuspegi ez-sexistan oinarritutako komunikazioa sakon garatzeko helburua duen jardun batek, oro har, barne hartu behar dituen jarraibide, pauso, adierazle eta estrategiei buruzko eskema egitea.
 - Komunikazioaren erabilera ez-sexistan sakontzen eta berau sustatzen duten dokumentu-gidak, liburuxkak, protokoloak eta abar aztertzea.
 - Hezkuntza-zentroarentzat zein beste esparru batzuetarako ere baliagarria izango den gida egitea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorra barne hartzen duen ikuspegitik abiatuta, informazioa, komunikazioa eta idazketa (edozein mailatan) nola landu behar diren azaltzeko helburuarekin.
 - Helburu posibleen eta horien lorpen-faltaren arteko desbiderapena –esparru bakoitzeko– jasoko duten protokoloak egitea, hala nola jardun androzentrikoei, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunei eta emakumeen sustapenari dagokienez.
- ✓ Informazio- eta komunikazio-ekintzak genero-ikuspegia aintzat hartuta ezartzea:
 - Beren inguruetan komunikazioaren erabilera ez-sexista erakutsiko duten ekintzak ezartzea, sinpleenetatik hasi eta asmo handikoak direnetaraino:
 - Kartelak.
 - Idearioak.



- Hitzaldiak.
 - Gutunak idatzizko egunkarietara, telebistetara...
 - Aurkeztu, programatu nahiz egindako jardueri buruzko prentsa-oharrak, erreseinak, artikuluak edota erreportajeak...
 - Liburuxkak, iragarkiak, irrati-iragarkiak, kanpainak, testuak eta irudiak.
 - CV, aurkezpen-gutunak, lan-eskaintzak...
 - Jardun-proposamenak, proiektu zehatzak, diru-laguntzen eskaerak, justifikazio-memoriak...
 - Ikastetxearen Ikasketa Proiekturako proposamenak.
 - Ikastetxearen bizitzaren araudian txertatzeko moduko proposamenak.
 - Ikastetxean.
 - Euren etxeetan.
 - Lagunekin.
 - Eskolaz kanpoko jardueretan.
 - Iradokizunen postontzia sortzea, sexuagatiko hizkuntza-diskriminaziorik ez gertatzeko, ikastetxeko bizikidetzan hobetzeari buruzko ekarpenak jasotzeko helburuarekin.
 - Aurreko puntuan adierazi eta landutako gida-proposamena ikastetxean martxan jartzea.
 - Landa-ikerketa gauzatzea, aurreko atalean aipatutako protokoloen jasotzaile izan daitezkeen erakunde zehatzak hautemate aldera.
- ✓ Prozesu osoa ebaluatzea eta kalitate-kontrola egitea informazio eta komunikazioko esku-hartzeetan, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren ikuspegitik.
- Alderdi horren inguruan memoriak, txostenak, protokoloak eta abar egiteko erreferentziak bilatzea.
 - Aldian-aldian, ikasle bati agintzea ikasgelako komunikazio-jokaerak behatu eta biltzeko, gerta daitezkeen hizkuntza-harreman sexistak egiaztatzeko sistema gisa.
 - Ikasleen lanari esker (bakarkakoa zein taldekoa) genero-ikuspegian oinarritutako hizkuntza-erabilera ezarri duten gertakariak eta egoerak azaltzea.
 - Ikasturte hasieratik amaierara bitartean genero-ikuspegiari dagokionez ikasle bakoitzak izan duen hizkuntza-adierazpenari buruzko autobalorazioa egitea.
 - Banatutako gida eta protokoloen abian jartzea eta ezarpena baloratzea, bai eta euren eraginkortasun-maila aztertzea ere.

6. lanbide-modulua

GENERO INDARKERIAREN PREBENTZIOA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Genero-indarkeriaren prebentzioa
Kodea:	1402
Heziketa-zikloa:	Genero-berdintasuna sustatzea
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	160 ordu
Kurtsoa:	2
Kreditu kop.:	12
Irakasleen espezialitatea:	Gizartearentzako zerbitzuak (Lanbide Heziketako irakasle teknikoa)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal honi lotuta dago: UC1584_3: Emakumeen aurkako indarkeriazko egoerak hautematea, prebenitzea eta arreta jasotzeko prozesuan laguntzea.
Helburu orokorrak:	1 / 2 / 5 / 11 / 12 / 13 / 14 / 16 / 19 / 22

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Genero-indarkeriazko egoerak ezaugarritzen ditu, eta horien euskarri diren prozesu psikologiko eta soziologikoekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Genero-indarkeria osatzen duten elementuak eta beren arteko loturak definitu ditu.
- Genero-indarkerian esku hartzen duten oinarrizko prozesuak ezaugarritu ditu.
- Genero-indarkeriazko egoerak laguntzen edota eragozten dituzten faktoreak deskribatu ditu.
- Genero-indarkeria motak definitu ditu.
- Genero-indarkeriaren adierazleak zehaztu ditu.
- Genero-indarkeriarekin lotutako arrisku-faktoreak deskribatu ditu.
- Genero-indarkeriazko egoera posibleen ezaugarriak identifikatu ditu.
- Genero-indarkeriazko egoeretan hedabideek duten eragina baloratu du.

2. Genero-indarkeriaren inguruko esku-hartze prebentiboaren esparrua ezaugarritzen du, eta bere egitura juridikoa eta administratiboa garatzen den errealitatearekin lotzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- Emakumeek eta beren ardurapean dauden adingabeek jasaten duten indarkeriaren inguruan sentsibilizatzea xede duten neurrien aurrekariak eta bilakaera definitu ditu.

- b) Genero-indarkeriaren inguruko esku-hartze prebentiboko neurriak identifikatu ditu.
- c) Emakumeen eta beren ondorengoen aurkako indarkeria hautemateko eta arreta emateko eskura dauden zerbitzuak ezaugarritu ditu.
- d) Genero-indarkeriaren biktimei arreta emateko alorrean profesionalen prestakuntzak duen garrantzia argudiatu du.
- e) Genero-indarkeriaren alorreko gaur egungo esparru juridikoa eta administratiboa definitu du.
- f) Emakumeen aurkako indarkeria-egoeretan jarduteko dauden protokoloak identifikatu ditu.
- g) Informazio-banaketa prozesuan herritarren berezitasunek (lurraldekoak, kulturalak, erlijiosoak, ekonomikoak, sexualak eta pertsonalak) duten eragina identifikatu du.

3. Prebentzio-jarduerak planifikatzen ditu, biktimei arreta osoa emateko eta eurak babesteko baliabideak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Biktimei dituzten eskubide eta baliabideen inguruan informatu eta orientatzeak duen garrantzia baloratu du.
- b) Indarkeriaren biktimak izandako emakumei arreta emateko zerbitzuak ezaugarritu ditu.
- c) Biktimei arreta fisikoa eta mentala emateko baliabideak ezaugarritu ditu, indarkeriaren ondorioei aurre egitea bultzatuta.
- d) Aldi baterako egoitza-beharrei erantzuteko neurriak identifikatu ditu, eta, hala dagokion kasuetan, horien mantenua, ostatua, irisgarritasuna eta segurtasuna bermatu du.
- e) Eskura dauden bitarteko teknikoek bidez biktimari segurtasuna ematearen garrantzia baloratu du.
- f) Indarkeriako egoeraren ondorioz biktimek dituzten behar ekonomiko, laneko, juridiko, hezkuntzako, kultural eta sozialei erantzuteko baliabideak deskribatu ditu.
- g) Genero-indarkeriaren biktimak izandako emakumeentzako edota ardurapean dituzten adingabeentzako arreta-zerbitzu espezializatuak ezaugarritu ditu.
- h) Emakumeen aurkako Indarkeriaren Estatuko Behatokiaren funtzioak eta eskumenak, bai eta egungo koordinazio-baliabideak ere, identifikatu ditu.

4. Genero-indarkerian esku hartzeko estrategiak garatzen ditu, eta egoeraren ezaugarriak ezarritako protokoloarekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Indarkeria-egoeretan jarduteko dauden protokoloak identifikatu ditu.
- b) Genero-indarkeriazko kasuetan esku hartzeko protokoloak ezarri ditu.
- c) Genero-indarkeriazko egoeretan profesionalak duen zeregina baloratu du.
- d) Genero-indarkeriazko kasuetan familietan esku hartzeko protokoloak ezaugarritu ditu.
- e) Biktimei aholkularitza osoa emateko une bakoitzean egokiena den zerbitzua aukeratu du, eta jarraitu beharreko pausoak adierazi ditu.
- f) Biktima lehentasunezko zerbitzu espezializatura laguntzea justifikatu du.
- g) Jardun-protokoloan ezarritako irizpide eta arauen betetzea justifikatu du, genero-indarkeria jasan duten pertsonen emandako tratuari dagokionez.

5. Genero-indarkeriazko egoerei lotutako esku-hartzea kontrolatu eta jarraitzeko jarduerak egiten ditu, ebaluaziorako estrategia, teknika eta tresnen aukeraketa justifikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Genero-indarkeriaren inguruko esku-hartzea kontrolatu eta jarraitzeko prozesuaren adierazleak identifikatu ditu.
- b) Genero-indarkeriaren inguruko esku-hartzea jarraitzeko teknikak, tresnak eta protokoloak aukeratu ditu.
- c) Diziplina anitzeko taldeak ezarritako euskarrietan erregistratu ditu datuak.
- d) Datu pertsonalen pribatutasuna bermatu du.
- e) Informazioa helarazi die esku-hartzean zuzenean nahiz zeharka parte hartzen duten pertsonari.
- f) Genero-indarkeriaren inguruko esku-hartzea aldatu edo egokitzeko hartutako erabakiak justifikatu ditu.

c) Oinarrizko edukiak:

1. GENERO INDARKERIAZKO EGOERAK EZAUGARRITZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Genero-indarkeriaren gizarte- eta egitura-arrazoiak aztertzea emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren testuinguruan. - Genero-indarkeriari lotutako adierazleak erabiltzea diagnostikoak egiteko: haurtzaroan, nerabezaroan eta helduaroan. - Genero-indarkeria eta komunikabideak aztertzea. - Emakumeen aurkako indarkerian eragina duten sistema patriarkalaren ezaugarriak identifikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Indarkeria, kontzeptua eta tipologia. Zuzeneko indarkeria, kulturazkoa eta egiturazkoa. Indarkeriak ikusezin bihurtzea eta legezkatzea. - Nortasun maskulino eta femeninoen eraikuntza-prozesu soziohistorikoa: esleipenak eta desjabetzeak. - Aita-ama-seme/alaben familia-ereduen gizarte-eraikuntza, elkarrekiko interdependentzien eredu gisa. Aldaketa partzialeko familia-ereduak, elkarrenganako gehiegizko eskakizunen eta gatazken sorburu gisa emakumeen eta gizonen arteko harremanetan. - Gizonen eta emakumeen arteko botere-harremanak eta botere-gauzatzea, alde txar eta onak. Desberdintasun- eta esplotazio-harremanak, indarkeriaren sorburu. - Genero-indarkeria motak. Semer-alabek gurasoen aurka indarkeria erabiltzea. - Emakumeen sexu-askatasunaren aurkako indarkeriaren eta delituen motak. - Indarkeriaren zikloa. - Emakumeen aurkako indarkeria ezaugarritzea: <ul style="list-style-type: none"> • Indarkeria matxista. • Etxeko indarkeria. • Emakumeen trafikoa. • Emakumeen salerosketa. • Sexu-jazarpena eta sexuagatiko jazarpena. • Bortxaketa. • Emakumeen sexu-organoen ebaketa. - Tratu txarren teoriak eta azalpen-ereduak. Arrisku-faktoreak. - Maitasun erromantikoaren mitoak. - Erasotzailea. Profila eta ezaugarriak. - Genero-indarkeriaren alderdi psikosoziologikoak eta sozialak. Indarkeriaren presentzia eta funtzioa maskulinitatearen eredu hegemonikoetan. - Mikromatxismoak. - Desgaitasunen bat duten emakumeen egoera. Desgaitasun motak eta mailak.

	- Bizitzako hainbat esparrutan sartzeko zailtasunak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Jarrera kritikoa, zalantzan jarriz bizi garen gizarte-ereduan eta indarkeria-portaeretan eta -jatorrietan bistakoa eta normalizatua dena. - Indarkerien kausa soziohistorikoak eta pertsonen eguneroko bizitzan dituzten ondorioak ulertzeko interesa. - Gizonen eta emakumeen arteko esplotazio- eta indarkeria-portaeren sustapenean hedabideek duten eragina baloratzea. - Emakumeen aurkako indarkeria-egoeretan parte hartzen duten oinarrizko prozesuak baloratzea.

2. GENERO INDARKERIAREN INGURUKO ESKU HARTZE PREBENTIBOAREN ESPARRUA EZAUGARRITZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Genero-indarkeriazko egoeretan jarduteko dauden protokoloak identifikatzea. - «Prestakuntza-taldea» erabili eta maneiatzea, banakako eta taldeko kontzientziazioa eta ahalduntzea laguntzeko baliabide gisa. - Emakumeen aurkako indarkeriaren ondorioak identifikatzea: biktimizazio-prozesuak eta berriro biktimizatze edota biktimizazio bikoitzeko prozesuak. - Gatazkak ebaztea. Gatazkak ebazteko estrategiak. Gatazka, eguneroko bizitzari berezkoa zaion elementu moduan. - Genero-indarkeriaren aurka sentsibilizatzeko neurriak aztertzea: publizitate-kanpainak. - Genero-indarkeriaren aurka sentsibilizatzeko neurriak lantzea. - Genero-indarkeriaren aurka prebenitzeko neurriak aztertzea: besteak beste, hezkuntzaren, enpleguaren, kirolaren, hirigintzaren eta jaien alorretan.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Etxeko tratu txarren eta sexu-indarkeriaren biktima izan diren emakumeentzako arreta hobetzeko erakundeen arteko akordioak. - Genero-indarkeriaren kontrako babes osoko neurrien, urruntze-aginduen eta babes-neurrien inguruko indarreko legeria. - Genero-indarkeriaren biktimei laguntza osoa eta babesa emateko zerbitzuak: toki-administrazioa, forala, autonomikoa, elkarteak... - Osasunaren, lanaren eta enpleguaren alorreko neurriak. - Babes-sistema bereziak. - Informazio eta orientazio juridikoa. - Emakumeen aurkako indarkeriaren araudi-erreferentziak eta prozedurazkoak. - Genero-indarkeria eta zuzenbide prozesala, zibila, kanonikoa, zigorrokoa, Europako Erkidegokoa eta nazioarteko erakundeetako. Lan-zuzenbidea eta Gizarte Segurantzari buruzkoa. Atzerriartasun-zuzenbidea eta asiloari buruzko legeria.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizonen eta emakumeen arteko errespetu- eta onarpen-portaeren aldeko esku-hartze prebentiboa baloratzea. - Lanbide-erantzukizuna genero-indarkeriaren biktimei arreta emateko prozesuetan esku hartzean. - Herritarren berezitasunen inguruan (lurraldekoak, kulturalak, erlijiosoak, ekonomikoak, sexualak eta pertsonalak) sentsibilizatzea eta horiek errespetatzea informazioa landu eta helarazteko prozesuan.

3. GENERO INDARKERIA PREBENTZEKO JARDUERAK PLANIFIKATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Emakumeen aurkako indarkeria-egoeretan esku hartzeko baliabideak aztertzea eta aukeratzea. - Egoera bakoitzean egokienak diren baliabideak identifikatzea. - Emakumeen aurkako indarkeria prebentzeko eta horren inguruan sentsibilizatzeke gidak eta materialak topatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Emakumeen aurkako indarkeria-prozesuetan parte hartzen duten erakundeak. - Genero-indarkeriaren biktimak izandako emakumeentzako edota ardurapean dituzten adingabeentzako arreta-zerbitzu espezializatuak. - Justiziaren eta laguntza/aholkularitza juridikoaren alorreko baliabideak. - Enplegu eta prestakuntzarako laguntza ekonomikoak eta horietarako baliabideak lehentasunez eskuratzea. - Desgaitasunen bat duten emakumeentzako baliabideak eta materialak. - Emakumearen aurkako Indarkeriaren Estatuko Behatokiaren koordinazio-baliabideak. - Autonomia- eta toki-mailako ekimenak genero-indarkeriaren prebentzioan: Beldur Barik, Ez isildu, Nahiko, Berdinsarea, Gizonduz, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia...
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Esku hartzeko estrategia egokiak ezartzeko garrantzia baloratzea, aintzat hartuta horiek helburu duten erakundeak eta pertsonak. - Biktimei dituzten eskubide eta baliabideen inguruan ematen zaizkien informazioa eta orientazioa zaintzea. - Eskura dauden bitarteko teknikoek bidez biktimari segurtasuna ematearen garrantzia baloratzea.

4. GENERO INDARKERIAN ESKU HARTZEKO ESTRATEGIAK GARATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Genero-indarkeriazko egoeretan jarduteko dauden protokoloak identifikatzea eta ezartzea. - Genero-indarkeriazko kasuetan familietan esku hartzeko protokoloak ezaugarritzea. - Biktimei aholkularitza osoa emateko fase bakoitzean egokiena den zerbitzua aukeratzea, jarraitu beharreko pausoak adierazita. - Biktima lehentasunezko zerbitzu espezializatura laguntzea justifikatzea. - Jardun-protokoloan ezarritako irizpide eta arauen betetzea justifikatzea, genero-indarkeria jasan duten pertsonen emandako tratuari dagokionez.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Familiako esku-hartzea: esku-hartze ereduak, laguntzakotik sistemikora. - Biktimentzako arreta osoa. Desgaitasunen bat duten emakumeei aholkatzeke teknikak. - Genero-indarkeriaren biktimak izandako emakumeekin esku hartzea: juridikoa, psikologikoa eta soziala. - Genero-indarkeriazko kasuetan jarduteko protokoloak.

jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Indarkeriaren biktimen egite-prozesuak errespetatzea. - Genero-indarkeriazko egoeretan jardun duen profesional-taldearen zeregina baloratzea, indarkeriaren biktimen autonomia eta protagonismoa zaindu eta sustatzen duten eragileak diren aldetik. - Jardun-protokoloan ezarritako irizpide eta arauen betetzea baloratzea, genero-indarkeria jasan duten pertsonei emandako tratuari dagokionez.
---------------------	---

5. GENERO INDARKERIAREN INGURUKO ESKU HARTZEA JARRAITZEA ETA KONTROLATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Genero-indarkeriazko egoerei lotutako esku-hartzea kontrolatu eta jarraitzeko prozesuaren adierazleak identifikatzea. - Genero-indarkeriaren inguruko esku-hartzea jarraitzeko teknikak, tresnak eta protokoloak aukeratzea. - Datuak diziplina anitzeko taldeak ezarritako euskarrietan erregistratzea. - Datu pertsonalen pribatutasunaren bermeak ezartzea. - Informazioa helaraztea esku-hartzean zuzenean nahiz zeharka parte hartzen duten pertsonei. - Genero-indarkeriaren inguruko esku-hartzea aldatu edo egokitzeko hartutako erabakiak justifikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Genero-indarkeriazko egoeretan kontrola eta jarraipena gauzatzeko teknikak eta tresnak. - Datu-bilketa. Erregistroak landu eta betetzeko teknikak. - Datuak euskarri egokietan erregistratzea, kontuan hartuta bildutako datuen baliaagarritasuna eta helburua. Erregistroa diseinatzea, euskarri mota aukeratu eta egokitzea: testua, audioa, bideoa, koaderno/fitxategia, informatika-euskarria... - Kontrol- eta jarraipen-adierazleak. - Txostenak eta memoriak egitea.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Erabakiak hartzeko garaian eta hobekuntza-prozesuetan baliagarria den tresna gisa baloratzea ebaluazioa. - Ebaluazio-prozesuetan parte-hartzea sustatzen dela eta esku-hartzean inplikaturako eragile guztiak aintzat hartzen direla zaintzea. - Datu pertsonalen pribatutasunaren inguruko errespetu profesionala.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

«Genero-indarkeriaren prebentzioa» moduluen helburuak lortzeko, EEKO (erreferentziazko eskema kontzeptual operatibo) espezifikoa landu, partekatu eta asimilatu behar dute ikasleek; horrela, alde batetik, ulertu eta deskodetu ahalko dituzte indarkeria mota bakoitzaren kausa soziohistorikoak, emakumeen eta gizonen eguneroko bizitzan dituzten eraginak, eta egunerokotasun horren egitura diren gizarte-erakundeak, bereziki familia. Baina, horretaz aparte, kontzeptuzko esparru horrek genero-indarkeriazko egoeretan esku-hartzeko prozedurak eta protokoloak eraginkor bihurtzeko bide eman behar du.

Zikloko beste modulu espezifikoetan bezalaxe, alderdi oso garrantzitsua izango da irakasleen koordinazioa, edukiak sekuentziatzeko ez ezik, horiek lantzeko sakontasun-maila ere zehazteko. «*Genero-indarkeriaren prebentzioa*» modulua kasuan, berebiziko garrantzia du modulu hauekin koordinatuta egoteak: «*Gizarte-trebetasunak*» (0017), «*Gizartean esku hartzeko metodologia*» (0344), «*Gizarte-garapena*» (1128), «*Informazioa eta komunikazioa generoaren ikuspegitik*» (1401), «*Emakumeentzako enplegua sustatzea*» (1403) eta «*Emakumeen gizarte-mailako parte-hartzea*» (1405).

Moduluaren bost blokeek ez dute ikaskuntza-prozesua sekuentziatzen. Esaterako, hirugarren blokea jorratzeko («**Genero-indarkeria prebenitzeko jarduerak planifikatzea**»), ez da beharrezkoa izango guztiz landuta izatea bigarren blokeko («**Genero-indarkeriaren inguruko esku-hartze prebentiboaren esparrua ezaugarritzea**») kontzeptuzko zein prozedurazko eduki guztiak. Hala ere, moduluari heltzeko abiapuntu gisa, garrantzitsua da indarkeriaren oinarriko alderdiak, bere kausak eta ondorioak definitzea, argitzea eta ulertzea.

Ikasgelan EEKO partekatua lantzearen bitartez, informazioa ulertu eta ezagutza eraikiko dute ikasleek, eta, horretaz aparte, eskema horrekin, baldintzatuta geratuko dira bai irakatsi eta ikasteko dinamikak eta baita ikasleek lan-jardunean garatuko duten esku-hartze profesionalaren orientazio eta estiloak ere.

Hirugarren blokea («**Genero-indarkeria prebenitzeko jarduerak planifikatzea**»), laugarren blokea («**Genero-indarkerian esku hartzeko estrategiak garatzea**») eta bosgarren blokea («**Genero-indarkeriaren inguruko esku-hartzea jarraitzea eta kontrolatzea**») lantzeko modua ziklikoa izan beharko litzateke, bloke bakoitzari lotutako edukietan pixkanaka sakonduz. Horretarako, lehendabizi lehenengo blokeko kontzeptuzko esparruaren zenbait oinarriko alderdi aztertu eta definitu beharko dira, baina ez osorik ahitu.

2) Alderdi metodologikoak

Lanbide-kompetentziak eskuratzen dituztela bermatzeko, beharrezkoa da ikasleek beren ikaskuntzen protagonista izatea, bai kontzeptuzko bai prozedurazko mailan. Hortaz, lekuz kanpo egongo da buruz errepikatzea soil-soilik helburu duen metodologia oro. Ikasleek «behar bezalako lan-jarduna» bere egitea da helburua. Horretarako, baliabide hauetakoren bat erabil daiteke:

- «Prestakuntza-taldea» tresna. Tresna metodologiko oso indartsua da, eta horretan, eduki tematikoak lantzeko oinarri moduan hartuko dira ikasleen aurretiko ezagutzak eta gizarte-pertzepzioak, eta ikuspegi kritikotik aztertuko da errealitatea, kontuan hartuta ikaskuntza-prozesuek ikasleengan sortzen dituzten dinamikak eta eraldaketak.
- Anlisi-metodoak, bestalde, aukera emango du dagoeneko landutako prebentzio eta esku hartzeko programak, atal desberdinak eta erabilitako teknikak eta baliabideak baloratu eta ebaluatzeko.
- Proiektu-metodoaren bitartez, ikasleek aurrera eramango dute genero-indarkeriaren inguruan esku hartzeko ekintzak eta programak diseinatu, antolatu, ezarri eta ebaluatzeko prozesua.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Genero-indarkeriazko egoerak ezaugarritzea:
 - «Joko dramatikoak» baliabide metodologikoa erabilia, taldean aztertzea eta

gogoeta egitea, alderdi hauen inguruan: familia-eredu hegemonikoen (aita-ama- seme/alabak, aldaketa partzialekoak...) eraikitze soziohistorikoa, gizonen eta emakumeen arteko esplotazio-harremanak eta elkarrenganako interdependentziak.

- Interneten informazioa bilatzea, laburtzea eta taldeari aurkeztea (aldez aurretik, aurkeztuko den gaiari eta metodologiari buruzko gidoia emango zaio irakasleari): indarkeriaren tipologia eta kausak, horren ondorioak nortasunen eraikuntzan, harremanetan, gizarte-erakundeen osaketan eta funtzionamenduan, gizarte-imaginarioa osatzen duten alderdi kulturaletan... Material idatzia, bideoan grabatutako hitzaldiak, dokumentalak eta abar erabiltzea.
- Hainbat testuren irakurketa dialogikoa (artikuluak, liburueta kapituluak...).
- Gelan landutako gaiari buruzko laburpen- eta saiakuntza-lanak, oinarritzat hartuta irakasleak emandako galdetegiak eta gidoiak.
- Komunikabideetako edukiei buruzko azterketa eta gogoeta egitea, bakarka zein taldeka: prentsa digitala, ikus-entzunezko produkzioak, sare sozialak, blogak, webguneak, prentsa idatzia, informazio-liburuxkak, kontsumo-produktuen zein jostailuen katalogoak, eta abar, betiere genero-indarkeriaren prebentzioarekin lotuta.
- Gogoeten emaitzak IKT euskarrien bidez adieraztea: PowerPoint, Word edo Prezi programen bidezko aurkezpenak, bideoak, blogak, kartelak, collageak...

Egingo diren jarduera eta material guztietan, emakumeen aurkako indarkeria-egoeren irudi estereotipatua ematea saihestuko da. Hartara, emakumeen aurkako indarkeriaren tratamenduari buruzko eskuliburuak edo dekalogoak erabiliko dira, edota berriak landuko.

- ✓ Genero-indarkeriaren inguruko esku-hartze prebentiboaren esparrua ezaugarritzea:
 - Legegintza-testuak eta esku-hartzeko protokoloak aztertzea. Norberaren eta taldearen irakurketa, laburpena taldeari aurkeztea.
 - «Prestakuntza-taldea» baliabide metodologikoaren alderdi tematikoak eta dinamikoak praktikan jartzea eta horiez esplizituki gogoeta egitea, emakume-zein gizon-taldeekin edota biok osatutako taldeekin esku hartzeko tresna den aldetik.
 - Gatazkak ebazteko teknika eta baliabideekin saioak egitea.
 - Sentsibilizazio-kanpainak aztertzea eta lantzea, Internet bidez hainbat baliabide eta teknika (grafikoak eta ikus-entzunezkoak) erabilia.
- ✓ Genero-indarkeria prebenitzeko jarduerak planifikatzea:
 - Plangintza egitea, kronogramak edota MicrosoftProject bezalako aplikazioak erabilia.
 - Ekintzak, arduradunak, baliabideak, denborak, tokiak eta abar ezartzea ahalbidetzen duten txantiloak lantzea eta erabiltzea.
 - Genero-indarkeriazko egoeren prebentzian, aholkularitzan eta zuzeneko esku-hartzean inplikaturako erakundeetara bisita egitea.
- ✓ Genero-indarkerian esku hartzeko estrategiak garatzea:
 - Elkarriketak egitea genero-indarkeriaren prebentzian esku hartzeko profesionalekin, hainbat organismo eta erakunderekin: hirugarren sektoreko enpresak, GKEak, udalak, foru-aldundiak, Eusko Jaurlaritza.
 - Esku-hartze programak eta teknikak martxan jartzea (irakasleek gainbegiratuta). Rol-jokoen bidez gatazkak ebazteko teknikekin saioak egitea.
 - Gizarte-trebetasunetako teknikekin saioak egitea.
- ✓ Genero-indarkeriaren inguruko esku-hartzea jarraitzea eta kontrolatzea:

- Hainbat proiektu eta esku-hartzetan egindako ebaluazio-prozesuak eta erabilitako baliabideak aztertzea.
- Galdetegiak lantzea eta praktikan jartzea. Elkarrizketak egiteko, entzute aktiboko teknika eta abarrekin saioak egitea.
- Ekintza eta programen gidoia osatzea eta balorazio-elkarrizketak egitea (banakakoak/taldekoak).
- Memoriak eta txostenak egitea, gauzatutako programa edo ekintzen emaitza eta balorazioetatik abiatuta.

7. lanbide-modulua

EMAKUMEENTZAKO ENPLEGUA SUSTATZEA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Emakumeentzako enplegua sustatzea
Kodea:	1403
Heziketa-zikloa:	Genero-berdintasuna sustatzea
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	160 ordu
Kurtsoa:	2
Kreditu kop.:	12
Irakasleen espezialitatea:	Gizartearentzako zerbitzuak (Lanbide Heziketako irakasle teknikoa)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal honi lotuta dago: UC1582_3: Esku-hartzearen ingurune-erakunde, enpresa, emakume eta eragileak hauteman eta informatzea lan-harremanei buruz eta enplegua sortu, bertara sartu eta egonkortzeari buruz, betiere emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorra oinarritzat hartuta
Helburu orokorrak:	1 / 2 / 3 / 6 / 7 / 8 / 9 / 10 / 11

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Emakumeek enpleguan duten egoera ezaugarritzen du, esparru legala aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- Enpleguaren eta lanaren arteko diferentziak ezarri ditu, genero-ikuspegia baliatuta.
- Emakumeari eta enpleguari buruzko esparru legala interpretatu du.
- Emakumeek enpleguaren alorrean dituzten beharrak eta eskaerak definitu ditu.
- Emakumeek enpleguaren alorrean dituzten behar eta eskaeren diagnostikoa egin du.
- Enpleguaren alorreko diskriminazio motak beroriek garatzen diren esparruekin lotu ditu.
- Aukera-berdintasunaren alorreko sindikatu-ekintzaren esku-hartzea aztertu du.
- Emakumeek lan-munduaren garapenerako egiten duten ekarpena baloratu du.

2. Enpleguaren alorreko berdintasun eraginkorrerako informazio- eta sentsibilizazio-jarduerak antolatzen ditu, familia eta laneko bizitza uztartzeko esparru legala eta horretarako dauden oztopoak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Familia eta lana uztartzeko esparru legala aztertu du.
- b) Enpleguaren alorreko berdintasun eraginkorrarekin lotutako terminologia zehaztasunez erabili du.
- c) Enpleguaren alorreko berdintasun eraginkorra zailtzen duten elementuak eta oztopoak hauteman ditu.
- d) Informazio eta sentsibilizazioaren alorrean gizarte-eragileek duten zeregina aztertu du.
- e) Genero-ikuspegiaren inguruan sentsibilizatzeko jarduerak garatu ditu hainbat lan-eremutan.
- f) Enpleguaren alorreko berdintasun eraginkorrerako informazio- eta sentsibilizazio-teknikak aplikatu ditu.
- g) Enpleguaren alorreko informazio- eta sentsibilizazio-materialak landu ditu.
- h) Esku-hartzearen inguruneke zerbitzuak, baliabideak eta ekintzak ezagutzera emateko komunikazio-euskarriek duten irisgarritasuna egiaztatu du.
- i) Informazio- eta sentsibilizazio-jarduerak antolatzeko informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzeak duen garrantzia baloratu du.

3. Enpresentzako aholkularitza-jarduerak antolatzen ditu, enpleguan berdintasun eraginkorra aplikatzeak dituen abantailak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Gizarte-ikerketako teknikak aplikatu ditu, emakumeak produkzio-sarean txertatzeko aukerak hautemateko.
- b) Informazioa biltzeko tresnak landu ditu, ondoren enpresen azterketan aplikatzeko.
- c) Enpresa-egituren ezaugarriak aztertu ditu.
- d) Lanpostuen eskaintza emakumeen behar eta eskaerekin erlazionatu ditu.
- e) Enplegu-sorgune berriak hauteman ditu.
- f) Emakumeen beharrak eta esparru legala bateratzen dituzten aholkularitza-estrategiak garatu ditu.
- g) Enpresaren barruan emakumeen parte-hartzea sustatzeko ekintzak garatu ditu.
- h) Gizonak eta emakumeak baldintza berdinetan enplegura sartu eta bertan mantentzeak duen garrantzia justifikatu du.

4. Enpleguaren alorrean emakumeak orientatu eta informatzeko prozesuak garatzen ditu, eta euren enplegarritasuna eta lan-egoera erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Emakumeen enplegarritasun-maila ezaugarritu du.
- b) Orientazio- eta informazio-ekintzetarako helburuak definitu ditu.
- c) Esku-hartze estrategiak aukeratu ditu, enplegarritasuna egoera koiunturalera egokitzeke.
- d) Ibilbide pertsonalizatuak diseinatu ditu.
- e) Autoenplegu-estrategiak dinamizatu ditu.
- f) Enplegu-bilaketa aktiborako teknikak aplikatu ditu.
- g) Pertsona bakoitzaren iritzia eta aukerak errespetatzearen garrantzia justifikatu du.

5. Enplegua sustatzeko prozesua jarraitzeko jarduerak egiten ditu, ebaluaziorako estrategia, teknika eta tresnen aukeraketa justifikatuta.



Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jarraipen- eta ebaluazio-jarduerak planifikatu ditu, prozesuaren une bakoitza kontuan hartuta.
- b) Enplegua sustatzeko prozesuaren adierazleak identifikatu ditu.
- c) Datuak biltzeko eta informazioa erregistratzeko tresnak diseinatu ditu.
- d) Ebaluazio-jardueretan ateratako datuak aztertu ditu.
- e) Enplegua sustatzeko txostenak eta amaierako memoriak landu ditu.
- f) Lan-jardunari buruz autogogoeta eta autokritika egitearen garrantzia baloratu du.
- g) Erabakiak hartzeko unean ebaluazioa tresna erabilgarri gisa baloratu du.

c) Oinarrizko edukiak:

1. EMAKUMEEK ENPLEGUAREN ALORREAN DUTEN EGOERA EZAUGARRITZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Enplegua eta lana genero-ikuspegia baliatuta bereiztea. - Emakumeari eta enpleguari buruzko esparru legala interpretatzea. - Emakumeez enpleguaren alorrean dituzten behar eta eskaeren diagnostikoa egitea. - Enpleguaren alorreko diskriminazio motak beroriek garatzen diren esparruetan aztertzea. - Enpresa publiko eta pribatuetan emakumeez eta gizonen erabiltzen dituzten kontziliazio-neurriak aztertzea. - Aukera-berdintasunaren alorreko sindikatu-ekintzaren esku-hartzea aztertzea. - «Lanaren banaketa sexuala» kontzeptua ekonomia-errealitate ezberdinetara aplikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Definizioa eta tipologia: lana. Enplegua eta lan-egoerak. - Lanaren banaketa sexuala. - Enpleguaren alorreko lege- eta araudi-erreferentziak nazioarte, Europa-, estatu- eta autonomia-mailetan. - Emakumeen lan-esparruko beharrak eta eskaerak. Sektore feminizatuak eta lan-prekarietatea. - Diskriminazio zuzenaren eta zeharkakoaren adierazpenak enpleguaren alorrean. - Sexuagatiko diskriminazioa lanean. - Diskriminazio zuzena / zeharkako diskriminazioa enpleguaren eta autoenpleguaren esparruetan. - Estereotipoak eta aurreiritziak lan-esparruan. Sexu-jazarpena eta sexuagatiko jazarpena enpleguan. - Sindikatu-ekintza eta aukera-berdintasuna. Emakumeak sindikatu-esparruan. - Ekintzailatza genero-ikuspegitik. - Lan- edo lanbide-segregazioa. Segregazio horizontal eta bertikala. - Produkzio-esparruaren eta erreproduktzio-esparruaren arteko lotura. - Ekonomia feminista. Zaintzen etika.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Emakumeez lan-munduaren garapenerako egiten duten ekarpena baloratzea. - Lan-esparruan emakumeez berdintasunaren alde egiten duten aldarrikapena baloratzea. - Lan-esparruko genero-estereotipoak eta jokaera sexistak identifikatu eta arbuatzea.

2. ENPLEGUAREN ALORREAN BERDINTASUN ERAGINKORRA SUSTATZEKO JADUERAK ANTOLATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Aukera-berdintasunarekin lotutako erakundeak identifikatzea. - Berdintasun eraginkorraren alorreko esparru legala interpretatzea. - Ereduzko esku-hartzearen ingurunean herritarrei eskaintzen zaizkien baliabideak, zerbitzuak eta ekintzak identifikatzea. - Gizonek eta emakumeek erabiltzen dituzten baliabideak, espazioak eta denborak baliatzea. - Eskura dauden baliabide, zerbitzu eta ekintzei buruz lortutako informazioa antolatzeko irizpideak. - Osasunaren dimentsio bakoitzean dauden beharrak interpretatzea genero-ikuspegitik. - Esku-hartzearen inguruneke zerbitzuak, baliabideak eta ekintzak ezagutzera emateko komunikazio-euskarriak ezartzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Kontziliazio-neurriak: kontzilizazioa. Erantzunkidetasuna. Denborak kudeatzea. - Norberaren bizitza, familia eta lanekoa uztartzeari buruzko araudia: gidak eta eskuliburuak. - Lan-merkatura sartzea eragozten edo galarazten duten oztopoak. - Zenbait kontzeptu: «kristalezko sabaia», «belusezko ghettoa», «zoru itsaskorra». - Gizarte-eragileen zereginak. - Jardunbide egokiak, ekimen pribatuak eta publikoak sustatutakoak. - Erreferente femeninoak sektore maskulinizatueta. - Genero-ikuspegiaren inguruko sentsibilizazio- eta informazio-teknikak eta -materialak enpleguaren alorrean. Hedapen-kanpainak. Taldeak. Testuinguruak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Esku-hartzearen ingurunean baliabide eta ekintzen inguruko informazioa eguneratuta mantentzearen garrantzia baloratzea. - Informazio- eta sentsibilizazio-jarduerak antolatzeko informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzeak duen garrantzia baloratzea.

3. ENPRESAK AHOLKATU ETA AZTERTZEKO JARDUERAK ANTOLATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte-ikerketako teknikak aplikatzea, emakumeak produkzio-sarean txertatzeko aukerak hautemateko. - Informazioa biltzeko tresnak lantzea, ondoren enpresen azterketan aplikatzeko. - Enpresa-egituren ezaugarriak aztertzea. - Lanpostu-eskaintza ez-diskriminatzaileen zerrenda. - Lanpostu-eskaintza diskriminatzaileen aurkako argudiatzeak lantzea. - Enplegu-sorgune berriak hautematea. - Emakumeen beharrak eta esparru legala bateratzen dituzten aholkularitza-estrategiak garatzea. - Enpresaren barruan emakumeen parte-hartzea sustatzeko ekintzak garatzea. - Informazio- eta sentsibilizazio-jarduerak antolatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Enpresa, erakundeak eta enplegu-egiturak. - Gizarte-ikerketako teknikak. - Informazioa biltzeko tresnak, enpresak aztertzeke jardueretan.

	<ul style="list-style-type: none"> - Lan-eskaintza. Lan-eskaintzaren ezaugarriak esku-hartzearen ingurunean. - Lan-orientabide ez-sexista. - Aukeratzeko eta mailaz igotzeko prozesu ez-diskriminatzaileak. - Baliabide-mapak garatzea. - Enplegu-sorguneak. Eskaerak, eskaintzak, zerbitzuak eta enplegu-sorgune potentzialak hautematea. - Aholkularitza-estrategiak. Enpleguan berdintasuna ezartzeko gidak eta eskuliburuak erabiltzea. Berdintasun-zigilua enpresan. Emakundek emandako «Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundea» aitorpena. - Lidergoa trebatzea eta sustatzea. - Informazio- eta sentsibilizazio-jarduerak antolatzea.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizonak eta emakumeak baldintza berdinetan enplegura sartu eta bertan mantentzeak duen garrantzia baloratzea. - Emakumeek lan-munduan duten parte-hartzea baloratzea.

4. ENPLEGUAREN ALORREAN EMAKUMEEI INFORMAZIOA ETA ORIENTAZIOA EMATEKO PROZESUAK GARATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Emakumeen enplegarritasun-maila ezaugarritzea. - Orientazio- eta informazio-ekintzetarako helburuak definitzea. - Esku-hartze estrategiak aukeratzeko, enplegarritasuna egoera koiunturalera egokitzeko. - Ibilbide pertsonalizatuak diseinatzea. - Autoenplegu-estrategiak dinamizatzea. - Enplegua modu aktiboan bilatzeko teknikak aplikatzea. - Emakumeek enpleguaren alorrean duten parte-hartzea sustatzeko erreferentziako gidak eta eskuliburuak erabiltzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Emakumeen enplegarritasuna eta berau hobetzea: enplegurako eta lanbiderako prestakuntza. Konpetentziak egiaztatzen diren prozesuak. - Enpleguaren alorreko informazioa eta orientazioa. - Enplegua sortzea, bertara sartzeko eta mantentzea. Lanean mailaz igotzea berdintasun-baldintzetan. - Laneratzeko ibilbide pertsonalizatuak. Lana bilatzeko prozesuan laguntzea. - Lanbide-baliabideei buruzko informazioa. - Lana bilatzeko teknikak. - Autoenplegua: enpresa bat sortzeko prozesua. Oinarriko erreferentziak. - Emakume ekintzaileentzako planak eta laguntzak. - Ekintzaileentzako neurri eta jardunbide egokiei buruzko gidak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Pertsona bakoitzaren iritzia eta aukerak errespetatzearen garrantzia balioestea.

5. ENPLEGUA SUSTATZEKO PROZESUA KONTROLATU ETA JARRAITZEKO JARDUERAK EGITEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Jarraipen- eta ebaluazio-jarduerak planifikatzea, prozesuaren une bakoitza kontuan hartuta.
-----------------------	---

	<ul style="list-style-type: none"> - Enplegua sustatzeko prozesuaren adierazleak identifikatzea. - Datuak biltzeko eta informazioa sexuaren arabera erregistratzeko tresnak diseinatzea. - Datuak euskarri egokietan erregistratzea: lortutako datuak aztertzea. - Ebaluazio-jardueretan ateratako datuak aztertzea. - Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak erabiltzea. - Genero-arrakala digitala.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ebaluazio-tresnak. - Genero-adierazleak eta ebaluazio-protokoloak enpleguaren sustapenean. - Ebaluazio-tresnak enpleguaren sustapenean. - Datuak euskarri egokietan erregistratzea: lortutako datuak aztertzea. - Ebaluazio-dokumentazioa, enpleguaren sustapenean parte hartzen duten gizarte-eragileen artean banatzeko. - Txostenak eta memoriak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Genero-ikuspegia duen ebaluazioaren garrantzia baloratzea, enplegua sustatzeko esku-hartzea hobetzeko baliabide gisa. - Genero-berdintasuna sustatzeko goi-mailako teknikariak bere ekintza eta erabakien inguruan hausnartzeko beharra balioestea. - Genero-ikuspegia duen ebaluazioa baloratzea, erabakiak hartzeko unean baliagarria den tresna gisa.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Irakatsi eta ikasteko prozesua ahalik eta egokiena izan dadin, beharrezkoa izango da «*Laneko prestakuntza eta orientabidea*» (1408) modulua eginda izatea.

Moduluaren abiapuntua lehenengo blokea, orokorra, izango da: «**Emakumeek enpleguaren alorrean duten egoera ezaugarritzea**». Ondoren, espezifikoak lantzen hasiko gara. Ziurtzat joko dugu ikasleek aurretik zenbait ezagutza bereganatu dituztela, eta ikaskuntza sakonagoa eta espezifikoagoa izango da ondorioz. Hala, bloke tematiko hauei helduko diegu: «**Enpleguaren alorrean berdintasun eraginkorra sustatzeko jarduerak antolatzea**», «**Enpresak aholkatu eta aztertzekeo jarduerak antolatzea**», «**Enpleguaren alorrean emakumeei informazioa eta orientazioa emateko prozesuak garatzea**» eta, azkenik, «**Enplegua sustatzeko prozesua kontrolatu eta jarraitzekeo jarduerak egitea**».

Modulua amaitutakoan, ikasleak gai izango dira, batetik, esku-hartzearen ingurunean dauden eskaerak, eskaintzak, zerbitzuak eta enplegu-sorgune potentzialak hautemateko; bestetik, enpresetan, erakundeetan eta ingurunean informazioa biltzeko gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna eraginkorra izatea eta mantentzea baldintzatzen duten elementu eta oztopoei buruz; eta, hirugarrenik, emakumeei informazioa emateko lan-harremanen zein enplegua sortu, bertara sartu eta mantentzearen inguruan, banakako lan-ibilbide nahiz laguntzen inguruan eta, azkenik, berdintasunaren zein enpleguaren alorrean sentsibilizatutako herritarren inguruan.

2) Alderdi metodologikoak

Ikasleek «*Emakumeentzako enplegua sustatzea*» moduluaren helburuak lor ditzaten, elkarlaneko ikaskuntzaren bidezko metodologia planteatuko dugu. Horretan, pertsona bakoitzak izango du bai bere ikaskuntzaren bai besteen ikaskuntzaren gaineko ardura.

Metodologia hori talde bat osatzen duten pertsonen arteko elkarrekintzan oinarritzen da, lankidetzan, inplikazioa, eztabaida, adostasun eta abarren bitartez ikaskuntza komuna eta esanguratsua erdiesteko helburuarekin.

Zenbait egilek honela definitzen dute: «talde txikiak era hezigarrian erabiltzea, ikasleek elkarrekin lan egiteko, eta norberaren ikaskuntza eta elkarrekintzaren bidez gertatzen dena ahalik eta gehien baliatzeko». Helburu horretara iristeko, planifikazioa eta trebetasunak behar dira, bai eta talde-dinamikaren efektuak ezagutu ere.

Ikuspegi pedagogiko batetik, elkarlaneko ikaskuntzak ikasle-taldeek ikasgelan zein hortik kanpo egiten dituzten jarduera guztiak biltzen ditu.

Lanbide-modulu honek barne hartzen du esku-hartzeak planifikatu, antolatu, sustatu, hedatu eta ebaluatzeko funtzioak aurrera eramateko beharrezkoa den prestakuntza.

- a) Planifikazio-funtzioak, besteak beste, alderdi hauek barne hartzen ditu:
 - Esku-hartzeak definitzea eta sekuentziatzea.
 - Esku-hartzea eta ebaluazioa planifikatzea.
 - Baliabideen antolaketa planifikatzea.
 - Memoria, txostenak, protokoloak eta beste batzuk definitzea eta lantzea.
- b) Antolaketa-funtzioak, besteak beste, alderdi hauek barne hartzen ditu:
 - Beharrak hautematea.
 - Esku-hartzeak programatzea.
 - Esku-hartzea kudeatzea.
 - Esku-hartzea gainbegiratzea.
- c) Sustapen/hedapen-funtzioak, besteak beste, alderdi hauek barne hartzen ditu:
 - Kanpainak eta proiektuak sustatzea.
 - Publizitate-euskarriak lantzea.

Ebaluazio-funtzioak esku-hartzearen balorazioaren diseinuarekin lotutako alderdiak barne hartzen ditu, eta esku-hartzeei kalitate-irizpideak aplikatzen dizkie.

Funtzio horiei lotutako jarduerak gizartearentzako zerbitzuen sektorean aplikatuko dira, emakumeen eta gizonen arteko tratua eta aukera-berdintasunaren sustapenaren azpisektorean.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Emakumeek enpleguaren alorrean duten egoera ezaugarritzea:
 - Emakumeek enpleguan izandako bilakaeraren irakurketa dialogikoa.
 - Emakumeen erakundeak aztertzea, talde-lanak eta taldeko eta bakarkako aurkezpenak eginda.
 - Interneten bilaketa aktiboa egitea, enpleguaren alorreko nazioarte-, nazio- eta estatu-mailetako gaur egungo araudiei buruz, eta horien laburpenak egitea.

- Enplegua sortu, bertara sartu eta mantentzearen inguruko aholkularitza emateko ustezko egoera praktikoa.
 - Enplegura sartzeko ekimen ekintzaileak, beharrak eta zailtasun bereziko egoerak, *mentoringa* erabiltzeko bide ematen dutenak.
 - Enpleguaren eta autoenpleguaren esparruan erantzunkidetasuna sustatzen duten estrategiak garatzea.
 - *Coaching* eta lidergo-sustapenarekin lotutako neurriak eskaintzea, ekonomiaren alorreko erabakiak hartzeko prozesuetan emakumeen parte-hartzea sustatzea ahalbidetuz.
- ✓ Enpleguaren alorrean berdintasun eraginkorra sustatzeko jarduerak antolatzea:
- Komunikazio-euskarriak komunikazio-estrategia zehatzekin lotzea, aintzat hartuta norberaren bizitza, familia eta lanekoa uztartzeko zailtasun bereziak dituzten emakumeen espezifikotasunak eta beharrak, eta horiek osasunean eta denboren kudeaketan dituzten ondorioak.
 - Norberaren bizitza, familia eta lanekoa uztartzeari buruzko ekintzak egiteko eta horiek laneko osasunean eta denboren kudeaketan duten eragina irudikatzekeko ustezko egoera praktikoa:
 - Inplikaturako taldeak motibatu eta sensibilizatzea, behar dituzten zerbitzuak eta baliabideak eska ditzaten.
 - Esku-hartzearen inguruneko entitateak eta erakundeak sensibilizatzea, herritarren eskaerei erantzuna emango dieten baliabideak eta zerbitzuak aktibatzeke edota daudenak hobetzeko.
 - Hedapen- eta sensibilizazio-ekintzak berrikusteko modua zehaztea, aldizkako jarraipena ahalbidetzeko moduan.
- ✓ Enpresak aholkatu eta aztertzekeo jarduerak antolatzea:
- Gizonen eta emakumeen aukera-berdintasuna oztopatzen duten elementuak eta mugak azaltzea, eta enpresetan, erakundeetan eta esku-hartzearen ingurunean horiek nola identifikatu daitezkeen ezartzea.
 - Emakumeen sindikatu- eta elkarte-antolaketako sistemak ezagutzea, eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasun eraginkorra lortzeko eta berau mantentzeko duten eragina adieraztea.
 - Gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun-egoerak hautemateko esanguratsua den lan-alorreko indarreko legeria ezagutzea.
 - Enplegu-ingurune bat aurkezten den ustezko egoera praktikoa:
 - Informazioa biltzeko protokoloak eta teknikak aplikatzea, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasuna hautemanez eta aztertuz.
 - Egoeraren diagnostikoa egitekeo lortutako informazioa aztertzea, eta diagnostikoa esku-hartze taldeari helaraztea.
 - Emakumeen lan- eta lanbide-garapena bereziki zailtzen duten egoerak ezaugarritzea, eta zerbitzu espezializatuetera bideratzeko prozedura adieraztea.
 - Enpresak aholkatu eta aztertzekeo edozein jarduerak genero-ikuspegia barne hartzea ahalbidetzen duten elementuak identifikatzea, berau txertatuta ez dagoen beste egoera batzuekin konparaketa eginez.
- ✓ Enpleguaren alorrean emakumeei informazioa eta orientazioa ematekeo prozesuak garatzea:
- Lan-merkatuan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna oztopatzen duten enplegu eta lanaren alorreko faktoreak ezagutzea.
 - Enpleguaren alorreko diskriminazio motak beroriek garatzen diren esparruekin lotzea.
 - Esku-hartzearen ingurune jakin batean, emakumeei arreta zuzena ematekeo teknikak aplikatzeko ustezko egoera praktikoa:



- Informazioa biltzea, enplegurako esku-hartze prozesu batean kontuan izan behar diren esku-hartzearen inguruneko baldintzatzaileak ezagututa.
 - Emakumeen oinarrizko beharrak eta eskaerak eurek lan egiten duten enplegu-eragileek dituztenekin erlazionatzea, eta bion arteko doikuntza nola egin daitekeen ezagutzea.
 - Enplegua sortu eta bertara sartzeko baliabideak eta zerbitzuak –publikoak zein pribatuak– ematen dituzten entitateak bereiztea, eta horietan beharrezkoak diren eskakizunak eta dokumentazioa zehaztea.
 - Baliabide eta zerbitzuei buruzko erregistroa lantzeko ustezko egoera praktikoa. Esku-hartzearen esparru jakin batean enplegua sortu eta bertara sartzeko baliagarria eta sistematikoa izan beharko da, eguneratuta mantentzeko modua ezarriko da, eta erabiliko diren genero-adierazleak identifikatuko.
 - Esku-hartzearen ingurune jakin batean, lan-merkatuaren ezaugarriak ageri diren ustezko egoera praktikoa:
 - Informazioa aztertzea, enplegu-sorgune potentzialak aurkituta.
 - Ingurune positiboak identifikatzea, emakumeek ekimen ekintzaileak egin ditzaten bultzatuta.
- ✓ Enplegua sustatzeko prozesua kontrolatu eta jarraitzeko jarduerak egitea:
- Esku-hartzearen ingurune batean eskaerak, eskaintzak, zerbitzuak eta enplegu-sorgune potentzialak hautemateko jarraitu beharreko prozesua zehaztea, eta adieraztea nola helarazi behar zaien lortutako informazioa garatu beharreko ekintzak ezartzeko ardura duten profesionaleri.
 - Emakumeen lan- eta lanbide-garapena bereziki zailtzen duten egoerak ezaugarritzea, eta zerbitzu espezializatuetara bideratzeko prozedura adieraztea.
 - Esku-hartzearen ingurune jakin batean, emakumeei arreta zuzena emateko teknikak aplikatzeko ustezko egoera praktikoa:
 - Informazioa biltzea, enplegurako esku-hartze prozesu batean kontuan izan behar diren esku-hartzearen inguruneko baldintzatzaileak ezagututa.
 - Teknikak aukeratzea eta lantzea, esku-hartze talde simulatu batekin lankidetzan.
 - Enplegua sortu edo bertara sartzeko prozesu batean, emakumeek dituzten behar, eskaera eta oztopoei buruzko informazio biltzea ingurunean.
 - Emaizta gisa garatutako prozesuak erregistratzea eta dokumentatzea, ezarritako protokoloari jarraikiz.

8. lanbide-modulua

BERDINTASUNA SUSTATZEKO JARDUN ESPARRUAK

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Berdintasuna sustatzeko jardun-esparruak
Kodea:	1404
Heziketa-zikloa:	Genero-berdintasuna sustatzea
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	165 ordu
Kurtoa:	1
Kreditu kop.:	9
Irakasleen espezialitatea:	Gizarte arloko esku-hartzea (Bigarren Hezkuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Kompetentzia-atal honi lotuta dago: UC1583_3: Emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerako proiektuak hauteman, aztertu, ezarri eta ebaluatzeko lanetan parte hartzea.
Helburu orokorrak:	1 / 2 / 4 / 5 / 6 / 9 / 16

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Esku-hartzearen ingurunea genero-ikuspegitik ezaugarritzen du, eta xede diren herritarren beharrak eta eskaerak eta beren bizi-kalitateari eragiten dioten faktoreak zehazten ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Pertsonen bizi-kalitateari eragiten dioten faktoreak eta bizi-kalitateak norberaren bizi-tza, familia eta lanekoa uztartzearekin duen lotura identifikatu ditu.
- Esparru ezberdinetan gizonen eta emakumeek jasaten dituzten diskriminazio motak hauteman ditu.
- Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren ondoriozko edo horrekin lotutako beharrak identifikatu ditu.
- Gizonen eta emakumeen beren eguneroko bizitzan erabiltzen dituzten espazio eta denboren erabilera definitu du.
- Esparru publiko, pribatu eta etxekoan gizonen eta emakumeen dituzten beharrak eta eskaerak, bai eta horiek banantzeko kausak ere, identifikatu ditu.
- Genero-ikuspegitik, xede den herritarrek esparru ezberdinetan dituzten beharrak definitu ditu.
- Genero-alborapenak gizonen eta emakumeen autonomia eta mendekotasunaren balorazioan duen garrantzia balioetsi du.

2. Gizonen eta emakumeen berdintasun eraginkorrerako estrategiak diseinatzen ditu, baliabide, zerbitzu eta ekintzak genero-ikuspegitik aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Aukera-berdintasunarekin lotutako erakundeak identifikatu ditu.
- b) Berdintasun eraginkorraren alorreko esparru legala interpretatu du.
- c) Ereduzko esku-hartzearen ingurunean herritarrei eskaintzen zaizkien baliabideak, zerbitzuak eta ekintzak identifikatu ditu.
- d) Gizonek eta emakumeek baliatzen dituzten baliabide, espazio eta denboren erabilera identifikatu du.
- e) Eskura dauden baliabide, zerbitzu eta ekintzei buruz lortutako informazioa antolatzeko irizpideak identifikatu ditu.
- f) Osasunaren dimentsio guztietan dauden beharrak interpretatu ditu, genero-ikuspegia baliatuta.
- g) Esku-hartzearen inguruneke zerbitzuak, baliabideak eta ekintzak ezagutzera emateko komunikazio-euskarriak ezarri ditu.
- h) Informazioa eguneratuta mantentzearen garrantzia baloratu du.

3. Etxeko esparruan emakumeek garatutako ordaindu gabeko lanaren inguruan informatu eta sensibilizatzeko ekintzak antolatzen ditu, eta bizitzarako zainketak ikusarazteko eta duten balioa aintzatesteko estrategiak eta teknikak aukeratzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Etxeko esparruko ordaindu gabeko lanaren zereginak eta eskaintako denborak identifikatu ditu.
- b) Etxeko esparruko ordaindu gabeko lanaren ondorioak ezarri ditu, maila pertsonalean eta familia-mailan eta egitura sozioekonomikoan.
- c) Ordaindu gabeko lanak berau garatzen duten emakumeen bizi-kalitatean dituen ondorioak ezarri ditu.
- d) Ordaindu gabeko lana ikusarazi eta aintzatesteko estrategiak eta teknikak ezaugarritu ditu.
- e) Bizitzarako zainketetan gizonek eta emakumeek dituzten erantzunkidetasuna sustatzen duten estrategiak aukeratu ditu.
- f) Bizitzarako zainketak egitearen bidez garatzen diren balioen garrantzia baloratu du.

4. Esku-hartzearen esparru eta testuinguruetakoa kontziliazio-neurrien inguruan informatu eta sensibilizatzeko estrategiak aplikatzen ditu, eta pertsona, gizarte-talde eta talde ezberdinen tipologietara egokitzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Genero-ikuspegia baliatuta, osasunean, hezkuntzan, aisialdian, norberaren bizitzaren eta familiarean kontziliazioan, mugikortasunean eta denboren kudeaketan dauden beharrak definitu ditu.
- b) Pertsona eta taldeen beharrei aurre egiteko baliabideak hautatu ditu.
- c) Baliabide, espazio eta denboren inguruko informazioa pertsona, gizarte-talde eta taldeen aniztasunera egokitu du.
- d) Emakumeen eta gizonen denbora-erabilerak aldatzeko ekintzak martxan jarri ditu.
- e) Emakumeen eta beren beharren aniztasuna kontuan hartzearen garrantzia argudiatu du.
- f) Kontziliazio-neurrien inguruan informatu eta sensibilizatzeko jarduerak aurrera eramanean ditu.

5. Berdintasunaren alorreko esku-hartzea kontrolatu eta jarraitzeko jarduerak egiten ditu, horren eraginkortasuna eta eragina egiaztatzeko tresnak eta adierazleak hautatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Ebaluazioaren uneak identifikatu ditu.
- b) Berdintasun eraginkorrerako ekintzen eraginkortasuna eta efizientzia baloratzeko tresnak aukeratu ditu.
- c) Berdintasunaren alorreko esku-hartzeen eragina baloratzeko irizpideak eta adierazleak ezarri ditu.
- d) Garatutako ekintzak jarraitzeko tresnak aplikatu ditu.
- e) Emaizak komunikatu eta hedatzeko protokoloak identifikatu ditu.
- f) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabili ditu ebaluazio-txostenak eta memoriak lantzeko, aurkezteko eta hedatzeko.
- g) Parte-hartzearen kalitatea kudeatzeko prozedura orokorrak ezarri ditu.

c) Oinarrizko edukiak:

1. ESKU HARTZEAREN INGURUNEA GENERO IKUSPEGITIK EZAUGARRITZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Bizi-kalitatearen eta norberaren bizitza, familia eta lanekoa uztartzearen arteko loturetan eragina duten faktoreak aztertzea. - Genero-bereizketarik egin gabe zereginak gauzateari dagokionez, pertsonak dituzten eskaerak eta beharrak zentzuz zehatzea. - Genero-desberdintasun eta -bereizketaren eraginez eta horrekin lotuta hartu behar diren neurriak eta beren ondorioak identifikatzea, testuinguru guztietan. - Gizonek eta emakumeek jasaten dituzten edo jasan ditzaketen diskriminazio motak eta kasuak, bai eta horiek gertatzen diren testuinguruak ere, hautematea eta aztertzea. - Generoarekin lotutako rola eta estereotipoak aztertzea, besteak beste, honako esparru hauetan guztietan: norberaren bizitza, familia eta lanekoa, osasuna eta sexualitatea, kirola, hirigintza, aisialdia eta denboraren kudeaketa. - Genero-alborapenaren eta genero-arrakalaren konparazio-azterketa: prozedurak eta teknikak. - Genero-ikuspegia baliatuta, osasuneko, hezkuntzako, aisialdiko, norberaren bizitza, familia eta lanekoa uztartzeko, mugikortasuneko eta denborak kudeatzeko adierazleen diagnostikoa egitea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Genero-arrakalak norberaren bizitza, familia eta laneko esparruetan duen eragina. - Bizi-kalitatea genero-ikuspegitik. - Osasunaren eta bizi-kalitatearen arteko lotura, eta hura bultzatzen eta ahultzen duten ereduak. - Espazio publiko, pribatu eta etxekoaren arteko lotura. Espazioen eta denboren erabilera egokiak eta adostuak. Gizonen eta emakumeen arteko diferentziak, aisialdi, osasun eta sexualitateari dagokienez. Kirola, hirigintza, ongizatea eta bizi-kalitatea.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Generoari lotutako rola eta estereotipoak ezagutzea bizitzako esparru guztietan. - Gizonen eta emakumeen autonomia eta mendekotasuna balioestea.

2. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUN ERAGINKORRERAKO ESTRATEGIAK DISEINATZEA

<p>prozedurazkoak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Genero-berdintasun eraginkorrarekin lotuta EAEk dituen eskumenak identifikatzea. - Gizarte, lan eta beste mota batzuetako proiektuak diseinatzea (edota egokitzea, hala badagokio), emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ezarrita. - Informazioa genero-ikuspegitik aztertzea. - Hainbat ekimenen genero-eragina ebaluatzea. - Genero-ikuspegia baliatuta, norberaren bizitzaren, familia eta lanekoaren arteko kontziliazio, osasun, aisialdi eta denboren kudeaketarekin lotutako gidak eta eskuliburuak aztertzea. - Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren inguruko zerbitzuak, baliabideak eta ekintzak helarazten dituzten komunikazio-euskarriak – IKT berriak barne– zerrendatzea eta ezartzea.
<p>kontzeptuzkoak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Teoria feminista. Feminismoaren historia. - EAEko mugimendu feministaren historia. - Genero-zeharkakotasuna edo <i>mainstreaminga</i>. - Aukera-berdintasunarekin lotutako erakundeak nazioarte, Europa-, estatu-, autonomia- eta toki-mailetan. - Osasunari, hezkuntzari, aisialdiari, norberaren bizitza, familia eta lanekoa uztartzeari, mugikortasunari eta denborak kudeatzeari eta bizi-kalitatea hobetzeari buruzko araudia. - Generoa aplikatzea azterketa-kategoria gisa: <ul style="list-style-type: none"> • Sexua-generoa sistema. • Genero-rolak eta -estereotipoak. • Patriarkatua eta boterearen banaketa. • Genero-adierazleak. • Genero-eraginaren ebaluazioa. - Zerbitzuak eta baliabideak: osasunekoak (osasunaren dimentsioak: emozionala, sexuala eta ugalketakoa); sexu eta ugalketako zentroak eta familia-plangintzakoak. Sexu-transmisiozko gaixotasunak prebenitzea. - Aisialdi eta denbora libreko zerbitzuak eta baliabideak: sailkapena, ezaugarriak, xede diren pertsonak eta erabiltzaileak. - Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrarekin lotutako elkarte, erakunde eta zerbitzu nagusiak. Ezaugarriak eta tipologia. - Aisialdi, kultura, kirol eta beste ekintza mota batzuetarako laguntzak, beka eta baliabideak.
<p>jarrerazkoak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Berdintasun-prozesuetan, diskriminazio positiboa ezagutzea. - Genero-berdintasunaren alorrean martxan jarritako ekimenak modu eraikitzailean balioestea. - Informazioa mantendu eta eguneratzearen garrantziarekiko aurretiko jarrera ona.

3. EMAKUMEEK ETXEKO ESPARRUAN EGITEN DUTEN ORDAINDU GABEKO LANAREN INGURUAN INFORMATU ETA SENTSIBILIZATZEKO EKINTZAK ANTOLATZEA

<p>prozedurazkoak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Bizitzarako zainketen eragina aztertzea ordaindu gabeko lan gisa, maila pertsonalean, familia-mailan eta egitura sozioekonomikoan. - Ordaindu gabeko lanak berau garatzen duten pertsonen eta zehazki
-----------------------	--

	emakumeen bizi-kalitatean dituen ondorio txarrak zehaztea. - Ordaindu gabeko lanaren inguruko informazio- eta sentsibilizazio-jarduerak garatzea. - Emakumeen ordaindu gabeko lana ikusarazi eta aintzatesteko estrategiak eta teknikak aztertzea. - Etxeko esparruan eta bizitzarako zainketetan erantzunkidetasuna sustatzeko estrategiak eta tresnak.
kontzeptuzkoak	- Bizitzarako zainketen zereginak eta eskainitako denborak (higienea, elikatzea, berotzea, arreta emozionala, psikikoa eta sexuala, besteak beste). Etxeko lanaren sexu-banaketa adostua edota tradizionala. - Etxeko esparruko ordaindu gabeko lanak dituen eraginak, maila pertsonalean, familiakoan eta sozioekonomikoan. - Etxeko esparruko ordaindu gabeko lanari lotutako balioa (gutxiestea vs balio erantsia ematea), eta horren aplikazioa beste testuinguru batzuetan. - Araudi-erreferentziak.
jarrerazkoak	- Emakumeen lan-diskriminazioa eta tradizionalki eurek egindako zereginen gutxiespena banakako zein gizarte-mailan baloratzea. - Tradizionalki gutxien baloratutako zereginetan erantzunkidetasunak dituen abantailak aintzat hartzea. - Etxeko lanak produkzio-zeregin gisa hartzea, beste batzuek adina.

4. ESKU HARTZEAREN ESPARRU ETA TESTUINGURUETAKO KONTZILIAZIO NEURRIEN INGURUAN INFORMATU ETA SENSIBILIZATZEKO ESTRATEGIAK APLIKATZEA

prozedurazkoak	- Genero-ikuspegia baliatuta, osasuneko, hezkuntzako, aisialdiko, norberaren bizitza, familia eta lanekoa uztartzeko, mugikortasuneko eta denborak kudeatzeko baliabideak eta ekintzak ezartzea. - Berdintasun eraginkorraren aldeko gizarte-proiektu, baliabide, espazio eta denborei buruzko informazioa hedatu eta aurkezteko neurriak. - Berdintasun eraginkorra sustatzeko esku-hartze taldearen lan-egiturak aztertzea, bai eta beroriek osatzen dituzten kideen eta taldeen arteko lankidetzak- eta koordinazio-mekanismoak ere.
kontzeptuzkoak	- Produkzio-esparruan, emakumeen eta gizonen denbora-erabilerak aldatzeko estrategiak: kontziliazio-neurriak. - Aukera-berdintasunaren alorreko profesionalen kontziliazioa eta talde-lana. - Gizarte-antolaketa erantzunkidea.
jarrerazkoak	- Talde-lan eta parte-hartze aktiborako jarrera, bai eta gaitasun autonomoa ere, kontziliazio-neurrien hedapenean. - Tradizio errotuak apurtzeko aukeran sinestea, berdintasuneko espazio baten mesedetan.

5. BERDINTASUN ERAGINKORRAREN ALORREKO ESKU HARTZEA KONTROLATU ETA JARRAITZEKO JARDUERAK EGITEA

prozedurazkoak	- Berdintasun eraginkorraren alorreko ekintzen ebaluazioa eta jarraipena. - Ebaluazio-irizpideak eta -adierazleak aztertzea eta zerrendatzea: osasuna, hezkuntza, aisialdia, norberaren bizitza, familia eta lanekoa
-----------------------	---

	uztartzea, mugikortasuna eta denborak kudeatzea. - Emaizak komunikatu eta hedatzeko txostenak, memoriak eta protokoloak lantzea.
kontzeptuzkoak	- Ebaluazio motak eta horren egitura. - Berdintasunerako esku-hartzeen eraginkortasuna eta efizientzia baloratu, kontrolatu eta jarraitzeko hainbat tresna erabiltzea, esaterako, IKT berriak. - Kalitate-kudeaketa gizonen eta emakumeen arteko berdintasun eraginkorrerako esku-hartzeetan.
jarrerazkoak	- Esku-hartzearen kalitate-programen optimizazioan ebaluazioak duen garrantzia baloratzea. - Ebaluazioan, objektibotasuna baloratzea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu honetako edukiei esker, irakatsi eta ikasteko prozesuaren tratamendu holistikoa eta diziplina anitzekoa egingo da. Horrela, jarraian prozesu horretan bikaintasunez inplikatzeko lortzeko hainbat proposamen aurkezten ditugu:

1) Sekuentziak

Lehenengo pauso gisa, komenigarria litzateke honako fase hauetan egituratzea eta horiek era mailakatuan lantzea:

1. Esku-hartzeko egoera definitzea genero-ikuspegitik.
2. Genero-berdintasun eraginkorraren inguruko informazio- eta sentsibilizazio-ekintzak diseinatu, antolatu eta aplikatzea, esku-hartzea gerta daitekeen esparru guztietan.
3. Aurrera eramandako esku-hartzearen jarduerak gainbegiratu eta baloratzea.

1. Esku-hartzearen esparru gisa hartuko ditugun hiru ingurune generikoak bizitzaren hiru euskarri nagusiak izango dira, hots, arlo pertsonala, familiakoa eta lanekoa. Horregatik, komeniko litzateke fase honen hasieran, hiru esparru horien alderdi esanguratsuenen ezaugarriak zehaztea, banan-banan eta euren arteko loturak ezarrita, eta betiere genero-ikuspegia oinarri.

Pentsa dezakegun arren geuk, askotan, gain hartzen ditugun rolerak gure biologiari berez atxikitako elementuetan dutela jatorria, ez da hala, eta neurri handi batean, tradizio kultural, sozial, hezkuntza eta politikoarekin daude lotuta, eta horren ondorio gisa sortzen diren eskaerak eta beharrak tartean, urundu egiten gara norberak berarentzat nahi dituen rolak gain hartzeko aukeretatik.

Ohituraren eta, sarri, isilpeko inposizioaren eraginez (nahiz eta guk geuk ezarritakoa izan), subjektu ugariaren ahalmenak eta bizitza-bidea diskriminatzen dituzten jardun-printzipioak, eskaerak, beharrak eta kalitate-adierazleak ezartzen ditugu, eta beharrezkoa da horiek agerian uztea ahal adina objektibotasunez, eta mendekotasun-kargarik gabe.

Alderdi horiek beharrezko distantzia objektibotik aztertzeko gai garenean, baloratu ahalko dugu zenbateraino adoretzen, kaltetzen, laguntzen edota alienatzen dituzten gizabanakoak; era horretan, neurri egokiak hartzen eta berriro bideratu behar ditugun egoerak eraldatzen hasi ahalko gara, gure aukera eta konpetentzien barruan, eta oso

kontuan hartuta bakoitzaren sentsibilitateekiko errespetua eta egiturazko aldaketek denbora eskatzen dutela.

Hala, eraldaketa horren kanpoko subjektu eta laguntzaile gisa duten zeregina eta, aldi berean, eraldaketaren xede diren subjektu gisa dutena barneratuz joan behar dira ikasleak. Norbanakotik hasi behar da koherentzia, hortik abiatuta, taldera eta, oro har, gizartera zabaltzeko.

2. Jardun beharreko alorra ezarri ostean, martxan jarriko diren jardunak diseinatzeari ekingo zaio.

Garrantzitsua da argi eta garbi edukitzea zein alorretan mugitzen garen, era horretan, ezarriko diren jarraibide teorikoek gure esku-hartzearen xede izango diren benetako beharrei erantzun diezaieten. Horregatik, diseinatuko diren jarduerak hurbileko testuinguruan zein eskala handian izan beharko dute eragina, errealistak izan daitezkeen ala ez zehazteko, hala badagokio.

Gaur egun, informazio-bonbardaketa etengabea da, eta espazio laburra betetzen du gure egunerokoan. Hori dela eta, jendearengan eragina izan dezaketen ekintzak aukeratzen eta beroriek erakargarriak eta eraginkorrak egiten jakin beharko dugu, ohituretan dituzten ondorioak, mehatxu gisa ikusi ordez, hezigarriak izateko, eta ekimen pertsonal gisa hartzeko.

«Etxea» ingurune gisa aukeratzeak badu bere arrazoia. Izan ere, lanaren banaketa sexuala izenekoaren abiapuntua da; eta alderdi horrek berebiziko garrantzia du ulertzeko zertan datzan, berez, bateko, erreproduzio-lana (historikoki, etxeko esparruan emakumeek gauzatutako funtzioekin lotutako guztia da, behin eta berriz gutxietsi direnak eta produkzio-lan gisa hartu ez direnak, ezpada familia-erantzukizuna –inposatua eta generikoki hala onartua– gain hartzearen ondorioztat ulertu), eta, besteko, produkzio-lana (espazio horretatik kanpo egiten den zeregina da, eta kanpoko eremuarekin, ordainsariekin lotzearen ondorioz, badirudi berau gauzatzen duena aberastu egiten dela, mantenua eta estimua dituela).

Marka dezagun jarrera-aldaketa: etxean egiten den lanaren kantitatea kanpoan egindakoaren adina edo handiagoa da, itxuraz ez ditu kanpokoaren abantaila ekonomikoak, ez eta errealizazio pertsonal eta ekonomikoarekin lotutakoak ere, eta, azkenik, urrapenak biltzen ditu bere baitan, maila psikologikoan ere, oro har bizitzako beste atal batzuetara hedatzen direnak.

Beraz, horren inguruko komunikazio- eta sentsibilizazio-ekintzen diseinu, antolaketa eta planteamenduak adierazi eta azpimarratu behar dute esparru horretan eta bertan adierazten diren gainerakoetan guztion erantzunkidetasunak duen garrantzia.

Jarduera orok, eta, noski, hezkuntzarekin lotutakoa ez da salbuespena, baloratu behar ditu berau martxan jartzeko prozesua, helburuen eraginkortasuna, xedeen lorpena, ekintzen eragina, eta abar. Zergatik ez proposatu ikasgela esperientzien laborategi bihurtzea, berdintasunezko erantzunkidetasuna gain hartzea eragiteko eta errealitate zabalago batera helarazi ahal izateko?

Kalitate-eredu bat ezar genezake, lehenengo fase ez ezik –informazioa bildu eta ezaugarritzea–, ereduaren inguruko prestakuntza, aplikazio eta ikuskapena ere barne hartuko lituzkeena. Halaxe, bizitakoa etorkizuneko egoeretan aplikatu ahalko genuke, zikloko eta ikasleen bizitzako espazioan eta denboran.

Hemen ere, lantzen dugunaren koherentzia lantzen den moduarekin lotu nahi dugu, bai eta ikusi ere zenbateraino sinesten dugun jorratzen dugunaren edukia eta zenbateraino dagoen gure esku praktikara eramatea.

2) Alderdi metodologikoak

Aurreko atalean adierazi bezala, koherentzia izango da irakatsi eta ikasteko prozesua definituko duena. Planteatuko diren ekintzak eraginkorrak izatea eta ikasleen artean kontzientzia ez-sexista sustatzea nahi bada, ostean edozein jardun-esparrutan benetako sustapen-eragile izan daitezten, bakoitzak planteatzen, azaltzen eta eskaintzen duena «sinestetik» hasi beharko gara.

Are gehiago, garrantzitsu-garrantzitsua da taldea/ikasgela osatzen duten pertsonak hezkuntza-proposamenetan aitzindari-rolak hartzen jakitea eta ekintza-ildoak, norberarenak zein besteenak, objektibotasunez landu ahal izatea.

Halaber, komenigarria litzateke ikasleek porrot eta garaipen posibleak ikuspegi bikoitzetik bizitzea, hots, lan pertsonalaren eta taldekoaren emaitza gisa, eta biak beharrezkoak direla jabetuta (porrotaren bidez, gauzei beste ikuspegi batetik aurre egingo diegu, eta bide berriak bilatuko ditugu, ohikotasunean erortzea saihestuz; aldiz, garaipenek gure motibazioa eta jardun-modu optimoen hedapena bultzatuko dute).

Baliteke sortzen diren ideiak eta proposamenak bere osotasunean ezin aurrera eramatea, baina etorkizuneko lanbide-jardunetarako baliabide gisa balio dezakete.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Esku-hartzeko egoera definitzea, genero-ikuspegitik.
 - Ikasle bakoitzak bere iritziz berez femeninoak eta maskulinoak diren rolak definitzea talde handian, eta eskema horien zergatiak aztertzea.
 - Ikasleek beren inguruan dituzten pertsonen buruzko ikerketa egitea (behaketa eginez, aktiboki galdetuta...), ikusteko zer-nolako rolak hartzen dituzten euren sexuari berez dagozkionak bezala, zein den horren arrazoia eta horrek dakartzan autonomia versus mendekotasuna.
 - *Role-playing*ak egitea, zeinetan ikasleek beren burua identifikatzen ez duten rolak interpretatuko baitituzte.
 - Pertsonak gonbidatzea, bai genero-berdintasunaren sustapenaren esparrukoak zein beste batzuetakoak, ikasleekin elkarrekintzan aritzeko eta esperientziak trukatzeko.
- ✓ Genero-berdintasun eraginkorraren inguruko informazio- eta sentsibilizazio-jarduerak diseinatu, antolatu eta aplikatzea, esku-hartzea gerta daitekeen esparru guztietan:
 - Informatikako tresnak bilatzea edota ezagunak diren programak erabiltzea, fase bakoitzean (diseinua, antolaketa eta aplikazioa) lagungarri izango diren baliabideak edukitze aldera.
 - Ikasleek planteatutako hainbat sentsibilizazio-jardun mota praktikara eramatea, euren hurbileko ingurunean.
 - Aldian-aldean eztabaidak programatzea, ikasleek bere egiteko orokorrean biztanlerian aurkitutako iritziak, eta, ostean, edozein pertsonaren lekuan jartzeko eta, ulermenean oinarrituta, ikas dezaten baliabideak birplanteatzen, zereginak eta denborak banatzen, eta abar.
 - Informatika-dossier bat diseinatzea, ikasturtean zehar sortuz joango diren adierazleak, teknikak, baliabideak, programak eta norabideak jasotzeko; horiek, besteak beste, trukatu eta hodei digitalera igo ahalko dira, guztiok eskuragarri izan ditzaten.

- ✓ Aurrera eramandako esku-hartzearen jarduerak gainbegiratu eta baloratzea:
 - Ikasturtean zehar, nork bere inguruan praktikan jarritako sentsibilizazio-ekintzen segimendua egitea, eta emaitzen ondorioak ateratzea, positiboak zein negatiboak, aztertuta zergatik batzuk eraginkorrak izan diren eta beste batzuk ez.
 - Egindako lana eta ateratako ondorio praktikoak ikastetxe guztiari aurkeztea.
 - Ikasleak adoretzea, norberaren zein besteen ekarpenak baloratu ditzaten, kritika eraikitzaileak eginda.
 - Alderdi batzuk bete ote diren egiaztatzea:
 - Sustatu eta lortu al da emakumeen benetako parte-hartzea? Proportzionatua izan al da emakumeen eta gizonen parte-hartze kuantitatiboa eta kualitatiboa?
 - Zalantzan jarri al dira gizartean ezagutza zientifiko edo egia absolutu gisa hartzen diren «egia subjektiboak»?
 - Jarduerak aldaketaren bat eragin al du partaideen artean (balioetan, jarreretan edota portaeretan)?
 - Ikusarazi al da emakumeen eta gizonen lana, produkzio- zein erreproduktzio-esparruan?
 - Ikusarazi al dira gizonen eta emakumeen arteko desberdintasuna ageri den forma berriak?
 - Landu al dira emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko forma eta estrategia berriak, eta egokitu al dira estrategia horiek jardueraren xede ziren pertsonen ezaugarriei?



9. lanbide-modulua

EMAKUMEEN GIZARTE-MAILAKO PARTE-HARTZEA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Emakumeen gizarte-mailako parte-hartzea
Kodea:	1405
Heziketa-zikloa:	Genero-berdintasuna sustatzea
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	120 ordu
Kurtsoa:	2
Kreditu kop.:	7
Irakasleen espezialitatea:	Gizarte arloko esku-hartzea (Bigarren Hezkuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Konpetentzia-atal honi lotuta dago: UC1454_3: Emakumeen parte-hartzea eta sare egonkorren sorrera bultzatzea, genero-ikuspegia baliatuta, gizartean jarrerak aldatzen eta emakumeak ahalduntzen lagunduko dutenak.
Helburu orokorrak:	1 / 2 / 4 / 5 / 6 / 7 / 8 / 9 / 16

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Pertsonen gizarte-mailako parte-hartzea ezaugarritzen du, eta generoarekin eta bizitzako esparru guztiekin erlazionatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- Pertsonen gizartean parte hartzeko mota eta maila posibleak ezaugarritu ditu.
- Ikerketa-protokoloak aplikatu ditu, emakumeek bizitzako esparru guztietan duten partaidetza-maila aztertzeko.
- Informazio-iturriak aukeratu ditu, pertsonen bizitzako esparruen arabera.
- Datuak hainbat informazio-iturritatik biltzeko tresnak landu ditu.
- Emakumeek bizitzako esparru guztietan duten parte-hartzeari buruzko datuak bildu ditu.
- Partaidetza-datuak sexuen arabera sailkatu eta baloratu ditu.
- Genero-arrakala lortutako datuetatik abiatuta identifikatu du.
- Pertsonen gizartean parte hartzeko mota eta mailen eragina baloratu du.

2. Emakumeek esparru publikoan duten parte-hartzea sustatzeko estrategiak diseinatzen ditu, eta euren beharrei erantzuten dieten antolaketa-egiturekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Emakumeek esparru publikoan parte hartzeko dituzten beharrak eta eskaerak identifikatu ditu.
- b) Emakumeek dituzten partaidetza-eskaerei erantzuna emateko sareak eta antolaketa-egiturak identifikatu ditu.
- c) Xede diren herritarrek esparru publikoan parte hartzeko dituzten ereduak beharrak horiei erantzuten dieten antolaketa-egiturekin lotzen ditu.
- d) Esku-hartzearen ingurune eragileekin harremanetan jartzeko eta harreman hori mantentzeko estrategiak eta komunikazio-bideak ezarri ditu.
- e) Emakumeek esparru publikoan parte hartzea ahalbidetzen duten egiturak sortzeko eta sendotzeko prozesuak ezaugarritu ditu.
- f) Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabili ditu, esku-hartzearen ingurune batean dauden sareak sortu, bultzatu edo sendotzeko.
- g) Topaguneak zehaztu ditu, inplikaturako eragileen interesetatik eta eskura dauden baliabideetatik abiatuta.

3. Emakumeen ahalduntzea sustatzeko estrategiak diseinatzen ditu, testuingurua eta esku-hartze proiektua aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Desberdintasun-egoerak identifikatu ditu emakumeek erabakiak hartzeko prozesuetan.
- b) Emakumeen ahalduntzea laguntzen duten zerbitzuak, egiturak eta antolaketak identifikatu ditu.
- c) Genero-*mainstreaming*ean oinarritutako estrategiak identifikatu ditu.
- d) Hainbat egoeratan berdintasuna zailtzen duten oztopo ikusezinak identifikatu ditu.
- e) Emakumeak ahalduntzeko oztopo ikusezinak apurtzea eta jardunbide egokiak trukatea xede duten ekintzak ezarri ditu.
- f) Erabakiak hartzeko prozesuetan erantzunkidetasuna lagunduko duen jarrera-aldaketa sustatzeko jardunak zehaztu ditu.
- g) Sentsibilizazio-ekintzak antolatu ditu, aintzat hartuta xede duten gizarte-sektorearen ezaugarriak.
- h) Erabakiak hartzeko esparruetan emakumeen parte-hartzeak duen garrantzia baloratu du, desberdintasun-egoerak identifikatze aldera.

4. Talde-prozesuetan esku hartzeko estrategiak garatzen ditu, gatazkak genero-ikuspegitik kudeatzeko teknikak aukeratuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Taldeak dinamizatzeko estrategiak planteatu ditu, interes pertsonalak eta taldekoak eta helburu berriak bilatzeko aukera ematen dutenak.
- b) Talde-teknikak hautatu ditu, norbanakoaren eta taldearen ezaugarriei erreparatuta.
- c) Talde-prozesuak genero-ikuspegitik ezarri ditu.
- d) Gatazkak genero-ikuspegitik identifikatu eta kudeatzeko teknikak aplikatu ditu.
- e) Genero-ikuspegia barne hartzen duten talde-prozesuetan teknikariak duen zeregina zehaztu du.
- f) Esku-hartze estrategiak eta teknikak aukeratzeko orduan, norbanakoaren eta taldearen ezaugarriak aintzat hartzeak duen garrantzia baloratu du.
- g) Genero-indarkeria barne hartzen duten eta bestelako jardunbideak dituzten talde-prozesuen arteko diferentziak ezarri ditu.
- h) Taldeen bilakaera-faseak ezaugarritu ditu, eta lanbide-jarduerarekin erlazionatu ditu.

5. Aholkularitza- eta laguntza-prozesuak garatzen ditu, eta emakumeen eskaerak zein beharrak eta eskura dauden baliabideak eta egiturak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Informazioa banakako moduan biltzeko teknikak aplikatu ditu.
- Emakumeek gizartean parte hartzeko eta ahalduentzeko dituzten beharrak eta eskaerak identifikatu ditu.
- Esku-hartze talde batean alde zuzenetik diseinatutako jardun-planak eta -estrategiak interpretatu ditu.
- Gizartean parte hartzeko eta ahalduentzeko esparruetan emakumeak lagundu eta aholkatzeko jardun-protokoloak aplikatu ditu.
- Ereduzko eskaerei erantzuten zaien entzute aktiboko teknikak aplikatu ditu.
- Laguntza- eta aholkularitza-jardunak erabiltzaileen beharretara egokitu ditu.
- Laguntza- eta aholkularitza-ekintzak aplikatu ditu, esku-hartzearen banakako edo taldeko izaerara egokituta.
- Laguntza- eta aholkularitza-prozesuetan, teknikariaren gizarte-trebetasunak duten garrantzia baloratu du.
- Laguntza eta aholkularitza egiteko estrategiak aplikatu ditu, betiere ahalduentze-ikuspegia oinarri, lagundu eta aholkatutako pertsona protagonista hartuta eta mendekotasun-egoeran egotea saihestuta.
- Laguntza- eta aholkularitza-espazioak sortzeko ariketa praktikoak egin ditu, segurtasuna eta konfidentzialtasuna erabat bermatuta.

6. Emakumeen parte-hartzea sustatzeko esku-hartzeak ebaluatzeko jarduerak egiten ditu, horien atzeraelikadura ahalbidetuko duten estrategiak, teknikak eta tresnak hautatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- Ebaluazio-tresnak eta -estrategiak hautatu ditu.
- Emakumeen partaidetza-prozesuen jarraipena egiteko tresnak landu ditu.
- Ebaluazioa biltzeko eta aztertzeko teknikak eta tresnak eragileen errealitatera egokitu ditu.
- Ebaluazioaren emaitzak inplikaturako taldekide eta eragile guztiei komunikatzeko protokoloak ezarri ditu.
- Erabilitako komunikazio-estrategien eta -tresnen erabilgarritasuna egiaztatzeko irizpideak eta adierazleak ezarri ditu.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabili ditu ebaluazio-txostenak eta memoriak lantzeko, aurkezteko eta hedatzeko.
- Parte-hartzearen kalitatea kudeatzeko prozedura orokorrak ezarri ditu.

c) Oinarrizko edukiak:

1. PERTSONEN GIZARTE-MAILAKO PARTE-HARTZEA EZAUGARRITZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte-mailako parte-hartzearen datuak lortu, interpretatu eta aztertzea. - Hainbat esparrutan genero-arrakala identifikatzea. - Sexuaren arabera sailkatutako gizarte-mailako parte-hartzeari buruzko datuak lotzea esparru guztietan (soziala, lanekoa, politikoa, sindikala, kulturala, elkarteak...) eta partaidetza-maila guztietan (parte-hartzea, afiliazioa, ordezkaritza, sustapena, kudeaketa, zuzendaritza, kontsulta, erabakiak hartzea...). - Datuak genero-ikuspegitik aztertzea: genero-aurreiritzi, -rol eta -
-----------------------	--

	estereotipoekin lotutako kausa posibleak eta horiek emakumeengan eta gizonengan duten eragina.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte-mailako parte-hartzea eta generoa. - Emakumeen zeregina duela gutxiko historian: <ul style="list-style-type: none"> • Feminismo ilustratua. • Sufragismoa. • Feminismoa II. Mundu Gerraren ostean. • Feminismo garaikideak: feminismoa eta hirurogeita hamarreko hamarkada, feminismo liberala, erradikala eta sozialismoa. • Feminismo berriak: diferentzien feminismoa, feminismo instituzionala, ekofeminismoa, ziberfeminismoa. - Gizarteratze bereiziko prozesuak eta genero-eragina. - Partaidetza-esparruak. - Partaidetza motak eta gizarte-eraginak. - Gizonen eta emakumeen interesak eta beharrak; horien eragina partaidetza-prozesuetako norberaren inplikazioan. - Partaidetza eta demokrazia, partaidetza eta emakumeen eta gizonen herritartasun osoa.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte-mailako parte-hartzeak pertsonen garapen osorako eta mota guztietako pertsona arteko harremanetarako duen garrantzia balioestea. - Gizarte-mailako parte-hartzeak dituen ondorioak baloratzea. - Norberaren gizarte-mailako parte-hartzearen prozesuaz arduratzea. - Errespetua eta jarrera proaktiboa, pertsona eta talde guztien benetako parte hartzeko eskubideari dagokionez, sexu-bereizketarik egin gabe. - Emakumeen eta gizonen parte-hartzea baloratzea, kontuan hartuta beren ekarpenen erabilgarritasuna, egokitasuna, originaltasuna, eta abar, eta ez sexua.

2. EMAKUMEEK ESPARRU PUBLIKOAN DUTEN GIZARTE-MAILAKO PARTE-HARTZEA SUSTATZEKO ESTRATEGIAK DISEINATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Inguruneko eragileekin harremanak ezartzeko eta harreman horiek mantentzeko estrategiak eta baliabideak identifikatzea. - Parte-hartzea sustatzeko estrategiak aplikatzea: <ul style="list-style-type: none"> • Ideiak eta iritziak trukatzeko teknikak: solasaldi dialogikoak, eztabaida gidatua, eztabaida librea talde txikitik, eztabaida irekia film zein abesti baten ostean... • Parte-hartzea sustatzeko teknikak: Philips 66, txutxu-mutxuak... • Analsi-ahalmena sustatzeko teknikak: kasuaren metodoa, gertakari erreal edo ustezko baten gertakaria-azterketa prozesua. • Egoera bat bizipenen bidez ulertzeko teknikak: Zapalduaren antzerkia, <i>role-playing</i>. - Topagune-espazioak sortzea: <ul style="list-style-type: none"> • Inguruneko eragileen interesak aztertzea. • Partaidetza-metodologia. - Parte-hartzearen esparruak eta gaiak dibertsifikatzea, bizitzako esparru guztiei eta emakumeen zein gizonen beharrei eta interesei erantzuna emateko.
----------------	---

kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Emakumeen beharrak eta eskaerak gizarte-mailako parte-hartzearen esparruan. - Lankidetzaz-egiturak. - Emakumeen gizarte-mailako parte-hartzea artetik abiatuta: Guerrilla girls, Beligerarte, No habrá paz sin las mujeres... - Lankidetzaz mota eta modu formalak eta informalak: erakundeak, elkarteak, taldeak, sareak, kolektiboak... - Emakumeen parte-hartzea esparru publikoan erabakiak hartzeko prozesuetan: mekanismoak eta baliabideak, aukerak eta zailtasunak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Emakumeek esparru publikoan gizarte-mailako parte-hartzea izateak duen garrantzia balioestea. - Gizarte-komunikabideetan hizkuntzaren tratamendu ez-sexista baliatzeak duen garrantziaren inguruan sentsibilizatzea. - Jarrera kritikoa eta analitikoa genero-rol eta -estereotipoen transmisioan, bai eta emakumeen gizarte-mailako parte-hartzean duten eraginari dagokionez ere.

3. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA SUSTATZEKO ESTRATEGIAK DISEINATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Banakako zein taldeko erabakiak hartzea sustatzeko estrategiak aplikatzea. - Konpetentzia emozionalak eta gatazkak ebaztekoak garatzea, genero-ikuspegitik. - Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunezko sinesmenak, jarrerak eta portaerak identifikatzea. - Emakumeen gizarte-mailako parte-hartzea zailtzen duten genero-muga pertsonalak eta sozialak aztertzea, bai beren ingurunean adierazten direnak bai genero-estereotipo eta -rolekin batera barneratuta dauzkagunak. - Ariketa praktikoak egitea, autonomia pertsonal fisikoa, soziala, kulturala eta abar bultzatzeko estrategiak aplikatuta.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Sexuan/generoan oinarritutako diskriminazioa eta desberdintasuna. - Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunezko sinesmenak, jarrerak eta portaerak. - Kohlberg-en justiziaren etika eta Gilligan-en zainketaren etika. - Emakumeen berdintasun eraginkorrerako eta eurak ahalduentzako politikak. - Dokumentuak. Berdintasun-politiken oinarritzko arauak. - Esparru estrategikoa: ekintza positiborako neurriak, generoa aintzat hartzea eta emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerako planak. - Emakumeen ahalduentzea laguntzen duten zerbitzuak, egiturak eta antolaketak. - Erabakiak hartzea eta generoa. Berdintasunerako oztopo ikusezinak: kristalezko sabaia, zoru itsaskorra eta belusezko ghettoa, besteak beste. - Jarrera-aldaketa. Aldaketarako gizarte-prozesuak. - Banakako zein taldeko erabakiak hartzea sustatzeko estrategiak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Autobehaketa baloratzea, sinesmenak, jarrerak eta portaerak aztertzeke abiapuntu gisa. - Pentsamenduak jarrera-aldaketan duen garrantziaz jabetzea.

	<ul style="list-style-type: none"> - Ekintza baloratzea banakako eta gizarte-mailako aldaketarako motor gisa. - Garapen moralean gizonen eta emakumeen artean dauden diferentziak ezagutzea eta aintzatestea. - Emakumeen autonomia, ekimen pertsonala eta hartzen dituzten erabakiak baloratzea eta aintzatestea.
--	---

4. TALDE PROZESUETAN ESKU HARTZEKO ESTRATEGIAK GARATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Talde-prozesuak genero-ikuspegitik aztertzea. - Talde-diagnostikorako teknikak genero-ikuspegitik aplikatzea: behaketa eta elkarrizketa, besteak beste. - Talde-dinamikak eta talde-lana egiteko teknikak lantzea eta aplikatzea. - Lidergo-estilo femeninoen (enpatia, elkarrizketa, norabide-aniztasuna...) eta maskulinoen (segurtasuna, asertibitatea, norabide bakarra...) ezaugarriak eta gizarte-trebetasunak identifikatzea. - Ikasle bakoitzak bere lidergo-estiloa identifikatzeko simulazioak egitea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Nortasun partekatua. - Lidergoa: definizioa, ezaugarriak eta tipologia. - Lidergo motak. Ezaugarriak, trebetasunak eta baliabideak. - Helburuak identifikatzea. - Talde-dinamiketarako eta gatazkak ebazteko teknikak. - Taldearen bizitzaren faseak. - Gatazken kudeaketa genero-ikuspegitik.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Talde-lanak eta koordinazioak duten garrantzia balioestea. - Talde-lanetan elkartasunez parte hartzea eta ahalegina taldeak eskatzen duenera egokitzea. - Gatazka eta horren ebazpena talde-dinamikei berezkoak zaizkien elementu gisa hartzea. - Arazoak eta gatazkak ebazteko garaian errespetuak eta tolerantziak duten zeregina baloratzea. - Lidergo partekatuaren eta indarkeriazkoa ez den gatazken ebazpenaren inguruko interesa.

5. EMAKUMEAK LAGUNDU ETA AHOLKATZEKO PROZESUAK GARATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Informazioa lortzea laguntza- eta aholkularitza-prozesuetan: datuak banan-banan biltzeko estrategiak, teknikak eta tresnak. - Gizarte-trebetasunak aplikatzea laguntza- eta aholkularitza-prozesuetan. Entzute aktiboko teknikak. - Parte-hartzearekin eta erabakiak hartzearekin lotutako eskaerak identifikatzea eta interpretatzea. - Laguntza- eta aholkularitza-protokoloak aztertzea. - Banakako eta taldeko laguntza- eta aholkularitza-prozesuak egitea, simulazio-teknikak baliatuta. - Laguntza- eta aholkularitza-prozesua eskatzaileen eskaera, behar, interes, erabaki eta erritmo pertsonaletara egokitzea. - Emakumeen garapen osoa sustatzea, beren banakako eta gizarteko autonomia bultzatzeko. - Lagundutako eta aholkatutako emakumeekin segurtasun eta konfidentziasunezko espazioa sortzea, bai eta eurei protagonismo
-----------------------	---

	osoa ematea ere.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Laguntza- eta aholkularitza-protokoloak. - Parte hartzeko eta erabakiak hartzeko laguntza eta aholkularitza. - Emakumeen banakako eta gizarteko autonomia. - Laguntzea, ahalduntze-ikuspegitik eta mendekotasunik sortu gabe.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Laguntza-funtzioan enpatia eta entzute aktiboaren gaitasuna baloratzea. - Pertsonarteko harremanetako esparruetan komunikazio ez-sexista erabiltzearen garrantzia balioestea. - Hizkuntza-informazio ez-sexista fidagarria eta baliozkoa izatearen beharra balioestea. - Bizitzako esparru guztietan beren autonomia bultzatzeko garapen pertsonal eta sozialaren inguruko interesa. - Hartutako erabaki autonomoak eta egindako ahalduntze-ibilbide pertsonala baloratzea, erabakion emaitza zehaztetik harantz.

6. GIZARTE PROIEKTUAK EBALUATZEKO JARDUERAK EGITEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte-esparruko txostenak eta memoriak lantzea: gizarte-eragileetara egokitzea. - Ebaluazio-adierazleak hautatzea. - Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko, esku-hartzeen ebaluazioa eta jarraipena egitea. - Gizarte-proiektuen genero-eragina ebaluatzea: emakume eta gizonengan eta jardun-esparruko genero-arrakalean duen eragina.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Parte hartzeko eta erabakiak hartzeko prozesuak ebaluatzea. Tresnak, irizpideak eta adierazleak. - Parte-hartzea ebaluatzea. Teknikak eta tresnak. Eragileetara egokitzea. - Komunikazio-estrategiak eta -tresnak ebaluatzea. - Kalitatearen kudeaketa emakumeen gizarte-mailako parte-hartzearen esparruan. - Proiektuen jardun-esparruan dauden genero-arrakalen inguruko genero-adierazleak lantzea.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ebaluazioa kalitate-elementu gisa baloratzea, gizarte-proiektuak aztertu eta jarraitzeko orduan. - Parte-hartzearen ebaluazioan, talde-lanak eta koordinazioak duten garrantzia aintzat hartzea. - Informazioa biltzearen alderdi etikoak balioestea. - Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna baloratzea, parte-hartze demokratikoaren eta herritartasun osoaren funtsezko faktore gisa.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Moduluaren abiapuntu gisa –emakumeen gizarte-mailako parte-hartzearen berezitasunei heldu aurretik– orokorragoa den lehenengo blokea («**Pertsonen gizarte-mailako parte-hartzea ezaugarritzea**») eta laugarrena («**Talde-prozesuetan esku hartzeko estrategiak garatzea**») landuko dira.

Kontzeptuzko eta prozedurazko oinarririk orokorrenak ezarri ostean, moduluaren espezifikotasunetan sartuko gara, eta ikasleek beste modulu batzuetan ikasitako ezagutzak bereganatuta dauzkatela jakintzat emango dugu; era horretan, sakonagoa eta espezifikagoa izan ahalko da ikaskuntza. Bloke tematiko hauek landuko ditugu: bigarrena («**Emakumeek esparru publikoan duten gizarte-mailako parte-hartzea sustatzeko estrategiak diseinatzea**») eta hirugarrena («**Emakumeen ahalduntzea sustatzeko estrategiak garatzea**»).

Bosgarren blokea («**Emakumeak lagundu eta aholkatzeko prozesuak garatzea**») jorratzeko prozesuan, nolabaiteko lasaitasuna eta heltze-maila beharko dituzte ikasleek, bai maila pertsonalean bai ikaskuntzarekiko; era horretan, aholkatu eta laguntzeko prozesua ez hutsaltzeko bereganatu behar diren edukiak, batez ere jarrerazkoak, helarazi ahalko dira.

Azkenik, azken blokeari helduko diogu, alegia, seigarrenari («**Gizarte-proiektuak ebaluatzeko jarduerak egitea**»), eta hor ere oinarri metodologikoak dagoeneko ikasita daudela joko dugu.

2) Alderdi metodologikoak

Lanbide-modulu honek funtzio hauek gauzatzeko beharrezkoa den prestakuntza hartzen du baitan: esku-hartzea antolatzea, esku hartu/gauzatzea, ebaluatzea, koordinazio/bitartekaritza-lana egitea, kalitatea kudeatzea.

Antolaketa-funtzioak, besteak beste, alderdi hauek barne hartzen ditu:

- Beharrak hautematea.
- Programazioa.
- Esku-hartzea kudeatzea, koordinatzea eta gainbegiratzea.
- Txostenak egitea.

Parte hartu/gauzatzeko funtzioak, besteak beste, alderdi hauek barne hartzen ditu:

- Informazioa biltzea.
- Jarduna antolatu eta garatzea.
- Jarduerak kontrolatzea, jarraitzea eta ebaluatzea.
- Lotutako dokumentazioa lantzea.
- Erabiltzaileei eta bestelakoei informatzea eta komunikatzea.

Ebaluazio-funtzioak esku-hartzea orokorrean kontrolatzeko eta jarraitzeko diseinatutako prozeduren ezarpenari erreferentzia egiten dio.

Koordinazio/bitartekaritzako funtzioak, besteak beste, alderdi hauek barne hartzen ditu:

- Atzeraelikadura ezartzea.
- Gatazkak kudeatzea.

Kalitatea kudeatzeko funtzioak, besteak beste, alderdi hauek barne hartzen ditu:

- Zerbitzua baloratzea.
- Prozesua kontrolatzea.

Moduluaren helburuak lortzeko aukera emango duten irakatsi eta ikasteko prozesuan jarduteko ildoek honako hauek izango dituzte aztergai:

- Emakumeek bizitzako hainbat esparrutan parte hartzeko tresnak landu eta aplikatzea. Horrek sexuen arabera sailkatutako datuak lortzea eta horiek genero-ikuspegitik aztertzea eskatzen du.
- Gizartean parte hartzeko eta ahalduentzeko esparruetan emakumeak lagundu eta aholkatzeko –mendekotasunik sortu gabe– jardun-protokoloak aztertzea.
- Entzute aktiboko teknikak aplikatzea.
- Datuak babesteko protokoloak jarraitzea.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea, informazioa lortu, kudeatu eta komunikatzeko, bai eta hainbat eragilerekin harremanak ezartzeko ere.

Gure abiapuntua partaide bakoitzaren protagonismoa sustatuko duen metodologia aktiboa eta parte-hartzailea izango da. Gauzak horrela, ikaskuntza dialogikoaren printzipioak proposatzen ditugu: berdintasunezko elkarrizketa, adimen kulturala, eta ingurunearen eraldaketa parte-hartze aktiboaren bidez; horretan, emakumeak aldaketa-subjektu gisa hartuko ditugu, eta ez aldatu beharreko subjektu moduan.

Ikaskuntza-prozesua partaide bakoitzaren eraikuntza intelektualetik eta bizipen-eraikuntzatik abiatuta egingo da.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Gazteen informazio-beharrak hautematea ahalbidetzen duten tresnak lantzea eta aplikatzea.
- ✓ Emakumeen gizarte-mailako parte-hartzea ezaugarritzea:
 - Hainbat testuren irakurketa dialogikoa (artikuluak, liburuetak kapituluak...).
 - Emakumeen eta gizonen gizarte-mailako parte-hartzeari buruzko datuak aztertzea partaidetza-maila eta -esparru guztietan.
 - Emakumeek gizarte-dinamiketan eta balioen transmisioan duten zereginarekin lotutako gaiak aztertzea eta horien azalpen kritikoak egitea.
 - Gizonen eta emakumeen interes eta beharretan dauden diferentziei buruzko testak, inkestak eta elkarrizketak egitea, partaidetza-prozesuetan norberaren inplikazioan duten eragina aztertuta.
 - Informazioa bilatzea Interneten, interesen eta partaidetza-prozesuetan norberaren inplikazioan horiek duten eraginaren arteko loturaren inguruan.
 - Gogoeten emaitzak informatika-euskarrien bidez adieraztea.
 - Ikastetxean erabakiak hartzearen inguruko partaidetza-prozesuak egitea, besteak beste ikasle-, irakasle- eta familia-mailan, esaterako, proiektu edo aurkezpenak definitu eta diseinatzeko, materialak lantzeko eta ospakizunak antolatzeko.
- ✓ Emakumeen gizarte-mailako parte-hartzea sustatzeko estrategiak diseinatzea:
 - Taldeen funtzionamenduak gizarteratzean, garapen pertsonalean eta lanaren eraginkortasunean duen garrantziaz hausnartzea.

- Komunikazio-estrategiak eta teknikak aplikatzea, horiek testuinguru ezberdinetara egokituta eta aintzat hartuta transmitituko diren edukiak, xedea eta hartzailen ezaugarriak, komunikazio-prozesuen eraginkortasuna ziurtatzeko.
 - Bisita egitea lanean –erabat edo neurri batean– emakumeen parte-hartzearen bultzada kontuan hartzen duten zentroetara.
 - Arlo horretan lan egiten duten profesionali elkarrizketak egitea.
 - Emakumeen parte-hartze handia eta txikia duten partaidetza-prozesu, esparru, elkarte eta abarren konparazio-azterketa egitea: landutako gaiak eta hartutako erabakiak, deialdia egiteko modua, bileren ordutegiak eta antolaketa, tokiak eta joan-etorriak, taldeak eta funtzionamendua, lan- eta lidergo-estiloa, kostu ekonomikoak zein bestelakoak, eta abar.
 - Elkarrizketak egitea hainbat emakume-talderi, gai hauen inguruan, adibidez: beren interes eta beharrak, parte hartu eta eragin nahiko luketen gai eta erabakiak, hori egiteko ikusten dituzten zailtasunak, parte hartu ala ez erabakitzen duten arrazoiak.
- ✓ Emakumeen ahalduntzea sustatzeko estrategiak garatzea:
- Jardun-ingurune eta erabiltzaileen ezaugarrien inguruan ikertzea, genero-berdintasuna sustatzeko lanbide-esparruan.
 - Elkarrizketak gizarte eta hezkuntzako jardunaren alorreko profesionali, hainbat organismo eta erakundetakoak: hirugarren sektoreko enpresak, GKEak, udalak, foru-aldundiak, Eusko Jaurlaritza.
 - Talde-dinamikak, zeinetan, partaideek nahiz irakasleek proposatutako egoeretatik abiatuta, emakumeen ahalduntzea eta harremanetan berdintasuna ezartzea eragozten duten oztopoak ikusaraziko baitira.
 - Genero-berdintasunari arreta emateko jardunbide egokien dokumentu-bilaketa.
 - Zapalduaren antzerkia, zapalkuntza- eta biktimizazio-prozesuen inguruan kontzientziatzeko eta horiek gainditzeko tresna gisa.
 - Autonomia pertsonala eta ahalduntzea garatzeko ariketa praktikoak egitea: bakarrik paseatzea, zinemara joatea, taberna batean zerbait hartzea, hitzaldi batera joatea, parke batean edota hondartzan esertzea, erakusketa bat bisitatzea, izkina batean itxarotea, etxean egotea, kalean kirola egitea, autobusa edota metroa hartzea...
 - Ondoren, besteekin partekatzea izandako esperientziak, beste pertsona batzuekiko elkarreraginak, sentsazioak, zailtasunak, betiere oinarritzat hartuta genero-ikuspegia eta genero-estereotipoak eta -rolak. Egoera horietan emakumeek dituzten mugak identifikatzea (benetakoak zein sinbolikoak, inguruneak zein pertsonalak), bai eta horiei aurre egiteko estrategia posibleak ere.
- ✓ Talde-prozesuetan esku hartzeko estrategiak garatzea:
- Talde-dinamizazioko teknikak aplikatzea, taldeen bilakaera-fasearen arabera.
 - Indarkeriazkoa ez den komunikazioaren printzipioak aplikatzea, bai dinamika espezifikotik bai gelako giroa sortzeko garaian.
 - Gizarte-trebetasuneko teknikak aplikatzea: enpatia, elkarrizketa, norabide-aniztasuna, asertibitatea.
 - Ikasle bakoitzak bere lidergo-estiloa identifikatzeko simulazioak.
 - Rol-jokoen bidez gatazkak ebazteko teknikekin saioak egitea.
 - Gelan landutako gaiari buruzko laburpen- eta saiakuntza-lanak, oinarritzat hartuta irakasleak emandako galdetegiak eta gidoiak.
 - Komunikabideetako edukiei buruzko azterketa eta gogoeta egitea, banaka zein taldeka: prentsa digitala, ikus-entzunezko produkzioak, sare sozialak, blogak, webgunea, prentsa idatzia, informazio-liburuxkak, kontsumo-produktuen zein

jostailuen katalogoak, eta abar, betiere genero-nortasunaren eraikuntzarekin eta horren gizarte-esleipenekin, pertsona arteko harremanekin, gatazken ebazpenarekin eta indarkeriaren tratamenduarekin lotuta.

- Erabat nahiz partzialki diseinatutako programak martxan jartzea (irakasleek gainbegiratuta). Horretarako, esku-hartzea zikloa irakasten duten ikastetxeetako ikasleengana bideratzeko aukerak erabili daitezke, bai eta ikastetxea kokatzen den auzoko kultura-etxe, elkarte eta abarretara bideratzekoak ere.
- ✓ Emakumeak lagundu eta aholkatzeko prozesuak garatzea:
- Autobehaketa-lanak, partaideek gizarte-trebetasunetan dituzten gabeziak identifikatu eta horiek hobetzeko.
 - Behaketa-lanak, norberaren eta gainerako taldekideen beharrak, interesak, erabakiak eta erritmoak identifikatzeko.
 - Emakumeen garapen osoa sustatzea, beren banakako eta gizarteko autonomia bultzatzeko.
 - Gizakion garapen oso eta harmonikoa xede, garapen-esparru bakoitzean gizakiok dugun gogobetetze-maila ezagutzeko Maslow-k proposatutako adierazleak aplikatzea.
 - Entzute aktiboaren printzipioak aplikatzea, bai dinamika espezifikoetan bai gelako giroa sortzeko garaian.
 - Benetako laguntza- eta aholkularitza-jardunetan ikasleen artean erabateko errespetua, segurtasuna eta konfidentziasuna egongo diren espazioa sortzeko estrategiak aplikatzea, betiere ahalduntzea sustatzen eta mendekotasuna baztertzen duen ikuspegitik.
 - Inkestak lantzea eta aplikatzea, hautemandako genero-arrakala zehazteko.
 - Gizarte-mailako parte-hartzearen esparruan emakumeek dituzten beharrak identifikatzeko dokumentuak eta inkestak aztertzea.
 - Proiektuak diseinatzea, hautemandako beharretatik abiatuta, emakumeak ahalduntzeko eta beren parte-hartzea sustatzeko jarduerak barne hartuko dituztenak.
 - Lan-testuinguruetan, entzute aktiboko, motibatze, gainbegiratzeko eta komunikatzeko teknikak garatzea eta haiekin esperimintatzea, eta horiek egokitzea, esku-hartzea banakakoa zein taldekoa den kontuan hartuta.
- ✓ Gizarte-proiektuak ebaluatzeko jarduerak egitea:
- Programen dokumentu-azterketa.
 - Sustapen- eta hedapen-kanpainak eta estrategiak diseinatzea, beharrezkoak diren materialak landuta.
 - Ebaluazio-adierazleak bilatzea, kuantitatiboak zein kualitatiboak.
 - Proiektuak emakume eta gizonengan eta proiektuaren esparruko genero-arrakalatan duen eragina ebaluatzea ahalbidetzen duten genero-adierazleak bilatzea.
 - Gizartean parte hartzeko proiektuetan, ebaluazio-faseak topatzea eta bereiztea.
 - Proiektuak ebaluatzeko galdetegiak horiek egingo dituzten eragileetara egokitzea.
 - Proiektuak sustatzeko eta hedatzeko materialak eta teknikak lantzea.

10. lanbide-modulua

BERDINTASUNERAKO GIZARTE-HEZKUNTZAZKO ESKU-HARTZEA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Berdintasunerako gizarte-hezkuntzazko esku-hartzea
Kodea:	1406
Heziketa-zikloa:	Genero-berdintasuna sustatzea
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	132 ordu
Kurtoa:	1
Kreditu kop.:	7
Irakasleen espezialitatea:	Gizarte arloko esku-hartzea (Bigarren Hezkuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Tituluaren profilari lotutako modulua.
Helburu orokorrak:	2 / 4 / 6 / 8 / 15 / 16

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioari lotutako gizarte- eta hezkuntza-jarduna ezaugarritzen du, eta xede diren taldeen ezaugarri psikosozialekin eta jardun-testuinguruekin erlazionatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioan hezkuntza ez-formalak duen zeregina eta garrantzia identifikatu du.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioari lotuta, gizarte- eta hezkuntza-jardunaren oinarri psikopedagogikoak identifikatu ditu.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioari eta baterako hezkuntzari lotuta, gizarte- eta hezkuntza-jarduneko esparruak eta xede diren taldeak identifikatu ditu.
- Esku-hartzearen abiapuntu gisa, esku-hartze taldeen ezaugarri psikosozialak ezarri ditu.
- Genero-indarkeriari lotutako norberaren jarrerez eta sinesmenez jabetzeko teknikak eta tresnak ezaugarritu ditu.
- Inguruneak esku-hartze prozesuan eta emaitzan duen eragina balioetsi du.
- Genero-indarkeriazko egoerak prebenitu edo horiei aurre egiteko orduan, gizarte- eta hezkuntza-jarduneko programen beharra argudiatu du.
- Gizarte- eta hezkuntza-jarduna baloratu du, gizarte-aldaketarako eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-jarrerak garatzeko baliabide gisa.

- i) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako hezkuntza, baterako hezkuntza, emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioari lotutako gizarte- eta hezkuntza-jardun nagusi gisa identifikatu du.

2. Prestakuntza-ekintzak diseinatzen ditu, hezkuntza ez-formalaren estrategiak eta irakatsi eta ikasteko prozesuak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Hezkuntza ez-formalean irakatsi eta ikasteko prozesua definitu du.
- b) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrerako jarrerak garatzeko hezkuntza ez-formalaren garrantzia argudiatu du.
- c) Hainbat talderentzako prestakuntza-jarduerak diseinatu ditu.
- d) Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioari eta baterako hezkuntzari lotuta, hezitzaileak prestatzeko programak eta espazioak diseinatu ditu.
- e) Esku-hartzearen helburuekin bat datozen esku-hartze metodologiak hautatu ditu.
- f) Irakasle-zentroetan, emakumeen aurkako indarkeriari eta baterako hezkuntzari lotutako prestakuntza- eta trebakuntza-jarduera espezifikoak eta jarraituak sustatzearen garrantzia baloratu du.
- g) Esku-hartzean garrantzitsuak diren beste eragile batzuekiko lankidetzabideak eta -estrategiak zehaztu ditu.
- h) Baterako hezkuntzaren ezaugarriak, esparruak eta oinarritzko alderdiak identifikatu ditu, hala nola pertsonaren garapen osoa, autonomia pertsonala, elkar zaintzea eta gizonen eta emakumeen erantzunkidetasuna bizitzako esparru guztietan.

3. Prestakuntza-ekintzak antolatzen ditu, eta esku-hartze taldearen eta testuinguruaren ezaugarrien arabera esku hartzeko baliabideak aukeratzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Gizarte- eta hezkuntza-jardunaren hartzaille izan daitezkeen erakunde eta antolakuntzekin lankidetzaharremanak hasi eta mantentzeko kanalak eta estrategiak ezarri ditu.
- b) Esku-hartze programak aurkezteko tresnak landu ditu.
- c) Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta baterako hezkuntzarako tailerren beharraren inguruan informatu du.
- d) Hartzaille potentzialei informazioa, prestakuntza eta sentsibilizazio-ekintzak eskaintzeko tresnak eta materialak hautatu ditu.
- e) Tresnak eta materialak hartzaileren ezaugarrietara egokitu ditu.
- f) Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko gizarte- eta hezkuntza-jarduneko prozesuetan, informazioaren eta komunikazioaren teknologiek duten garrantzia baloratu du.
- g) Prestakuntza-tailerak sustatu ditu erakunde eta antolakuntzetan, genero-indarkeria prebenitze aldera.

4. Hainbat talderentzako prestakuntza-ekintzak ezartzen ditu, eta beren lanbide-zeregina eta esku hartzeko estrategiak eta jarraibideak testuinguruaren arabera aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Esku-hartzearen helburuekin bat datozen baliabideak eta materialak hautatu ditu.
- b) Prestakuntza-ekintzak garatzeko materialak landu ditu.
- c) Prestakuntza-ekintzak garatzeko giro egokia sortzearen garrantzia baloratu du.

- d) Programaren garapenean sor daitezkeen egoera arazotsuen aurrean jarduteko estrategiak eta jarraibideak praktikan jarri ditu.
- e) Emakumeen aurkako indarkeriaren esparruan lan egiten duten profesionalen prestakuntzan eta trebakuntzan parte hartzeko jardun-estrategiak ezarri ditu.
- f) Jardun-jarraibideak esku-hartzearen esparru bakoitzean teknikariak duen zeregin espezifikora egokitu ditu.
- g) Komunikazio-trebetasunak eta gatazkak kudeatzekoak aplikatu ditu.

5. Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioari lotutako gizarte- eta hezkuntza-jardunak ebaluatzeko jarduerak egiten ditu, eta hezkuntza ez-formalari berez dagozkion elementuak eta tresnak aukeratzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Hezkuntza ez-formalean prestakuntza-ekintzak ebaluatzeko sistemak identifikatu ditu.
- b) Ebaluazio-sistema hautatu du, garatutako prestakuntza-jardueraren arabera.
- c) Prestakuntza-ekintzan parte hartzen duten pertsonen informazioa biltzeko ebaluazio- eta erregistro-protokoloak landu ditu.
- d) Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioari lotuta, gizarte- eta hezkuntza-jarduneko ekintzak ebaluatzeko adierazleak ezarri ditu.
- e) Prestakuntza-ekintzen ebaluazio parte-hartzailea ahalbidetuko duten estrategiak, teknikak eta tresnak hautatu ditu.
- f) Gizarte- eta hezkuntza-jarduna ebaluatzean, datuak aztertzeko estrategiak eta teknikak erabili ditu.
- g) Ebaluazioaren emaitzen erabilera-protokoloak ezarri ditu, etorkizuneko ekintzen kalitatea hobetzera begira.

c) Oinarrizko edukiak:

1. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN PREBENTZIOARI LOTUTAKO GIZARTE ETA HEZKUNTZA JARDUNA EZAUGARRITZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Eredu eta ingurune soziokulturalak aztertzea indarkeriazko jokaerak erakusteko faktore erabakigarri gisa. - Emakumeen aurkako indarkeriarekin zuzen-zuzenean lotutako genero-aurreiritziak, -estereotipoak eta -rolak identifikatzea. - Maskulinitasun-eredu hegemonikoa aztertzea, emakumeen, norberaren eta beste gizon batzuen aurkako indarkeriaren prebentzioari begira. - Genero-indarkeriari lotutako jarrera eta sinesmenak identifikatzea eta horiez jabetzea. - Emakumeen aurkako indarkeriazko kasu guztien atzean dauden eguneroko egiturazko desberdintasunen agerpenak identifikatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizakia, gizarte-produkzioko subjektua. Kulturaren zeregin erabakigarria subjektibotasunaren eraikuntzan. - Garapeneko eta heltze psikosozialeko prozesuak. - «Emakume izatearen» eta «gizon izatearen» nortasunen eraikuntza-prozesua. - Esku-hartze taldeen ezaugarri psikosozialak: haurtzarora, gaztarora, familiak, desgaitasuna duten emakumeak eta beste. - Nortasunaren eraikuntza haurtzarora eta gaztarora. Genero-eragina



	<p>nortasunaren eraikuntzan.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Esku-hartzeko taldeak eta esparruak. - Gizarte-kognizioaren garapena. Gizarte-kategorizazioko prozesuak. Atribuzioa. Rolak eta estereotipoak esleitzea. Nortasun maskulino eta femeninoen gizarteratze berezitua eta uniformatzea. - Gizarte- eta hezkuntza-jarduna, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko. Oinarri psikopedagogikoak. - Emakumeen aurkako indarkeriaren pertzepzioa talde desberdinetan. Desgaitasunen bat duten emakumeen ahultasuna eta arriskuak. - Hezkuntza formala versus hezkuntza ez-formala. Hezkuntza ez-formalaren printzipioak. - Hezkuntza ez-formala, emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioari eta baterako hezkuntzari lotutako gizarte- eta hezkuntza-jardunaren esparru gisa.
<p style="color: red;">jarrerazkoak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Jarrera kritikoa, zalantzan jarriz bizi garen gizarte-ereduan bistakoa eta normalizatua dena. - Emakumeen eta gizonen nortasunen eraikuntzan, diskriminazio eta desjabetzearen kausa soziohistorikoak ulertzeko interesa. - Gizarte-eraldaketako prozesuetan, hezkuntza esku-hartzea oinarrizko alderdi gisa hartzea. - Gizarte- eta hezkuntza-ekintzaren hartzaile diren taldeekiko enpatia. - Genero-indarkeriaren prebentzioan gizarte- eta hezkuntza-jardunak duen garrantzia baloratzea.

2. PRESTAKUNTZA EKINTZAK DISEINATZEA

<p style="color: red;">prozedurazkoak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Beharrak diagnostikatu, hauteman eta identifikatzeko prozedurak. - Emakumeen aurkako indarkeriari eta baterako hezkuntzari lotuta, gizarte- eta hezkuntza-jarduneko programak aztertzea: <ul style="list-style-type: none"> • Helburuak eta ezaugarri orokorrak identifikatzea. • Lanaren edukiak. • Esku hartzeko metodologia eta prozedurak. • Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioari lotutako gizarte- eta hezkuntza-jardunari aplikatutako talde-dinamikak. • Estrategiak eta baliabideak. - Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko hezkuntza-programak diseinatzea, hainbat talderentzat. - Hezkuntza-erakundeekin eta irakasleekin esku-hartze estrategiak diseinatzea. - IKTak esku-hartzea diseinatzeko tresna eta baliabide gisa erabiltzea.
<p style="color: red;">kontzeptuzkoak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Ikaskuntzaren kontzeptua eta teoriak. - Haurrekin, nerabeekin, gazteekin eta helduekin aurrera eramaten den hezkuntzako esku-hartzearen ezaugarriak. - Lankidetzaren beste eragile eta profesional batzuekin: bideak eta estrategiak. Familiaren zeregina. - Baterako hezkuntza, umeen gizarteratze berezituaren aurreko alternatiba gisa: ezaugarriak, esparruak eta oinarrizko alderdiak, hezkuntza formalean zein informalean: pertsonaren garapen osoa, autonomia pertsonala, elkar zaintzea eta gizonen eta emakumeen erantzunkidetasuna bizitzako esparru guztietan. - Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioari eta baterako hezkuntzari lotutako esku-hartzea, hainbat taldetan (haurrak, nerabeak, emakumeak, desgaitasuna duten emakumeak, irakasleak

	eta profesionalak, besteak beste). - Prestakuntza-ekintza motak hezkuntza-erakundeetan.
jarrerazkoak	- Gizarte- eta hezkuntza-jardunak dituzten pertsonen aldaketa- eta eraldaketa-prozesuak errespetatzea. - Taldeak sorrera gertatzen den eta norbera nahiz taldea eraldatzen diren leku gisa baloratzea. - Beste talde eta pertsona batzuen hezkuntza-esperientziak, -ibilbideak eta -erritmoak baloratzea. - Lanbide-erantzukizuna talde-prozesuekiko eta horietan sortzen diren dinamikekiko.

3. PRESTAKUNTZA EKINTZAK ANTOLATZEA	
prozedurazkoak	- Tresnak eta materialak hartzaileen ezaugarrietara egokitzea. - Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioari lotutako gizarte- eta hezkuntza-jarduneko prozesuetan, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriek duten eragina baloratzea. - Genero-indarkeria prebenitzeko prestakuntza-tailerrak sustatzea hainbat erakunde eta antolakuntzatan. - Tailer monografikoak antolatzea: <ul style="list-style-type: none"> • Indarkeriaren erabilera natural bihurtzen duten eraikuntza kulturalak aztertzea. • Rolen eraikuntza soziohistorikoa: gizon izatea, emakume izatea. • Gaur egungo gizarte-eredua, indarkerien sortzaile gisa. • Zainketetarako hezkuntza eta gizonen eta emakumeen erantzunkidetasuna bizitzako esparru guztietan. • Genero-indarkeria. • Baterako hezkuntza. • Programak martxan jartzeko estrategiak. • Beste batzuk. - Hedapen-materialak eta- estrategiak lantzea: <ul style="list-style-type: none"> • Kartelak eta eskuko programak. • IKTak erabiltzea: posta elektronikoa, webgunea, bloga, sare sozialak. - Esku-hartzearen hartzaile izan daitezkeen erakunde eta antolakuntzekin harremanak hasi eta mantentzeko estrategiak hautatu eta baloratzea. - Prestakuntza-ekintzak planifikatzeko informatika-aplikazioak erabiltzea: Project.
kontzeptuzkoak	- Erakundeekin komunikatzeko bideak eta ereduak. Aldizkari ofizialak, eskaerak... laguntzak eta diru-laguntzak...
jarrerazkoak	- Esku hartzeko estrategia egokiak ezartzearen garrantzia baloratzea, aintzat hartuta horien ordezkari diren erakundeak eta pertsonak. - IKTak kontuz erabiltzea programak diseinatu eta aurkezteko orduan, bai forma eta edukietan bai komunikazio-bideetan. - Gizarte- eta hezkuntza-ekintza zuzentzen den talde eta erakundeen funtzionamendu-arauak aintzat hartzea eta errespetatzea.

4. PRESTAKUNTZA EKINTZAK EZARTzea

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Baliabideak hautatzea. - Hezkuntza-izaerako IKTak erabiltzea, emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioaren inguruan informatu eta komunikatzeko: <ul style="list-style-type: none"> • Sare sozialak erabiltzea. • Blogak sortu eta horietan parte hartzea... - Esku-hartzea gauzatzeko trebetasun pertsonalak eta sozialak garatzea: <ul style="list-style-type: none"> • Laguntza-harremanetako egoerak ezagutu eta maneiatzea. Entzute aktiboa. Talde-lana. Lan-bilerak eta -elkarrizketak zuzentzea. - Teknikariaren zeregina aztertzea, esku-hartze taldearen eta helburuaren arabera: profesionalentzako prestakuntza-programetarako ekarpenak (gizarte zibilaren, berdintasunaren aldeko erakundeen eta lan-jardunaren inguruko ezagutza eta horietan izandako esperientzia). - Indarkeria erabili gabe gatazkak ebazteko teknikak aplikatzea. - Emakumeen aurkako indarkeria eta biktimizazioa prebenitzeko trebetasunak garatzeko teknikak aplikatzea, emakumeak ahalduntzea oinarri: <ul style="list-style-type: none"> • Arrisku-egoerak hauteman eta saihestea, besteenganako konfiantza aldatu gabe. • Egoera gatazkatuak era asertiboan lantzea, enpatia eta besteenganako konfiantza izateko gaitasuna alde batera utzi gabe. Erru-sentimendurik gabe erantzun negatiboak emateko gaitasuna. • Laguntza eskatzeko gaitasuna. • Talde-lana, sare-lana.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Prestakuntza-ekintzen tipologia, zuzentzen diren taldearen eta garatzen diren testuinguruaren arabera: hitzaldiak eta hitzaldi-zikloak, erakusketak, tailer monografikoak, azterketa eta gogoetarako prestakuntza-taldeak, tutoretza, babesa eta jarraipena... - Gatazkak konpontzeko teknikak. - Emakumeen aurkako indarkeria eta biktimizazioa prebenitzeko gaitasunak garatzeko teknikak. - Informazioaren eta komunikazioaren teknologien hezkuntza-aukerak emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioan: IKTak, gizarte-komunikazio eta -elkarrekintzarako tresna. - Esku-hartzea gauzatzeko trebetasun pertsonalak eta sozialak: <ul style="list-style-type: none"> • Laguntza-harremanaren kontzeptuko esparrua. Entzute aktiboaren, talde-lanaren, bilerak zuzentzearen eta lan-elkarrizketen oinarrizko alderdiak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Jarrera prosoziala, indarkeria eta desberdintasuneko egoerak ulertu, horietan esku hartu eta gaitzetzeko interesa esplizituki adierazita. - Programak ezartzeko prozedurak eta horiek martxan jartzeko unean hartutako konpromisoak errespetatzeko erantzukizuna. - Ideiak planteatzeko jarrera eta ekimen pertsonala, taldeko zereginetan elkartasunez parte hartuz.

5. GIZARTE HEZKUNTZAKO ESKU HARTZEAK EBALUATZEKO JARDUERAK EGITEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Prestakuntza-ekintzak ebaluatzeko protokoloak eta erregistroak lantzea. - Sexuaren arabera bereizitako datuak lortzea. Datuon genero-azterketa egitea. - Emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatua bermatuko duten neurriak aplikatzea ebaluazioaren fase guztietan. - IKTak ebaluazio-tresnak garatzeko baliabide gisa erabiltzea. - Gizarte- eta hezkuntza-jardunaren txostenak eta memoriak lantzea. - Gizarte- eta hezkuntza-jardunak emakume eta gizonengan eta jardunaren esparruko genero-arrakaletan duen eragina ebaluatzea ahalbidetzen duten genero-adierazleak lantzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ebaluazio parte-hartzailea hezkuntza ez-formalean. - Ebaluazioa, etengabe hobetzeko prozesuetako gako elementu gisa. - Ebaluazio ororen oinarritzko elementuak: <ul style="list-style-type: none"> • Ebaluazioaren asmoa: zertarako. • Ebaluazioaren helburua: zer. • Ebaluazioaren eragileak: nortzuk. • Ebaluazioaren metodologia eta tresnak: zer, zeren bidez. • Denboralizazioa: noiz. - Ebaluazioetako datuak aztertzeke estrategiak eta teknikak. - Desgaitasunen bat duten emakumeekin egindako gizarte- eta hezkuntza-jardunen ebaluazioa. - Ebaluazio kuantitatiboa versus kualitatiboa. Tresnak eta modalitateak, banakako eta taldeko elkarriketak, inkesta irekiak/itxiak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ebaluazioa aldatu eta hobetzeko gako elementu gisa baloratzea. - Ebaluazio-prozesuetan parte-hartzea sustatzen dela eta gizarte- eta hezkuntza-programetan (bai diseinu- eta ezarpen-faseetan bai gauzatzean) inplikaturako pertsona guztiak aintzat hartzen direla zaintzea. - Ebaluazioaren beraren genero-azterketa baloratzea, hezkuntzako esku-hartzeak etengabe hobetzeko beharrezkoa den tresna gisa.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziak

«Berdintasunerako gizarte- eta hezkuntza-jarduna» moduluen helburuak lortu ahal izateko, batetik, ikasleek argi izan behar dituzte gai hauei buruzko kontzeptu hauek: gizakiaren eraikuntza gizaki sozial moduan, kulturak subjektibotasunaren sorreran eta pertsonen portaeretan duen zeregin erabakitzailea, hazkuntza- eta garapen-prozesuak, hezkuntzak betetzen duten zeregina eta ikaskuntza-ereduak.

Bestetik, ezinbestekoa da beharrak hautematea, esku-hartzeak planifikatu eta antolatzea, behar bezala gauzatzea eta ebaluatzea ahalbidetuko duten prozedurak eta teknikak menderatzea. Azken finean, gizarte-eraldaketara bideratutako gizarte- eta hezkuntza-programak diseinatu eta praktikan jarri behar dituzte, aukera emango dutenak

ez bakarrik emakumeen eta gizonen portaerak ulertzeko, baizik eta berdintasunaren alde beharrezkoak diren aldaketak ere sustatzeko.

Moduluak irakasteko orduan, irakasleen arteko koordinazioa alderdi oso garrantzitsua izango da, edukiak sekuentziatzeko ez ezik, horiek landuko diren sakontasun-maila ere zehazteko. «*Berdintasunerako gizarte- eta hezkuntza-jarduna*» modulua kasuan, berebiziko garrantzia du ondoko hauekin koordinatuta egoteak: «*Gizarte-trebetasunak*» (0017), «*Gizartean esku hartzeko metodologia*» (0344) eta «*Gizarte-garapena*» (1128).

Moduluko bost eduki-blokeek ez dute ikaskuntza-prozesuaren sekuentziak baldintzatzen. Hau da, hirugarren blokea lantzeko («**Prestakuntza-ekintzak antolatzea**»), ez dugu zertan irakatsita izan bigarren blokeko («**Prestakuntza-ekintzak diseinatzea**») eduki guztiak, kontzeptuzkoak zein prozedurazkoak. Gauza bat moduluko eduki tematikoen ildo logikoa da, eta beste bat, zeharo desberdina, ikasleen ikaskuntza-prozesua garatzeko ildo.

Hala ere, modulua abiapuntu bezala, lehenengo eduki-blokearen barruan sartzen diren gizarte- eta hezkuntza-jardunaren oinarriko alderdiak definitu, argitu eta ulertuko ditugu: gizakia gizarte-produkzioko subjektu gisa, kulturaren alderdi erabakitzaileak, hezkuntza eta ikaskuntza...

Kontzeptuzko esparrua definitzea funtsezkoa da prestakuntza-ekintzen gaia, zuzentzen diren herritarrak, esku-hartzearen esparrua eta erabiliko den metodologia zehazteko.

Prestakuntza-ekintzen diseinu, antolaketa, ezarpen eta ebaluazioari buruzko eduki-blokeei dagokienez, era ziklikoan landu beharko lirateke. Hala, mikroproiektuak oinarri (simulatuak edo errealak, ahal bada), bloke bakoitzari lotutako edukietan sakonduz joango gara.

Tailer/gai ezberdinen inguruko gizarte- eta hezkuntza-jardun proposamenek helburu horretarako balio dezakete:

- Indarkeriaren erabilera natural bihurtzen duten eraikuntza kulturalak aztertzea eta interpretatzea.
- Rolen eraikuntza soziohistorikoa: gizon izatea, emakume izatea.
- Gaur egungo gizarte-eredua, indarkerien sortzaile gisa.
- Genero-indarkeria.
- Baterako hezkuntza.
- Programak martxan jartzeko estrategiak.
- Zainketetarako hezkuntza eta emakumeen eta gizonen erantzunkidetasuna.
- Beste batzuk.

2) Alderdi metodologikoak

Zikloan planteatzen diren konpetentzia orokorrak garatzeko eta horien euskarri diren prozedurazko edukiak bereganatzeko, ikasleek zeregin aktiboa eta protagonista izango duten irakatsi eta ikasteko metodologia baliatu beharra dago. Horrek ez du esan nahi irakasleen aurkezpenak egongo ez direnik. Nolanahi ere, beharrezkoak direnean, hauxe izan behar da horien xede orokorra: «egiten jakin funtsatua», gizarte- eta hezkuntza-ekintzak diseinatu, antolatu, planifikatu eta ebaluatzeko orduan.

Beste alde batetik, beharrezkoa da kontuan hartzea zikloan lantzen diren ikaskuntza-edukiek eragin zuzena dutela, esaterako, ikasle bakoitzak bere buruaren, besteen, harremanen eta bizi garen gizarte-antolaketaren inguruan duen pertzepzioan. Ondorioz, beharrezkoa izango da irakasleek, alderdi TEMATIKOAK jorratzen dituztenean, arreta berezia jartzea banaka zein taldeka sortuko diren prozesu DINAMIKOETAN.

Irizpide orokor gisa, ondoko baliabide hauek erabiltzea komeni da:

- «Prestakuntza-taldea» tresna. Tresna metodologiko oso indartsua da, eta horretan, eduki tematikoak lantzeko oinarri moduan hartuko dira ikasleen aurretiko ezagutzak eta gizarte-pertzepzioak, eta ikuspegi kritikotik aztertuko da errealitatea, kontuan hartuta ikaskuntza-prozesuek ikasleengan sortzen dituzten dinamikak eta eraldaketak.
- Analisi-metodoak, bestalde, dagoeneko landutako gizarte- eta hezkuntza-programak, atal desberdinak eta erabilitako teknikak eta baliabideak baloratu eta ebaluatzeko aukera emango du.
- Proiektu-metodoaren bitartez, ikasleek gizarte- eta hezkuntza-ekintzak diseinatu, antolatu, ezarri eta ebaluatzeko prozesua aurrera eramango dute.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioari lotutako gizarte- eta hezkuntza-jarduna ezaugarritzea:
 - Joko dramatiko baliabide metodologikoa erabilia, taldean aztertzea eta gogoeta egitea, alderdi hauen inguruan: subjektibotasunaren eraikuntza soziohistorikoa, rolen esleipena eta onarpena, indarkeriaren pertzepzioa giza harremanetan...
 - Behaketa, azterketa eta gogoeta egitea, ikastetxearen errealitatek abiatuta: espazioen erabilera, baliabide materialen erabilera, hitzaren erabilera... irakasleen ordezkartza eta ardura, ikasleen eta irakasleen portaera eta funtzioak ikasgelan, guztiontzako espazioetan, tailer espezifikoetan, hezkuntza-materialetan, jaietan, ospakizunetan, eta abar.
 - Interneten informazioa bilatzea, laburtzea eta taldeari aurkeztea; hori egin aurretik, irakasleak aurkezpenaren gaiari eta metodologiari buruzko gidoia emango die.
 - Hainbat testuren irakurketa dialogikoa (artikuluak, liburu eta kapituluak...).
 - Gelan landutako gaiari buruzko laburpen- eta saiakuntza-lanak, oinarritzat hartuta irakasleak emandako galdetegiak eta gidoiak.
 - Hainbat lekutan argitaratutako edukiei buruzko azterketa eta gogoeta egitea, banaka zein taldeka: komunikabideak, prentsa digitala, ikus-entzunezko produkzioak, sare sozialak, blogak, webgunea, prentsa idatzia, informazio-liburuxkak, kontsumo-produktuen zein jostailuen katalogoak, ipuin klasikoen analisiak, eta abar, betiere genero-nortasunaren eraikuntzarekin eta horren gizarte-esleipenekin, pertsona arteko harremanekin, gatazken ebazpenarekin eta indarkeriaren tratamenduarekin lotuta.
 - Gogoeten emaitzak euskarri ezberdinen bidez adieraztea:
 - IKTak: PowerPoint, Word edo Prezi programen bidezko aurkezpenak, bideoak, blogak...
 - Kartelak, collageak...
- ✓ Prestakuntza-ekintzen diseinua:
 - Gizarte- eta hezkuntza-jardunen proiektuak aztertzea, bai alderdi tematiko eta teknikoaren inguruan bai maketazio eta aurkezpenari lotutako alderdien inguruan.
 - Bisitak egitea hezkuntza- eta kultura-zentroetara, erakusketa-aretoetara, gazte-elkarteetara, hirugarren adineko zein emakumeen elkarteetara...
 - Prestakuntza-ekintzen programak diseinatzea, zuzentzen diren taldera egokituta.



- Dagoeneko martxan diren prestakuntza-ekintzetan parte hartzea, entzule zein partaide gisa.
 - Ikaskideekin garatzeko prestakuntza-ekintzak diseinatzea.
- ✓ Prestakuntza-ekintzak antolatzea:
 - Ekintzaren plangintza egitea, kronogramak edota MicrosoftProject bezalako aplikazioak erabilia.
 - Ekintzak, arduradunak, baliabideak, denborak, tokiak, eta abar ezartzea ahalbidetzen duten txantiloiak lantzea eta erabiltzea.
 - ✓ Prestakuntza-ekintzak ezartzea:
 - Elkarrizketak gizarte eta hezkuntzako jardunaren alorreko profesionali, hainbat organismo eta erakundetakoak: hirugarren sektoreko enpresak, GKEak, udalak, foru-aldundiak, Eusko Jaurlaritza.
 - Ikaskideekin aplikatzeko diseinatu eta antolatutako prestakuntza-ekintzak martxan jartzea.
 - Erabat nahiz partzialki diseinatutako programak martxan jartzea (irakasleek gainbegiratuta). Horretarako, esku-hartzea zikloa irakasten duten ikastetxeetako ikasleengana bideratzeko aukerak erabili daitezke, bai eta ikastetxea kokatzen den auzoko kultura-etxe, elkarte eta abarretara bideratzekoak ere.
 - Rol-jokoen bidez gatazkak ebazteko teknikekin saioak egitea.
 - Gizarte-trebetasunetako teknikekin saioak egitea.
 - ✓ Gizarte- eta hezkuntza-jardunak ebaluatzeko jarduerak:
 - Gizarte- eta hezkuntza-jardunen hainbat proiektutan egindako ebaluazio-prozesuak eta erabilitako baliabideak aztertzea.
 - Galdetegiak lantzea eta praktikan jartzea, esaterako, Drive aplikazioko inprimakiaren bidez.
 - Prestakuntza-ekintzen gidoia osatzea eta balorazio-elkarrizketak egitea (banakakoak/taldekoak).
 - Memoriak eta txostenak egitea, gauzatutako programa edo ekintzen emaitza eta balorazioetatik abiatuta.

11. lanbide-modulua

GENERO BERDINTASUNA SUSTATZEKO PROIEKTUA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Genero-berdintasuna sustatzeko proiektua
Kodea:	1407
Heziketa-zikloa:	Genero-berdintasuna sustatzea
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	50 ordu
Kurtoa:	2
Kreditu kop.:	5
Irakasleen espezialitatea:	Gizartearentzako zerbitzuak (Lanbide Heziketako irakasle teknikoa) Gizarte arloko esku-hartzea (Bigarren Hezkuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Zeharkako modulua
Helburu orokorrak:	Guztiak

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Produkzio-sektorearen beharrak identifikatzen ditu, eta behar horiek ase ditzaketen ereduzko proiektuekin lotzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Sektoreko enpresak antolamendu-ezaugarrien arabera eta eskaintzen duten produktuaren edo zerbitzuaren arabera sailkatu ditu.
- Ereduzko enpresak ezaugarritu ditu, haien antolamendu-egitura eta sail bakoitzaren eginkizunak adierazita.
- Enpresei gehien eskatzen zaizkien beharrak identifikatu ditu.
- Sektorean aurreikus daitezkeen negozio-aukerak baloratu ditu.
- Aurreikusten diren eskariei arreta egiteko behar den proiektu mota identifikatu du.
- Proiektuak izan behar dituen berariazko ezaugarriak zehaztu ditu.
- Zerga-betebeharrak, lanekoak eta arriskuen prebentziokoak, eta horiek aplikatzeko baldintzak zehaztu ditu.
- Proposatzen diren produkzio edo zerbitzuko teknologia berriak txertatzeko jaso daitezkeen laguntzak edo diru-laguntzak identifikatu ditu.
- Proiektua lantzeko jarraitu beharreko lan-gidoia landu du.

2. Tituluan adierazitako konpetentziekin lotutako proiektuak diseinatzen ditu, eta horiek osatzen dituzten faseak barnean hartu eta garatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Proiektuan jorratuko diren alderdiei buruzko informazioa bildu du.
- b) Bideragarritasun teknikoari buruzko azterlana egin du.
- c) Proiektua osatzen duten faseak edo zatiak eta horien edukia identifikatu ditu.
- d) Lortu nahi diren helburuak ezarri ditu eta horien irismena identifikatu du.
- e) Proiektua gauzatzeko beharrezko baliabide materialak eta pertsonalak aurreikusi ditu.
- f) Dagokion aurrekontu ekonomikoa egin du.
- g) Abian jartzeko finantziazio-beharrak identifikatu ditu.
- h) Diseinatze beharrezko dokumentazioa definitu eta landu du.
- i) Proiektuaren kalitatea ziurtatzeko kontrolatu beharreko alderdiak identifikatu ditu.

3. Proiektuaren gauzatzea planifikatzen du, eta esku-hartze plana eta dagokion dokumentazioa zehazten du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jarduerak sekuentziatu ditu, eta inplementatze-beharren arabera antolatu ditu.
- b) Jarduera bakoitzerako beharrezko baliabideak eta logistika finkatu ditu.
- c) Jarduerak gauzatzeko baimenen beharrak identifikatu ditu.
- d) Jarduerak gauzatzeko edo jarduteko prozedurak finkatu ditu.
- e) Proiektua inplementatzeari datxezkion arriskuak identifikatu ditu, eta arriskuei aurrea hartzeko plana eta beharrezko bitartekoak eta tresneria definitu ditu.
- f) Baliabide materialak eta giza baliabideak eta gauzatze-denborak esleitzeko plangintza egin du.
- g) Inplementatzearen baldintzei erantzuten dien balorazio ekonomikoa egin du.
- h) Proiektua inplementatzeko edo gauzatzeko beharrezko dokumentazioa zehaztu eta prestatu du.

4. Proiektua gauzatzean, jarraipena eta kontrola egiteko prozedurak definitzen ditu, eta erabilitako aldagaiak eta tresnak hautatu izana justifikatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Jarduerak edo esku-hartzeak ebaluatze prozedura definitu du.
- b) Ebaluazioa egiteko kalitate-adierazleak definitu ditu.
- c) Jarduerak egitean sor daitezkeen gorabeherak eta litekeen konponbidea ebaluatze eta horiek erregistratzeko prozedura definitu du.
- d) Baliabideetan eta jardueretan izan daitezkeen aldaketak kudeatzeko prozedura definitu du, horiek erregistratzeko sistema barne.
- e) Jarduerak eta proiektua ebaluatze beharrezko dokumentazioa definitu eta landu du.
- f) Erabiltzaileei edo bezeroei buruzko ebaluazioan parte hartzeko prozedura ezarri du, eta berariazko dokumentuak prestatu ditu.
- g) Hala badagokio, proiekturako baldintzen orria beteko dela ziurtatzeko sistema bat ezarri du.

5. Proiektua aurkeztu eta defendatzen du, eta proiektua lantzean eta heziketa-zikloko ikaskuntza-prozesua garatzean eskuratutako konpetentzia teknikoak eta pertsonalak eraginkortasunez erabiltzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Proiektuari buruzko memoria-dokumentua egin du.

- b) Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak erabiliko dituen aurkezpena prestatu du.
- c) Proiektuaren azalpena egin du. Bertan, haren helburuak eta eduki nagusiak deskribatu ditu eta jasotako ekintza-proposamenen hautaketa justifikatu du.
- d) Azalpenean komunikazio-estilo egokia erabili du eta, ondorioz, azalpen antolatua, argia, atsegina eta eraginkorra lortu du.
- e) Proiektua defendatu du, eta arrazoituta erantzun die epaimahai ebaluatzaileak planteatzen dituen galderi.

c) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Modulu honen helburua heziketa-ziklo osoan landu diren lanbide-kompetentziak, pertsonalak eta sozialak indartu eta finkatzea da. Horretarako, talde-proiektu bat garatuko da.

Bi edo hiru ikasleko taldeak osatzea izango da lehen urratsa. Talde horien bidez ikasle guztiak proiektuaren garapenean inplika daitezten lortuko da. Talde homogeneousak eta kompetentzia osagarriak izango dituztenak ezartzen saiatuko da.

Taldearen lehen zeregina garatu beharreko proiektua aukeratzea izango da. Modulu hau denboran bat datorrenez «Lantokiko prestakuntza» moduluarekin, praktikak egiten diren enpresa ideia-iturri egokia izan daiteke proiekturako. Nolanahi ere, komenigarria da tutoreak garatu daitezkeen proiektu teknikoki bideragarri batzuk prest izatea, proposatu behar izanez gero ere.

Ondoren, proiektua garatzeko eredu bati jarraituz, haren faseak landuko dira:

- Diseinua.
- Plangintza.
- Gauzatzea eta jarraipena egitea.
- Amaiera eta ebaluazioa.

Bukatzeko, talde bakoitzak proiektuaren aurkezpena eta defentsa prestatu eta egingo du, eta, horretarako, hainbat aurkezpen-teknika erabiliko dituzte IKTetan oinarrituta.

2) Alderdi metodologikoak

Modulu hau antolatzeko garaian, irakatsi eta ikasteko metodologia aktiboak erabiltzea proposatzen da, hala nola talde-lana eta PBL-AOI (*Problem Based Learning*, Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza). Zehazki, zikloko zenbait moduluren kompetentziak zeharka bilduko dituzten proiektuen garapenean berriaz oinarritutako PBL metodologia erabili daiteke. Metodologia horiek ikaslea behartzen dute arazoak identifikatzera, horiek konpontzeko aukerak bilatzera, horretarako beharrezko baliabideak abian jartzera eta informazioa behar bezala kudeatzera.

Gainera, aipatutako metodologiek une batzuetan sustatzen duten bakarlana garrantzitsua da taldea osatzen duten ikasleetako bakoitzak proiektuaren defentsan ondoren erabili beharko dituen ezagupenak eta kompetentziak bereganatzeko.

Bestalde, talde-lanaren bidez, ikasleek harreman-kompetentziak garatzen dituzte eta taldeen funtzionamendua ezagutzen dute, lanerako tresna gisa, baita horrek dakarren



guztia ere: taldearen antolaketa, rolen eta zereginen banaketa, pertsonen arteko komunikazioa, gatazken konponketa, etab.

Ikasleen autoikaskuntza osatzeko, proiektu-talde bakoitzari aldizka jarraipen bat egitea proposatzen da, ikaskuntza gidatzeko eta taldeari finkatutako helburuen barruan eusteko. Gainera, sortzen diren beharren arabera, laguntzako azalpen edo mintegiren bat programatzea gomendatzen da, proiektua garatzeko beharrezkoak diren berariazko edukiei edo metodologiei buruzko ezagupenetan gabeziak betetzeko.

Azkenik, talde bakoitzak landutako proiektuaren azalpen bat egitea proposatzen da, bi helburu hauekin:

- Proiektua garatzean ikasle bakoitzak bereganatutako kompetentzia teknikoak ebaluatzea.
- Ikasleen komunikatzeko kompetentzia pertsonalak eta sozialak ebaluatzea.

Azalpena prestatu eta garatzeko, ikasleei teknologia berriak erabil ditzaten proposatuko zaie, hau da, hainbat informatika-aplikazio erabiltzea diapositiba-aurkezpenak, web-orrien formatuak, eta abar lantzeko. Horretarako bideo-proiektagailuak eta ordenagailuak ere erabiliko dituzte eta, hala, etorkizunean lanerako baliagarri izango dituzten tresnekin trebatzen hasteko aukera izango dute.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

Modulua ebaluatzerakoan, proiektua azken produktu gisa eta egindako lanketa-prozesuaren amaiera gisa ebaluatzea garrantzitsutzat jotzen dugu. Horretarako, lantaldearen funtzionamenduari buruzko informazioa jaso behar da, kide bakoitzak zereginetan eta proiektuan izan duen inplikazioari buruzkoa, oro har, taldean sortutako zailtasunei buruzkoa, ikasle bakoitzak bereganatutako kompetentzia pertsonal eta sozialei buruzkoa, etab.

Era berean, kalifikazioaren zati batean, proiektuaren azalpenari eta defentsari buruz irakasleak egindako balorazioa jasotzea proposatzen da. Zehazki, azalpenaren ebaluazio-adierazleetako batzuk honako adierazle hauek izan daitezke:

- Proiektuaren aurkezpenak duen diseinu-kalitatea.
- Aurkezpena egiteko baliabide lagungarrien erabilera: baliabide informatikoak, modeloak edo maketak, eta abar.
- Azalpenaren argitasuna.
- Azalpenaren antolamendua.
- Azalpenaren bizitasuna.
- Azalpenaren eraginkortasuna.
- Frogatutako komunikazio-trebetasunak: ahots-doinua, hitzezko adierazpena, hitzik gabeko komunikazioa, eta abar.
- Irakasle ebaluatzaileek egindako galderei erantzuteko gaitasuna.

Behar-beharrezkoa izango da taldeko ikasle guztiek bete-betean parte hartzea proiektuaren defentsan. Horrela, bakarkako ebaluazioa egin ahal izango da, eta ikasle bakoitzak moduluarekin lotzen diren ikaskuntzaren emaitzak lortu dituela erakutsi ahal izango du. Hala, taldea osatzen duten kide guztiek proiektua garatzen lagundu dutela ziurtatzen saiatu beharko da.

Azkenik, proiektuan parte hartzen duen talde bakoitzari erantzun xehatua ematea gomendatzen da. Erantzun horretan, produktuari buruzko ebaluazioaren, eta haren prozesuaren eta azalpenaren indarguneak eta ahulguneak azpimarratuko dira. Horrela, ikasleei lagundu egingo zaie aurrerantzean euren lan-ibilbidean garatu eta azaldu beharreko proiektuetan egin litezkeen hobekuntzak identifikatzen.

12. lanbide-modulua

INGELES TEKNIKOA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Ingeles teknikoa
Kodea:	E-200
Heziketa-zikloa:	Genero-berdintasuna sustatzea
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	40 ordu
Kurtsoa:	2
Kreditu kop.:	
Irakasleen espezialitatea:	Ingelesa (Bigarren Hezkuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Zeharkako modulua
Helburu orokorrak:	Kualifikazioen Europako Esparruko funtsezko kompetentziak

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Tituluaren lanbide-esparruarekin, prestakuntza pertsonalarekin eta eskaintako produktuarekin/zerbitzuarekin lotutako ahozko informazioa interpretatu eta erabiltzen du, eta haren ezaugarriak eta propietateak, enpresa motak eta horien kokapena identifikatu eta deskribatzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- Zuzeneko mezuaren, telefono bidezkoaren edo entzunezko beste bitarteko baten bidezkoaren xedea ezagutu du.
- Egoera jakin batzuk ebazteko ahozko mezu zehatzak igorri ditu: hitzordua, produktu bat bidaltzeko/jasotzeko datak eta baldintzak, makina/aparatu baten oinarrizko funtzionamendua.
- Ahozko argibideak ezagutu ditu eta enpresaren testuinguruan emandako adierazpenei jarraitu die.
- Sektorearen berezko produktuak edo zerbitzuak deskribatzeko termino tekniko zehatzak erabili ditu.
- Mezu bat bere elementu guztiak ulertu beharrik gabe orokorrean konprenitzea zeinen garrantzitsua den konturatu da.
- Emandako informazioen ideia nagusiak laburbildu ditu bere hizkuntza-baliabideak erabilita.
- Beharrezkotzat jo duenean, diskurtsoa edo horren zati bat berriz formulatzeko eskatu du.



- h) Laneko elkarrizketa baterako aurkezpen pertsonala prestatu du.
- i) Lan-ingurunean garatu beharreko kompetentziak deskribatu ditu.

2. Sektorearen eta nazioarteko merkataritza-transakzioen berezko dokumentu idatziak interpretatu eta betetzen ditu: ezaugarri eta funtzionamenduari buruzko eskuliburua, eskabide-orria, jasotze- edo bidaltze-orria, fakturak, erreklamazioak.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Berariazko informazioa atera du eskainitako produktuarekin edo zerbitzuarekin lotutako mezuetatik (publizitate-liburuxkak, funtzionamenduari buruzko eskuliburua) eta bizitza profesionalarekin zerikusia duten eguneroko alderdietatik.
- b) Merkataritza-transakzioei buruzko dokumentuak identifikatu ditu.
- c) Euskarri telematikoen bitartez (posta elektronikoa, faxa, besteak beste) hartutako mezua interpretatu du.
- d) Sektoreko web-orri bateko oinarrizko informazioak identifikatu ditu.
- e) Dagokion lanbide-esparruko merkataritza-dokumentazioa eta berariazko dokumentazioa bete ditu.
- f) Lanbidearen berezko terminologia eta hiztegia zuzen erabili ditu.
- g) Aurkezpenetan eta agurretan, prestatu beharreko dokumentuaren berezko adeitasun-formulak erabili ditu.
- h) Bere lanbide-ingurunearekin erlacionatutako testuen laburpenak egin ditu.
- i) Profilarekin lotutako okupazioak eta lanpostuak identifikatu ditu.
- j) Bere kompetentziako lan-prozesu bat deskribatu eta sekuentziatu du.
- k) Lan-ingurunean garatu beharreko kompetentziak deskribatu ditu.
- l) Curriculum vitae egiteko, norberaren prestakuntza eta lanbide-kompetentziak aurkezteko Europako herrialdeetan erabiltzen diren jarraibideak bete ditu.

3. Komunikazio-egoeretan jarrera eta portaera profesionalak identifikatu eta aplikatzen ditu, herrialde bakoitzarekin ezarritako protokolo-arauak eta haren ohiturak errespetatuz.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Atzerriko hizkuntza hitz egiten den erkidegoko ohitura eta usadioen ezaugarri esanguratsuenak definitu ditu.
- b) Herrialdearen berezko gizarte- eta lan-harremanetako protokoloak eta arauak deskribatu ditu.
- c) Sektorearen berezko alderdi sozio-profesionalak identifikatu ditu edozein testu motatan.
- d) Atzerriko hizkuntza hitz egiten den herrialdearen berezko gizarte-harremanetako protokoloak eta arauak aplikatu ditu.
- e) Beste herrialdearen berezko balioak eta ohiturak identifikatu eta bere jatorrizko herrialdekoekin lotu ditu, antzekotasunak eta desberdintasunak ezartzearen.

a) Oinarrizko edukiak:

1. PROFILAREKIN LOTUTAKO AHOZKO MEZUAK ULERTU ETA SORTZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Sektoreko mezu profesionalak eta egunerokoak ezagutzea. - Zuzeneko mezuak, telefono bidezkoak eta grabatutakoak identifikatzea. - Ideia nagusia eta bigarren mailako ideiak bereiztea. - Beste hizkuntza-baliabide batzuk ezagutzea: gustuak eta lehentasunak, iradokizunak, argudioak, argibideak, baldintzaren eta zalantzaren adierazpena eta bestelakoak. - Ahozko mezuak igortzeko erabiltzen diren erregistroak hautatzea. - Ahozko diskurtsoa mantentzea eta jarraitzea: sostengua ematea, ulertzen dela erakustea, argitzeko eskatzea, eta bestelakoak

	<ul style="list-style-type: none"> - Intonazioa, ahozko testuaren kohesio-baliabide gisa. - Nahikoa ulertzeko soinuak eta fonemak egoki sortzea. - Gizarte-harremanen markatzaile linguistikoak, adetasun-arauak eta erregistro-desberdintasunak hautatzea eta erabiltzea. - Laneko elkarrizketa bat prestatzea, dituen prestakuntza eta motibazio pertsonalak aurkezteko.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Sektoreko terminologia espezifikoak. - Gramatika-baliabideak: aditz-denborak, preposizioak, adberbioak, lokuzio preposizionalak eta adberbialak, erlatiboak, erlatiboak, erlatiboak, zehar-estiloa, eta bestelakoak. - Hots eta fonema bokalikoak eta kontsonantikoak. Konbinazioak eta elkarreak. - Lan-elkarrizketa baten gaikako atalak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Atzerriko hizkuntzak lanbide-munduan duen garrantziaz konturatzeko. - Ulertzeko eta ulertarazteko interesa izatea eta hori errespetatzea. - Informazio-trukean bete-betean parte hartzea. - Atzerriko hizkuntzan komunikatzeko norberaren gaitasunaz jabetzea. - Hizkuntza bakoitzaren berezko adetasun-arauak eta erregistro-desberdintasunak errespetatzea.

2. PROFILAREKIN LOTUTAKO IDATZIZKO MEZUAK INTERPRETATU ETA ADIERAZTEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Mezuak formatu desberdinetan ulertzea: eskuliburuak, liburuxkak, eta oinarrizko artikulua profesionalak eta egunerokoak. - Ideia nagusia eta bigarren mailako ideiak bereiztea. - Erlazio logikoak ezagutzeko: aurkakotasuna, kontzesioa, konparazioa, baldintza, kausa, helburua, emaitza. - Denbora-erlazioak bereiztea: aurrekotasuna, gerokotasuna, aldiberekotasuna. - Sektorearen berezko testu erraz profesionalak eta egunerokoak lantzea. - Puntuazio-markak erabiltzea. - Lexikoa hautatzea, egitura sintaktikoak hautatzea, horiek egoki erabiltzeko eduki adierazgarria hautatzea. - Testu koherenteak lantzea. - Lan-ingurunearekin lotzen den lan-eskaintza bateko iragarkien atalak ulertzea. - Dagokion profilarekin lotutako lan-eskaera prestatzea: curriculum eta motibazio-gutuna.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Euskarri telematikoak: faxa, posta elektronikoa, burofaxa, web orriak. - Hizkuntzaren erregistroak. - Nazioarteko transakzioekin lotutako dokumentazioa: eskabide-orria, jasotze-orria, faktura. - Europako Curriculum Vitaearen eredua. - Heziketa-zikloarekin lotutako konpetentziak, lanbideak eta lanpostuak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Ulertzeko eta ulertarazteko interesa izatea eta hori errespetatzea. - Beste kultura batzuen alderdi profesionalakiko interesa erakustea. - Beste kultura eta gizarteetako ohiturak eta pentsamoldea



	errespetatzea. - Testuaren garapenean koherentziaren premia baloratzea.
--	--

3. HERRIALDEAREN BEREZKO ERREALITATE SOZIOKULTURALA ULERTZEA

prozedurazkoak	- Komunikazio-egoera bakoitzerako kultura-elementurik esanguratsuenak interpretatzea. - Enpresaren irudi ona proiektatzeko portaera sozioprofesionala eskatzen duten egoeretan baliabide formalak eta funtzionalak erabiltzea.
kontzeptuzkoak	- Atzerriko hizkuntza (ingelesa) mintzatzen den herrialdeen elementu soziolaboral esanguratsuenak.
jarrerazkoak	- Nazioarteko harremanetan, arau soziokulturalak eta protokoloak balioestea. - Bestelako usadioak eta pentsamoldeak errespetatzea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Eduki multzoen aurkezpenak prestakuntza-prozesua errazten ez duenez eta horren premiei erantzuten ez dienez, behar-beharrezkoa da ibilbide didaktiko bat antolatzea, multzo horiekin laneko testuinguruko hizkuntza-komunikazioko egoera bati konponbidea aurkitzeko beharrezkoak diren ulermenezko eta adierazpenezko trebetasunak lortzeari lehentasuna emango diona.

Modulu honen programazioa antolatzeko, prozedurek irakasteko prozesua zuzen dezaten proposatzen da, berebiziko garrantzia baitute hizkuntza bat komunikazio-tresna gisa irakasteko. Gainera, berehala erabilgarri izateak motibazioa sortzen du irakasleengan. Lanbidearen berezko komunikazio-egoera batek prozedura jakin batzuk dakartza, eta horiek kontrolpean izan behar dira egoera eraginkortasunez konponduko bada. Eduki lexikalek, morfologikoez eta sintaktikoez ez lukete inongo zentzurik, ulertu edo adierazi behar den mezu bat eraman edo transmitituko ez balute.

Horrenbestez, oinarriko lau hizkuntza-gaitasunak, hots, entzumena, irakurmena, mintzamina eta idazmena, garatzea da lortu beharreko helburua.

Ikasleek nolabaiteko segurtasunarekin moldatu beharko dute atzerriko hizkuntzan, beren lanpostuak aurkezten dizkien egoeren aurrean.

Irakasleek erabiliko dituzten metodologia eta materialak alde batera utzirik, oso baliagarria izango da lanbidearen berezko egoera erraz bat aukeratzea ikasleak beren ikaskuntzan bertan inplikatzeko. Egoera horren inguruan antolatuko dira dagozkion gramatika-egiturak (aditz-denbora, hiztegia, eta abar), hizkuntza-erregistroarekin, arau edo protokolo sozial eta/edo profesional egokiekin batera.

Beharbada komenigarria izango litzateke hasieran modulua ikasleei aurkeztean horiekin batera gogoeta egitea, etorkizunean bizitza profesionalean aurrez aurre izango dituzten

egoera ohikoenak zein izango diren ondorioztatzeko, eta lan egingo duten produkzio-sektorean atzerriko hizkuntza zein beharrezkoa izango duten eta beste ohitura eta kultura batzuetara irekitzea zein aberasgarria izango den konturatzeko. Gogoeta horrek ikasteko aukeretan irimotu beharko lituzke, gero eta autonomoagoak izan daitezen eta sortzen zaizkien arazoak konpontzeko gaitasuna izan dezaten beren lanpostuetan daudenean. Komenigarria da atzerriko hizkuntzak zikloko beste modulu batzuekin duen zeharkako erlazioa behin eta berriz azpimarratzea, jakitun izan daitezen zein lanbide-profiletarako prestatzen ari diren.

Azkenik, kontuan izan behar da, halaber, aurreko hezkuntza-etaparen ondorio den ingelesezko oinarrizko prestakuntza. Esperientziak erakusten digunez, ikaskuntza horretan zehar eskuratutako lorpenak askotarikoak izaten dira, gazte bakoitzaren idiosinkrasia pertsonalaren parekoak ia.

Komunikazio-kompetentzia batzuk urriak direla irizten bazaio edo taldearen aniztasunean oinarrizko ezagutzak homogeneousatu beharra antzematen bada, dagozkion ezagutzak osatu edo indartzeari ekingo zaio. Horretarako, beharrezkoak diren unitate didaktikoak definituko dira.

2) Alderdi metodologikoak

Hizkuntza lanbide-munduan komunikatzeko tresna bezala ulertuta, metodo aktiboa eta parte-hartzailea erabiltzen da ikasgelan.

Ahozko hizkuntzari garrantzi berezia eman beharko zaio, egungo egoera profesionalak eta globalizazioak hori eskatzen baitute.

Ikasgelan ingelesa erabiltzen da beti eta irakasleak etengabe bultzatzen ditu ikasleak hura erabiltzera, nahiz eta zuzen mintzatu ez. Irakasleak konfiantza eman beharko dio ikasle bakoitzari, komunikatzeko aukeren jakitun izan dadin, aukerak baditu eta. Mezuaren ulermenari lehentasuna emango zaio, zuzentasun gramatikalaren gainetik, eta ahoskera eta jarioa azpimarratuko dira, mezua hartzailearengana igarotzeko baldintzatzaileak dira-eta.

Talde-lanak gazteen hasierako lotsa gainditzen laguntzen du. Halaber, audio- eta bideo-grabazioak erabiliko dira, ikasleek beren burua behatuz eta beren akatsak aztertuz alderdi neketsuena hobe dezaten; hots, ahozko mezuen sorkuntza. Hizkuntza bat ikasteak pertsonaren alderdi guztiak mobilizatzea eskatzen du, oso jarduera konplexua da eta.

Irakasteko eta ikasteko prozesuan aplikatutako komunikazio-metodologia sektoreko enpresak bisitatuz (ahal dela, ingelesak) edo jarduneko langileak gonbidatuz aberats daiteke. Hartara, lanbide-inguruetik datozen eta lan-esperientzia duten horiek lanpostuaren ikuspegia, zailtasunak eta abantailak azalduko dizkiete etorkizuneko profesionali.

Metodo/testuliburu bat eta metodoak berak dakarren ikus-entzunezko materiala erabiltzeaz gain, ikastetxeak dituen beste audio- eta bideo-euskarri batzuk ere erabiliko dira, betiere lanbide-egoerak ardatz dituztenak. Halaber, benetako materialarekin lan egingo da (gutunak, fakturak, gidak, liburuxkak...), eta ingelesezko web-orriak kontsultatuko dira.

Hizkuntza bat eskuratzea ikastunaren barne-faktore askoren emaitza da, eta pertsona bakoitzak behar, estilo, erritmo eta interes desberdinak ditu. Horregatik, beren beharretara egokitutako hainbat motatako materialak (idatzizkoak, ahozkoak, irudiak, musika, teknologia berriak, eta abar) eskaini behar dira.



Teknologia berriak ezin dira ikaskuntzatik kanpo geratu, lan-munduan eta gizartean ere ez baitira kanpoan geratuko: Internet, posta elektronikoa, burofaxa, etab.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

Irakasleek dinamizatzailerik eta bideratzaile gisa jardungo dute, ikasgelan ingelesez hitz egin dezaten, egoerak ahalik eta sinesgarrienak izan daitezten. Horretarako, ikasleak ahalik eta gehien inplikatu dituzte ikaskuntzan eta materiala bilatzeko eta erabiltzeko lanetan.

- ✓ Ingurune profesionalarekin lotutako materialak lehentasunez erabiltzea (erabilera-eskuliburuak, liburuxkak, piezen edo produktuen krokisak), eta zenbakiekin, datekin, orduekin eta eskainitako produktuaren edo zerbitzuaren ezaugarri deskribatzaileekin praktikatzea.
- ✓ Sektoreko enpresei edota produktuei eta zerbitzuei buruzko ingelesezko publizitate-materialak aztertzea, erabilitako hiztegi teknikoa eta adjektiboak barne.
- ✓ Arazo errazak konpontzea: bezero baten galderak, ezbehar txikiak, noizbehinkako azalpenak.
- ✓ Bisitan datorren bezero atzerritar bati enpresaren edo lanpostuaren inguruko informazio laburra ematea.
- ✓ Unean uneko oharrak egitea norbaiti edo norbaiten mandatua uzteko, zereginari buruzko zehaztasunak emateko, entregatzeko datak edo kantitateak adierazteko, sortutako arazoen berri emateko.
- ✓ Lanpostu baterako curriculum vitae aurkeztea motibazio-gutunarekin batera, prentsako edo telebistako lan-iragarki bat ulertzea, eta abar.
- ✓ Faktura / ordainketa-gutuna edota bidalketa/entrega baten onarpena aurkeztea eta azaltzea.
- ✓ Ikasgelan lanbidearen egoera bat simulatzen duen ikasle talde baten elkarrizketak bidez grabatzea, geroago aztertzeko.

13. lanbide-modulua

LANEKO PRESTAKUNTZA ETA ORIENTABIDEA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Laneko prestakuntza eta orientabidea
Kodea:	1408
Heziketa-zikloa:	Genero-berdintasuna sustatzea
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	99 ordu
Kurtsoa:	1
Kreditu kop.:	5
Irakasleen espezialitatea:	Laneko prestakuntza eta orientabidea (Bigarren Hezkuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Zeharkako modulua
Helburu orokorrak:	17 / 19 / 20 / 21 / 22

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Lan-munduratzeko eta bizitza osoan ikasteko hautabideak identifikatu ondoren, lan-aukerak hautatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Etengabeko prestakuntzaren garrantzia baloratu du, enplegatze aukerak zabaltzeko eta produkzio-prozesuaren eskakizunetara egokitzeko funtsezko faktore gisa.
- Tituluaren lanbide-profilari lotutako prestakuntza-ibilbidea eta ibilbide profesionala identifikatu ditu.
- Profilari lotutako lanbide-jarduerarako eskatzen diren gaitasunak eta jarrerak zehaztu ditu.
- Tituludunarentzako enplegu-sorgune eta lan-munduratzeko gune nagusiak identifikatu ditu.
- Lana bilatzeko prozesuan erabiltzen diren teknikak zehaztu ditu.
- Tituluari lotutako lanbide-sektoreetan autoenplegurako aukerak aurreikusi ditu.
- Erabakiak hartzeko nortasuna, helburuak, jarrerak eta norberaren prestakuntza baloratu ditu.

2. Talde-laneko estrategiak aplikatzen ditu, eta erakundearen helburuak lortzeko duten eraginkortasuna baloratzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Profilarri lotutako lan-egoeretan talde-lanak dituen abantailak baloratu ditu.
- b) Benetako lan-egoera batean osa daitezkeen lan-taldeak identifikatu ditu.
- c) Lantalde ez-eraginkorraren aldean, talde eraginkorrak dituen ezaugarriak zehaztu ditu.
- d) Taldekideek bere gain hartutako denetako eginkizunen eta iritzien beharra ontzat baloratu du.
- e) Taldekideen artean gatazkak sortzeko aukera erakundeen alderdi ezaugarritzat onartu du.
- f) Gatazka motak eta horien sorburuak identifikatu ditu.
- g) Gatazkak konpontzeko prozedurak zehaztu ditu.

3. Lan-harremanen ondoriozko eskubideak baliatu eta betebeharrak betetzen ditu, eta lan-kontratuetan horiek onartzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Lan-zuzenbidearen oinarrizko kontzeptuak identifikatu ditu.
- b) Enpresaburuaren eta langileen arteko harremanetan esku hartzen duten erakunde nagusiak bereizi ditu.
- c) Laneko harremanaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak zehaztu ditu.
- d) Kontratazio-modalitate nagusiak sailkatu ditu, eta kolektibo jakin batzuentzat kontratazioa sustatzeko neurriak identifikatu ditu.
- e) Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egiteko indarrean dagoen legeriak ezarritako neurriak baloratu ditu.
- f) Laneko harremanak aldatu, eten eta deuseztatzearen arrazoiak eta ondorioak identifikatu ditu.
- g) Soldata-ordainagiria aztertu du eta haren osagai nagusiak identifikatu ditu.
- h) Gatazka kolektiboko neurriak eta gatazkak ebazteko prozedurak aztertu ditu.
- i) Tituluarekin zerikusia duen lanbide-sektore bati aplikatzekoa zaion hitzarmen kolektiboan adostutako lan-baldintzak zehaztu ditu.
- j) Lan-antolamenduaren ingurune berrien ezaugarriak identifikatu ditu.

4. Estalitako kontingentzien aurrean, Gizarte Segurantzako sistemaren babes-ekintza zehazten du eta prestazio mota guztiak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko funtsezko oinarri gisa baloratu du Gizarte Segurantzaren eginkizuna.
- b) Gizarte Segurantzak estaltzen dituen kontingentziak adierazi ditu.
- c) Gizarte Segurantzako sisteman dauden araubideak identifikatu ditu.
- d) Gizarte Segurantzako sistemaren barruan enpresaburuak eta langileak dituzten betebeharrak identifikatu ditu.
- e) Suposizio sinple batean, langilearen kotizazio-oinarriak, eta langileari eta enpresaburuari dagozkion kuotak identifikatu ditu.
- f) Gizarte Segurantzako sistemaren prestazioak sailkatu eta eskakizunak identifikatu ditu.
- g) Legez egon daitezkeen langabezia-egoerak zehaztu ditu.
- h) Oinarrizko kontribuzio-mailari dagokion langabezia-prestazioaren iraupena eta kopurua kalkulatu ditu.

5. Bere jardueraren ondoriozko arriskuak ebaluatzen ditu, lan-inguruneke lan-baldintzak eta arrisku-faktoreak aztertuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Enpresaren esparru eta jarduera guztietan prebentzioaren kulturak duen garrantzia baloratu du.
- b) Lan-baldintzak langilearen osasunarekin erlazionatu ditu.
- c) Jardueraren arrisku-faktoreak eta horien ondoriozko kalteak sailkatu ditu.
- d) Tituluaren lanbide-profilari lotutako lan-inguruneetan ohikoenak diren arrisku-egoerak identifikatu ditu.
- e) Enpresan dauden arriskuak ebaluatu ditu.
- f) Lanbide-profilari lotutako lan-inguruneetan, prebentziorako garrantzitsuak diren lan-baldintzak zehaztu ditu.
- g) Tituluaren lanbide-profilari lotutako kalte profesionalen motak sailkatu eta deskribatu ditu, bereziki lan-istripuei eta lanbide-gaixotasunei dagokienez.

6. Enpresa txiki batean, arriskuen prebentziorako plana egiten laguntzen du, inplikaturako eragile guztien erantzukizunak identifikatuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Laneko arriskuen prebentzioan dauden eskubide eta betebeharrak nagusiak zehaztu ditu.
- b) Enpresan prebentzioa kudeatzeko moduak sailkatu ditu, laneko arriskuen prebentziora buruzko araudian ezarritako irizpideen arabera.
- c) Arriskuen prebentziora dagokionez, enpresan langileak ordezkatzeko moduak zehaztu ditu.
- d) Laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten erakunde publikoak identifikatu ditu.
- e) Enpresan, larrialdirik izanez gero jarraitu beharreko jardun-sekuentziazioa barne hartuko duen prebentzio-plana izatearen garrantzia baloratu du.
- f) Tituludunaren lanbide-sektorearekin lotutako lantoki baterako prebentzio-planaren edukia zehaztu du.
- g) Enpresa txiki edo ertain baterako larrialdi- eta ebakuazio-plan bat pentsatu du.

7. Prebentzio- eta babes-neurriak aplikatzen ditu, eta tituluari lotutako lan-inguruneeko arrisku-egoerak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Kalteak sorburuan saihesteko eta, saihestezinak badira, haien ondorioak ahalik eta gehien murrizteko aplikatu behar diren prebentzio-teknikak, eta norbera eta taldea babestekoak zehaztu ditu.
- b) Mota guztietako segurtasun-seinaleen esanahia eta hedadura aztertu ditu.
- c) Larrialdietarako jardun-protokoloak aztertu ditu.
- d) Larrialdietan, larritasun-maila desberdinetako biktimak daudenean, zaurituak sailkatzeko teknikak identifikatu ditu.
- e) Istripuaren lekuan bertan hainbat kalteren aurrean aplikatu beharreko lehen sorospenteko oinarritzko teknikak identifikatu ditu, baita botikinaren osaera eta erabilera ere.
- f) Langileen osasuna zaintzeko eskakizunak eta baldintzak zehaztu ditu, eta prebentzio-neurri gisa duten garrantzia adierazi du.



c) Oinarrizko edukiak:

1. LAN MUNDURATZEKO ETA BIZIALDI OSOKO IKASKUNTZAKO PROZESUA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lan-ibilbiderako interes, gaitasun eta motibazio pertsonalak aztertzea. - Tituluari lotutako prestakuntza-ibilbideak identifikatzea. - Tituluaren lanbide-sektorea definitzea eta aztertzea. - Norberaren ibilbidea planifikatzea: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Beharrekina eta hobespenekin bateragarriak izango diren epe ertain eta luzerako lan-helburuak ezartzea. ▪ Uneko eta gerorako pentsatutako prestakuntzarekiko helburu errealistak eta koherenteak. - Ibilbide-planaren, prestakuntzaren eta helburuen arteko koherentzia norbera egiaztatzeke zerrenda bat ezartzea. - Lan-munduratzeko beharrezkoak diren dokumentuak betetzea (aurkezpen-gutuna, curriculum vitae...), eta test psikoteknikoak eta elkarrizketa simulatuak egitea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lana bilatzeko teknikak eta tresnak. - Erabakiak hartzeke prozesua. - Sektorereko enpresa txiki, ertain eta handietan lana bilatzeko prozesua. - Europar ikasi eta enplegatzeke aukerak. Europass, Ploteus.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Tituludunaren lan- eta lanbide-ibilbiderako etengabeko prestakuntzak duen garrantzia baloratzea. - Norberaren ikaskuntzaz arduratzea. Eskakizunak eta aurreikusitako emaitzak ezagutzea. - Autoenplegua lan-mundura sartzeko hautabidetzat balioestea. - Lan-munduan egoki txertatzeko lan-ibilbideak baloratzea. - Lanarekiko konpromisoa. Lortutako trebakuntza baliaraztea.

2. GATAZKA ETA LANTALDEAK KUDEATZEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Antolakundeare pertsona talde gisa aztertzea. - Antolamendu-egiturak aztertzea. - Kideek lan-taldean izan ditzaketen eginkizunak aztertzea. - Antolakundeetako gatazken sorrera aztertzea: espazioak, ideiak eta proposamenak partekatzea. - Gatazka motak, esku-hartzaileak eta horien abiapuntuko jarrerak aztertzea. - Gatazkek ebazteke moduak, bitartekotza eta jardunbide egokiak aztertzea. - Lan-taldeen sorrera aztertzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Enpresa baten antolamendu-egitura, xede bat lortzeke pertsona-talde gisa. - Talde motak sektorereko industrian, dituzten eginkizunen arabera. - Lan-taldeen sorrera aztertzea. - Komunikazioa, taldeak sortzean arrakasta lortzeke oinarrizko elementu gisa. - Lan-talde eraginkorraren ezaugarriak. - Gatazka definitzea: haren ezaugarriak, sorburuak eta etapak. - Gatazkek ebazteke edo ekiditeke metodoak: bitartekaritza,

	adiskidetzeta eta arbitrajea.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Enpresa-helburuak lortzeko pertsonen ekarpena balioestea. - Antolamenduaren eraginkortasunean talde-lanak dituen abantailak eta eragozpenak balioestea. - Talde-lanerako funtsezko faktoretzat komunikazioa baloratzea. - Lan-taldeetan sor daitezkeen gatazkak ebazteko partaidetzazko jarrera izatea. - Gatazkak ebazteko sistemak aztertzea.

3. LAN KONTRATUAREN ONDORIOZKO LAN BALDINTZAK	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lan-zuzenbidearen iturriak aztertzea eta hierarkiaren arabera sailkatzea. - Langileen Estatutuari buruzko Legearen Testu Bateginean arautzen diren lan-jardueren ezaugarriak aztertzea. - Kontratu-modalitate ohikoenak formalizatu eta alderatzea, haien ezaugarrien arabera. - Nomina interpretatzea. - Dagokion lanbide-jarduerako sektorerako hitzarmen kolektiboa aztertzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lan-zuzenbidearen oinarritzko iturriak: Konstituzioa, Europar Batasunaren zuzentarauak, Langileen Estatutua, Hitzarmen Kolektiboa. - Lan-kontratua: kontratuaren elementuak, ezaugarriak eta formalizazioa, gutxieneko edukiak, enpresaburuaren betebeharrak, enpleguari buruzko neurri orokorrak. - Kontratu motak: mugagabeak, prestakuntzakoak, aldi baterakoak, lanaldi partzialekoak. - Lanaldia: iraupena, ordutegia, atsedenaldiak (laneko egutegia eta jaiegunak, oporrak, baimenak). - Soldata: motak, ordainketa, egitura, aparteko ordainsariak, soldataz kanpoko eskuratzekoak, soldata-bermeak. - Soldata kenkariak: kotizazio-oinarriak eta ehunekoak, PFEZa. - Kontratua aldatu, eten eta deuseztatzea. - Ordezkaritza sindikala: sindikatuaren kontzeptua, sindikatzeo eskubidea, enpresa-elkarteak, gatazka kolektiboak, greba, ugazaben itxiera. - Hitzarmen kolektiboa. Negoziazio kolektiboa. - Lan-antolamenduaren ingurune berriak: kanpora ateratzea, telelana...
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lana arautzeko beharra baloratzea. - Bere jarduera profesionalari dagokion sektorearen lan-harremanetan aplikatzen diren arauak ikasteko interesa izatea. - Aurreikusitako legezko bideak laneko gatazken ebazpide gisa aintzat hartzea. - Langileen kontratazioan etika eskaseko eta legez kanpoko jardunak baztertzea, batez ere premia handienak dituzten kolektiboei dagokienez. - Gizartea hobetzeko eragile gisa, sindikatuen eginkizuna aintzat hartu eta balioestea.

4. GIZARTE SEGURANTZA, ENPLEGUA ETA LANGABEZIA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte Segurantzako sistema orokorra unibertsala izateak duen garrantzia aztertzea. - Gizarte Segurantzaren prestazioei buruzko kasu praktikoak ebaztea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Gizarte Segurantzako sistema: aplikazio-esparrua, egitura, araubideak, erakunde kudeatzaileak eta laguntzaileak. - Enpresaburuen eta langileen betebeharrak nagusiak Gizarte Segurantzaren arloan: afiliazioak, altak, bajak eta kotizazioa. - Babes-ekintza: osasun-asistentzia, amatasuna, aldi baterako ezintasuna eta ezintasun iraunkorra, baliaezintasun gabeko lesio iraunkorrak, erretiroa, langabezia, heriotza eta biziraupena. - Prestazioen motak, eskakizunak eta kopurua. - Langileak euren eskubideen eta betebeharren inguruan aholkatzeko sistemak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Herritarren bizi-kalitatea hobetzeko Gizarte Segurantzaren eginkizuna aintzat hartzea. - Gizarte Segurantzarako kotizazioan nahiz prestazioetan iruzurrezko jokabideak gaitzestea.

5. ARRISKU PROFESIONALAK EBALUATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lan-baldintzak aztertu eta zehaztea. - Arrisku-faktoreak aztertzea. - Segurtasun-baldintzei lotutako arriskuak aztertzea. - Ingurumen-baldintzei lotutako arriskuak aztertzea. - Baldintza ergonomikoei eta psikosozialei lotutako arriskuak aztertzea. - Enpresaren arrisku-esparruak identifikatzea. - Lanbide-eginkizunaren arabera arrisku-protokoloa ezartzea. - Lan-istripuaren eta lanbide-gaixotasunaren artean bereiztea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Arrisku profesionalaren kontzeptua. - Enpresan arriskuak ebaluatzea, prebentzio-jardueraren oinarriko elementu gisa. - Profilari lotutako lan-ingurunearen berriazko arriskuak. - Antzemandako arrisku-egoeren ondorioz langilearen osasunean eragin daitezkeen kalteak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Lanbide-jardueraren fase guztietan prebentzioaren kulturak duen garrantzia. - Lanaren eta osasunaren arteko lotura balioestea. - Prebentzio-neurriak hartzeko interesa azaltzea. - Enpresan prebentziorako prestakuntza ematearen garrantzia balioestea.

6. ENPRESAN ARRISKUEN PREBENTZIOA PLANIFIKATZEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Planifikazio- eta sistematizazio-prozesuak bideratzea, oinarriko prebentzio-tresna gisa. - LAP Laneko Arriskuen Prebentziora buruzko oinarriko araua
-----------------------	---

	aztertzea. - LAParen arloko egitura instituzionala aztertzea. - Lan-ingurunerako larrialdi-plan bat egitea. - Zenbait larrialdi-plan bateratu eta aztertzea.
kontzeptuzkoak	- Lanak giza osasunean eta segurtasunean dituen ondorioak. - Eskubideak eta betebeharrak laneko arriskuen prebentzioaren arloan. - Erantzukizunak laneko arriskuen prebentzioaren arloan. - LAPean eta osasunean esku hartzen duten eragileak eta horien eginkizunak. - Prebentzioaren kudeaketa enpresan. - Langileen ordezkariak prebentzioaren arloan (LAPeko oinarrizko teknikaria). - Laneko arriskuen prebentzioarekin zerikusia duten erakunde publikoak. - Prebentzioaren plangintza enpresan. - Larrialdi- eta ebakuazio-planak lan-inguruneetan.
jarrerazkoak	- LAParen garrantzia eta beharra baloratzea. - LAPeko eta LO Laneko Osasuneko eragile gisa duen posizioa baloratzea. - Erakunde publikoek eta pribatuek LOan errazago sartzeko egindako aurrerapenak baloratzea. - Bere ezagutza baloratzea eta dagokion kolektiboaren larrialdi-planei zabaltea.

7. ENPRESAN PREBENTZIO ETA BABES NEURRIAK APLIKATZEA

prozedurazkoak	- Norbera babesteko teknikak identifikatzea. - Norbera babesteko neurriak erabiltzeko garaiak enpresak eta banakakoek dituzten betebeharrak aztertzea. - Lehen laguntzetako teknikak aplikatzea. - Larrialdi-egoerak aztertzea. - Larrialdietarako jardun-protokoloak egitea. - Langileen osasuna zaintzea.
kontzeptuzkoak	- Banako eta taldeko prebentzio- eta babes-neurriak. - Larrialdi-egoera batean jarduteko protokoloa. - Larrialdi medikoa / lehen laguntzak. Oinarrizko kontzeptuak. - Seinale motak.
jarrerazkoak	- Larrialdien aurreikuspena balioestea. - Osasuna zaintzeko planen garrantzia baloratzea. - Proposatutako jardueretan bete-bete parte hartzea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Edukiak sekuentziatu eta antolatzeko proposamen hau ikasleak egiten ari den heziketa-zikloa amaitzean jarraituko duen lan-munduratzeko ibilbidearen logikan oinarritzen da, hau



da: zikloa amaitzen duenetik lana lortu eta lan horretan finkatu arte edota lan-harremana amaitu arte eman beharko dituen urratsak.

Ikasleak jarraituko duen ibilbideak 4 une hauek izango ditu:

- a) Lana bilatzea.
- b) Enpresan sartzea eta egokitzeko aldia.
- c) Lanpostuan jardutea.
- d) Lan-harremana amaitzea eta enpresa uztea.

a) Lana bilatzea:

Heziketa-zikloa amaitu ondoren ikasleak egin beharreko lehen gauza lana bilatzea da, eta hori da LPO modulua hasieran eduki horiek garatzeko proposamenaren arrazoia. Zehazki, gai hauei buruzko edukiak garatuko dira:

- Lanbide-proiektua eta -helburua.
- Europan lan egin eta ikasteko aukerak.
- Lan publikoan, pribatuan edo norberaren konturakoan sartzea.
- Lana bilatzeko informazio-iturriak.

b) Enpresan sartzea eta egokitzeko aldia:

Jarraian, ikasleak lana bilatzeko prozesuan arrakasta izan badu, enpresan sartzeko garaia iritsiko zaio. Lan-bizitzaren aldi horretan, honako eduki hauekin lotutako gaitasunak erabili beharko ditu:

- Lan-zuzenbidea eta haren iturriak.
- Lan-harremanen ondoriozko eskubideak.
- Kontratazio-modalitateak eta kontratazioa bultzatzeko neurriak.
- Gizarte Segurantzako sistema.
- Laneko hitzarmen kolektiboak.
- Enpresan sartzeko informazio-iturriak.

c) Lanpostuan jardutea:

Lanpostu berrian sartu eta egokitzeko hasierako aldia gaindituta, lanpostuan jarduteko aldia etorriko da. Aldi horrek legez jasotako edozein supoziotan lan-harremana amaitu arte iraungo du. Hona hemen aldi horrekin lotutako edukiak:

- Lan-baldintzak: soldata, lanaldia eta lan-atsedenaldia.
- Soldataren edo nominaren agiria eta horren edukiak.
- Gizarte Segurantzaren prestazioak eta izapideak.
- Kontratua aldatu eta etetea.
- Langileak euren eskubideen eta betebeharren inguruan aholkatzea.
- Langileen ordezkaritza.
- Negoziazio kolektiboa.
- Laneko gatazka kolektiboak.
- Talde-lana.
- Gatazka.
- Lan-antolamenduaren ingurune berriak.
- Langileentzako onurak antolamendu berrietan.
- Arrisku profesionalak.
- Prebentzio- eta babes-neurriak planifikatu eta aplikatzea.

d) Lan-harremana amaitzea eta enpresa uztea:

Lan-harremana amaituz gero, ikasleak aldi horri aurre egiteko beharrezko kompetentziak izan beharko ditu. Eduki hauek garatu behar dira:

- Lan-kontratua deuseztatzea eta horren ondorioak.
- Hartzekoen likidazioa edo kitatzea.
- Gizarte Segurantzarekin lotutako izapideak: bajak.
- Kontzeptua eta egoera babesgarriak langabezia-babesean.
- Langileak euren eskubideen eta betebeharren inguruan aholkatzeko sistemak.

Lan-harremana amaitzegtatik ikasleak enpresan jarraitzen ez badu, lana bilatzeko prozesuari ekin beharko dio berriz ere, enpresan sartzeko aldi berri bat hasiko du, etab.

2) Alderdi metodologikoak

Hasieran, egokia dirudi irakasleak moduluaren edukiak aurkeztu eta garatzea, hurbileneko gizarte- eta ekonomia-ingurunea erreferente gisa hartuta betiere.

Bigarren fasean, garrantzi handiagoa emango zaio ikaslearen parte-hartze eraginkorrari. Horretarako, kontzeptuak zehazteko, eta abileziak eta trebeziak garatzeko bidea emango dioten jarduerak egingo dira, taldeka nahiz banaka: ikasleen esperientzia pertsonalen berri ematea, prentsako albisteak erabiltzea, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) erabilera.

Talde-lanari eta sortzen diren gatazkei buruzko atala jorratzeko, ikasgelaren ingurunean izaten diren gatazkak, ikasle eta irakasleen arteko harremanak, familiako eta lagunen arteko gatazkak... erabil daitezke aldean portaerak eta arazoaren konponbideak aztertzeko.

Modulua garatzean, egokia dirudi adituen laguntzara jotzea (enpresa-batzordeetako kideak, sindikatuetakoa ordezkariak, lan-arloko abokatuak, eta abar), laneko egoerak eta gatazkak hurbiletik ezagutzeko.

Laneko arriskuen prebentzioari dagokionez, egokia dirudi lehen laguntzetako eta suteak itzaltzeko praktikak egitea, lantokietara bisitak egitea eta abar. Horretarako, erakundearen laguntza behar da, hala nola: Gurutze Gorria, Osalan, Lan Ikuskaritza, suteak itzaltzeko zerbitzuak, eta abar. Kontuan izan behar da ikasleak, modulua gainditu ondoren, laneko arriskuen prebentzioko oinarritzko mailako jardueretarako beharrezkoak diren lanbide-erantzukizunak hartzen dituela.

Gainera, metodologiari dagokionez, komeni da moduluaren edukiak metodologia aktiboen bidez garatzea, hala nola: talde-lana eta PBL-AOI arazoetan oinarritutako ikaskuntza.

Azkenik, lana bilatzeko teknikak behar bezala garatzeko, komenigarria litzateke kasu praktikoa bat aurrera eramatea eta ikasleek benetako enplegu-bilaketa egitea simulatzea: horretarako, normalean erabiltzen diren dokumentuak egingo dituzte (curriculumak, aurkezpen-gutuna), eta komunikabide ohikoenetan agertzen diren lan-erantzukizunak aukeratu dituzte.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Erreferentziako produkzio-sektorea deskribatzea:
 - Erreferentziako produkzio-sektorearen bilakaera aztertzea.
 - Sektoreren enplegatzeak aukerak identifikatzea.
 - Estatistikak eta taula makroekonomikoak erabiltzea.



- ✓ Lan-harremanen motak eta lan-kontratazioen modalitateak identifikatzea:
 - Lan-zuzenbidearen iturriak aztertzea.
 - Lan-kontratazioaren formak identifikatzea.
 - Lan-kontratuaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak identifikatzea (gizarte-babeseko sistema barne dela).
- ✓ Lantaldeak eta gatazkak ebazteko teknikak zehaztea:
 - Lantaldeen tipologia identifikatzea.
 - Gatazkak eta horiek ebazteko moduak aztertzea.
- ✓ Lanbide-jardunaren ondoriozko arrisku motak identifikatzea:
 - Lanbide-jardunak berekin dakartzan arriskuak ebaluatzea.
 - Laneko arriskuen prebentzio-teknikak identifikatzea.
- ✓ Prebentzio-plan jakin bat diseinatzea eta dauden beste batzuekin alderatzea:
 - Lehen laguntzetan erabiltzen diren teknikak identifikatzea.
- ✓ Lana bilatzeko erabiltzen diren baliabide motak deskribatzea:
 - Lana bilatzeko prozesuaren faseak identifikatzea.
 - Lana lortzeko beharrezko dokumentazioa betetzea.
 - IKTak lana bilatzeko tresna gisa erabiltzea.
 - Bizialdi osoko ikaskuntzaren garrantzia baloratzea.

14. lanbide-modulua

ENPRESA ETA EKIMEN SORTZAILEA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Enpresa eta ekimen sortzailea
Kodea:	1409
Heziketa-zikloa:	Genero-berdintasuna sustatzea
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	60 ordu
Kurtsoa:	2
Kreditu kop.:	4
Irakasleen espezialitatea:	Laneko prestakuntza eta orientabidea (Bigarren Hezkuntzako irakaslea)
Modulu mota:	Zeharkako modulua
Helburu orokorrak:	17 / 18 / 19 / 20 / 21 / 22 / 23 / 24

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Ekimen sortzaileari lotutako trebetasunak ezagutu eta aintzat hartzen ditu, eta lanpostuen eta enpresa-jardueren ondoriozko eskakizunak aztertzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Berrikuntzaren kontzeptua, eta gizartearen aurrerabidearekin eta pertsonen ongizatea areagotzearekin duen lotura identifikatu du.
- Kultura ekintzailearen kontzeptua, eta enpleguaren eta gizarte-ongizatearen sorburu gisa duen garrantzia aztertu du.
- Norberaren ekimenaren, sormenaren, prestakuntzaren eta lankidetzaren garrantzia baloratu du, jarduera ekintzailean arrakasta lortzeko ezinbesteko eskakizuntzat.
- Sektoreko enpresa txiki eta ertain bateko enplegatuaeren lanerako ekimena aztertu du.
- Sektorean hasten den enpresaburu baten jarduera ekintzailea nola garatzen den aztertu du.
- Jarduera ekintzaile orenen elementu saihestezintzat aztertu du arriskuaren kontzeptua.
- Enpresaburuaren kontzeptua, eta enpresa-jarduera garatzeko beharrezko eskakizunak eta jarrerak aztertu ditu.

2. Enpresa txiki bat sortzeko aukera zehazten du, enpresa-ideia aukeratzen du eta haren bideragarritasuna oinarritzen duen merkatu-azterketa egiten du, jardun-ingurunearen gaineko eragina baloratuta eta balio etikoak gaineratuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Negozio-ideiak sortzeko prozesu bat garatu du.
- b) Tituluarekin lotutako negozio baten esparruan ideia jakin bat hautatzeko prozedura sortu du.
- c) Hautatutako negozio-ideiaren inguruko merkatu-azterketa egin du.
- d) Merkatu-azterketatik ondorioak atera ditu eta garatu beharreko negozio-eredua ezarri du.
- e) Negozio-proposamenaren balio berritzaileak zehaztu ditu.
- f) Enpresen gizarte-erantzukizunaren fenomeno eta enpresa-estrategiaren elementu gisa duen garrantzia aztertu ditu.
- g) Tituluarekin zerikusia duen enpresa baten Balantze Soziala egin du, eta sorrarazten dituen kostu eta mozkin sozial nagusiak deskribatu ditu.
- h) Sektoreko enpresetan, balio etikoak eta sozialak gaineratzen dituzten ohiturak identifikatu ditu.
- i) Tituluarekin zerikusia duen enpresa txiki eta ertain baten bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioari buruzko azterketa egin du.
- j) Enpresa-estrategia deskribatu du eta enpresaren helburuekin lotu du.

3. Enpresa-plan bat egiteko eta, ondoren, hura abiarazi eta eratzeko jarduerak egiten ditu. Dagokion forma juridikoa hautatzen du eta, horren arabera, legezko betebeharrak identifikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Enpresa baten oinarrizko eginkizunak deskribatu ditu eta enpresari aplikatutako «sistema» kontzeptua aztertu du.
- b) Enpresaren ingurune orokorraren osagai nagusiak identifikatu ditu; batik bat, ingurune ekonomiko, sozial, demografiko eta kulturalarenak.
- c) Berariazko ingurunearen osagai nagusi diren heinean, bezeroekiko, hornitzaileekiko eta lehiakideekiko harremanek enpresa-jardueran duten eragina aztertu du.
- d) Sektoreko ETE baten ingurunearen elementuak identifikatu ditu.
- e) Enpresa-kulturaren eta irudi korporatiboaren kontzeptuak, eta horiek enpresa-helburuekin duten lotura aztertu ditu.
- f) Enpresaren forma juridikoak aztertu ditu.
- g) Hautatutako forma juridikoaren arabera, enpresaren jabeek legez duten erantzukizun-maila zehaztu du.
- h) Enpresen forma juridiko bakoitzarentzat ezarritako tratamendu fiskala bereizi du.
- i) Indarrean dagoen legeriak ETE bat eratzeko exijitutako izapideak aztertu ditu.
- j) Erreferentziazko herrian sektoreko enpresak sortzeko dauden laguntza guztiak bilatu ditu.
- k) Enpresa-planean, forma juridikoa aukeratzearekin, bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioarekin, administrazio-izapideekin, diru-laguntzekin eta bestelako laguntzekin zerikusia duen guztia barne hartu du.
- l) ETE bat abian jartzeko dauden kanpoko aholkularitza eta administrazio-kudeaketako bideak identifikatu ditu.

4. ETE baten oinarrizko kudeaketa administratibo eta finantzarioko jarduerak egiten ditu: kontabilitate- eta zerga-betebehar nagusiak identifikatzen ditu, eta dokumentazioa betetzen du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Kontabilitatearen oinarrizko kontzeptuak eta kontabilitate-informazioa erregistratzeko teknikak aztertu ditu.

- b) Kontabilitate-informazioa aztertzeko oinarrizko teknikak deskribatu ditu, batez ere, enpresaren kaudimenari, likideziari eta errentagarritasunari dagokienez.
- c) Tituluarekin zerikusia duen enpresa baten zerga-betebeharrak zehaztu ditu.
- d) Zerga-egutegian, zerga motak bereizi ditu.
- e) Sektoreko enpresa txiki eta ertain batentzako merkataritza eta kontabilitateko oinarrizko dokumentazioa bete du (fakturak, albaranak, eskabide-orriak, kanbio-letrak, txekeak eta bestelakoak), eta dokumentazio horrek enpresan egiten duen bidea deskribatu du.
- f) Banku-finantzaketako tresna nagusiak identifikatu ditu.
- g) Dokumentazio hori enpresa-planean barne hartu du.

c) Oinarrizko edukiak:

1. EKIMEN SORTZAILEA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Tituluari lotutako sektorearen jardueran berrikuntzak dituen ezaugarri nagusiak azterzea (materialak, teknologia, prozesuaren antolamendua, etab.). - Ekintzaileen faktore garrantzitsuenak azterzea: ekimena, sormena, lidergoa, komunikazioa, erabakiak hartzeko ahalmena, plangintza eta prestakuntza. - Jarduera ekintzailean arriskua ebaluatzea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Sektoreko berrikuntza eta garapen ekonomikoa. - Kultura ekintzailea gizarte-behar gisa. - Enpresaburuaren kontzeptua. - Ekintzaileen jarduna sektoreko enpresa bateko enplegatu gisa. - Ekintzaileen jarduna enpresaburu gisa. - Ekintzaileen arteko lankidetzak. - Enpresa-jardueran aritzeko eskakizunak. - Negozio-idea lanbide-arloaren esparruan. - Kultura ekintzaileari lotutako jardunbide egokiak tituluari dagokion jarduera ekonomikoan eta toki-esparruan.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Izaera ekintzailea eta ekintzailetzaren etika baloratzea. - Ekimena, sormena eta erantzukizuna balioestea ekintzailetzaren bultzatzaile gisa.

2. ENPRESA IDEIAK, INGURUNEA ETA HAIEN GARAPENA	
prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Enpresa-ideiak zehazteko tresnak aplikatzea. - Internet bidez, sektoreko enpresei buruzko datuak bilatzea. - Garatu beharreko enpresaren ingurune orokorra azterzea. - Lanbide-arloko ereduak enpresa bat azterzea. - Ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatzea. - Merkatu-azterketaren ondorioetatik abiatuta, negozio-eredua ezartzea. - Erabakitako ideien gainean berrikuntza-eraketak egitea.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Enpresaren betebeharrak berariazko ingurunearekiko eta sozietate osoarekiko (garapen jasagarria). - Lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egitea.

	<ul style="list-style-type: none"> - Sektoreko enpresen erantzukizun soziala eta etikoa. - Merkatu-azterketa: ingurunea, bezeroak, lehiakideak eta hornitzaileak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Enpresaren balantze soziala aintzat hartu eta baloratzea. - Genero-berdintasuna errespetatzea. - Enpresa-etika baloratzea.

3. ENPRESA BATEN BIDERAGARRITASUNA ETA ABIARAZTEA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Marketin-plana ezartzea: komunikazio-politika, prezioen politika eta banaketaren logistika. - Produkzio-plana prestatzea. - Sektoreko enpresa baten bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa aztertzea. - Enpresaren finantzaketa-iturriak aztertzea eta haren aurrekontua egitea. - Forma juridikoa hautatzea. Tamaina eta bazkide kopurua.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Enpresaren kontzeptua. Enpresa motak. - Enpresa baten funtsezko elementuak eta arloak. - Zerga arloa enpresetan. - Enpresa bat eratzeko administrazio-izapideak (Ogasuna eta Gizarte Segurantza, besteak beste). - Lanbide-arloko enpresentzako diru-laguntzak, bestelako laguntzak eta zerga-pizgarriak. - Enpresaren jabeek duten erantzukizuna.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa zorrotasunez ebaluatzea. - Administrazio- eta legezko izapideak betetzea.

4. ADMINISTRAZIO FUNTZIOA

prozedurazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Kontabilitate-informazioa aztertzea: diruzaintza, emaitzen kontua eta balantzea. - Dokumentu fiskalak eta lanekoak betetzea. - Merkataritza-dokumentuak betetzea: fakturak, txekeak, letrak, etab.
kontzeptuzkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Kontabilitatearen kontzeptua eta oinarrizko ideiak. - Kontabilitatea, egoera ekonomikoaren irudi zehatz gisa. - Enpresen legezko betebeharrak (fiskalak, lanekoak eta merkataritzakoak). - Dokumentu ofizialak aurkezteko eskakizunak eta epeak.
jarrerazkoak	<ul style="list-style-type: none"> - Sortutako administrazio-dokumentuei dagokienez, antolamendua eta ordena baloratzea. - Administrazio- eta legezko izapideak betetzea.

d) Orientabide metodologikoak

Modulu hau irakatsi eta ikasteko prozesua antolatu eta garatzeko, honako gomendio hauek iradokitzen ditugu:

1) Sekuentziazioa

Modulu honi ekiteko, komenigarria litzateke ikaslea jarrera ekintzailearekin mentalizatzea, bai norberaren konturako bai besteren konturako langile gisa.

Ondoren, enpresa-ideien inguruan gogoeta eginaraziko zaio eta ideia horiek hautatzeko metodologia egokiak erakutsiko zaizkio. Lehentasunez, dagokion lanbide-arloaren ingurunean lan egingo dute; baina, hala ere, ez dira baztertzen beste lanbide-sektore batzuk.

Enpresa-idea garatzen jarraituko da: merkatu-azterketa egin, negozio-idea jorratu, ideia horren euskarri den enpresa diseinatu eta, ikuspegi sozialetik, etikotik eta ingurumenekotik, ingurunearen gaineko eragina baloratu.

Enpresa-plana egingo da. Horretarako, haren bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta finantzarioa, eta beste alderdi batzuk, besteak beste, marketin-plana, giza baliabideak, forma juridikoa eta abar aztertuko dira.

Azkenik, kontabilitatearen, zergen eta administrazio-kudeaketaren inguruko oinarritzko kontzeptuak azalduko zaizkio ikasleari.

2) Alderdi metodologikoak

Modulu honetan, irakasleak entrenatzaile-lana egingo du batik bat. Proiektuen tutoretza eramango du eta, taldearen beharren arabera, bideratzaile gisa jardungo du.

Irakasleak helburuak aurkeztu eta bideari ekiteko beharrezko ezagupenen sarrera laburra egin ondoren, ikasleak berak landuko du enpresa-proiektua arian-arian, bere konturako nahiz besteren konturako ekintzailatza-trebetasunak bereganatzearen.

Ikasleek proiektuan aurrera egiten duten heinean, irakasleak beharrezko ezaguerak helaraziko dizkie azalpenen edo gelan garatutako jardueren bitartez, edo liburu edo artikulua jakin batzuk irakurrarazi eta gero horien edukia ikasturteko proiektura egokitzeko lan bat eginez.

Irakasleak ikasleen ikasteko prozesuaren jarraipen hurbilekoa eta banan-banakoa egin behar du. Horretarako, kontrol-zerrenda batean, aurrerapenak eta zailtasunak idatziz jaso behar ditu sistematikoki.

3) Jarduera esanguratsuak eta ebaluazioaren alderdi kritikoak

- ✓ Ekintzaile-mentalizazioan sensibilizatzea:
 - Euskal Herriko enpresa-ehuna identifikatzea. Sectoreak, tamaina, forma juridikoak, etab.
 - Enpresaburuaren ezaugarriak eta gaitasunak jasoko dituen erretratua egitea.
 - Enpresaburu izatearen abantailak eta eragozpenak bilduko dituen taula egitea.
 - Sektorean alderdi berritzaile txikiak identifikatzea.



- Besteren konturako ekintzailearen, norberaren konturako ekintzailearen eta gizarte-ekintzailearen arteko desberdintasunak eta antzekotasunak aztertzea, talde-laneko indukzio-tekniken bidez.
- ✓ Enpresa-ideiak garatzea:
 - Merkatuaren beharrei erantzungo dieten negozio-ideiekin taula bat egitea.
 - Lantaldeak sortzea eta horiek garatu beharreko ideiak hautatzea.
 - Merkatu-azterketa bat egitea, ingurunea behatuta, Internet erabilita, etab.
 - Hautatutako negozioirako AMIA (ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak) matrizea egitea.
 - Ideiari alderdi sortzaileak eta berritzaileak aplikatzea.
 - Negozio-eredua prestatzea, alderdi etikoak, sozialak eta ingurumenekoak kontuan izanda.
- ✓ Enpresa baten bideragarritasuna eta abiaraztea:
 - Ezarritako ereduari jarraituz enpresa-plan bat egitea.
 - Finantza-erakunde bati mailegua eskatzea (ahal dela, benetako izapideen bidez).
 - Enpresak eratzeko inprimakiak betetzea.
 - Internet erabilita, diru-laguntzak eta bestelako laguntzak bilatu eta aztertzea.
 - Enpresa-planak bateratu eta defendatzea.
- ✓ Administrazio-izapideak aztertu eta betetzea:
 - Diruzaintzako plan bat, emaitzen kontua eta egoera-balantzea aztertzea.
 - Dokumentu fiskalak eta lanekoak betetzea.
 - Merkataritza-dokumentuak betetzea: fakturak, txekeak, letrak, etab.

15. lanbide-modulua

LANTOKIKO PRESTAKUNTZA

a) Aurkezpena

Lanbide-modulua:	Lantokiko prestakuntza
Kodea:	1410
Heziketa-zikloa:	Genero-berdintasuna sustatzea
Maila:	Goi-maila
Lanbide-arloa:	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Iraupena:	360 ordu
Kurtsua:	2
Kreditu kop.:	22
Irakasleen espezialitatea:	Gizarte arloko esku-hartzea (Bigarren Hezkuntzako irakaslea) Gizartearentzako zerbitzuak (Lanbide Heziketako irakasle teknikoa)
Modulu mota:	Lanbide-profilari lotua
Helburu orokorrak:	Guztiak

b) Ikaskuntzaren emaitzak eta ebaluazio-irizpideak

1. Enpresaren egitura eta antolamendua identifikatzen ditu, eta horiek enpresak egiten duen zerbitzu motarekin erlazionatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- Enpresaren antolamendu-egitura eta arlo bakoitzaren eginkizunak identifikatu ditu.
- Enpresaren egitura sektorean dauden ereduzko enpresa-antolamenduekin alderatu du.
- Zerbitzuaren ezaugarriak eta bezero mota enpresa-jardueraren garapenarekin lotu ditu.
- Zerbitzugintza garatzeko lan-prozedurak identifikatu ditu.
- Jarduera behar bezala garatzeko giza baliabideen beharrezko kompetentziak baloratu ditu.
- Jarduera honetan ohikoenak diren hedabideen egokitasuna identifikatu du.

2. Lanbide-jarduera garatzean ohitura etikoak eta lanekoak aplikatzen ditu, lanpostuaren eta enpresan ezarritako prozeduren arabera.

Ebaluazio-irizpideak:



- a) Aintzat hartu eta justifikatu ditu:
 - lanpostuan beharrezkoa den langileen eta denboraren eskuragarritasuna.
 - lanposturako beharrezkoak diren jarrera pertsonalak (besteak beste, puntualtasuna eta enpatia) eta profesionalak (besteak beste, ordena, garbitasuna eta erantzukizuna).
 - jarrerazko eskakizunak lanbide-jarduerak dituen arriskuen prebentzioaren aurrean.
 - lanbide-jardueraren kalitatearekin zerikusia duten jarrerazko eskakizunak.
 - lantaldearekin eta enpresan ezarritako hierarkiekin lotutako jarrerak.
 - lanaren esparruan egiten diren jardueren dokumentazioarekin zerikusia duten jarrerak.
 - profesionalaren jardun egokiarekin lotuta, esparru zientifikoan eta teknikoan laneratzeko eta berriro laneratzeko prestakuntza-beharrak.
- b) Laneko arriskuen prebentzioari buruzko arauak identifikatu ditu, baita lanbide-jardueran aplikatzekoa den Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen oinarritzko alderdiak ere.
- c) Jarduera profesionalak dituen arriskuen arabera eta enpresaren arauen arabera jarri du abian norbera babesteko tresneria.
- d) Garatu dituen jardueretan ingurumena errespetatzeko jarrera izan du.
- e) Antolatuta, garbi eta oztoporik gabe mantendu du lanpostua edo jarduera garatzeko eremua.
- f) Zuzendu zaion lanaz arduratu da, jasotako argibideak interpretatuz eta betez.
- g) Egoera bakoitzean ardura duen pertsonarekin eta taldekideekin komunikazio eraginkorra ezarri du.
- h) Gainerako taldekideekin koordinatu da eta sortzen diren gertakaririk adierazgarrienak komunikatu ditu.
- i) Bere jardueraren garrantzia eta zereginen aldaketetara egokitzeko beharra baloratu du.
- j) Lana garatzean arauak eta prozedurak aplikatzeaz arduratu da.

3. Genero-indarkeria prebenitzeko edota berdintasuna sustatzeko jarduera prestatzeko eragiketak egiten ditu, eta, horretarako, erakundean edo enpresan ezarritako arauen eta jarraibideen araberrako teknikak eta prozedurak aplikatzen ditu.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Genero-indarkeria prebenitzeko edota berdintasuna sustatzeko jarduera prestatzeko jasotako jarraibideak interpretatu ditu.
- b) Garatu beharreko lan-prozesuak prestatzearekin lotzen den dokumentazioa identifikatu du.
- c) Ezarritako arauen eta jarraibideen araberrako kontrol-prozedurak erabili ditu.
- d) Genero-indarkeria prebenitzeko edota berdintasuna sustatzeko jarduera garatuko den espazioen egokitzapen-beharrak identifikatu ditu.
- e) Jarduerari hasiera emateko irizpideak behar bezala aplikatu ditu, ezarritako arauak eta jarraibideak kontuan izanik.
- f) Zerbitzuaren hartzaileen beharrak ezagutu eta finkatu ditu, ezarritako protokoloak kontuan hartuta.
- g) Erabiltzaileekin lehen harremana izateko prozedurak behar bezala egin ditu, bitartekoak erabilia eta teknikak aplikatuta, ezarritako jarraibideen eta/edo arauen araberrak.
- h) Genero-indarkeria prebenitzeko edota berdintasuna sustatzeko jarduera prestatzeko prozesuan sortutako zailtasunak identifikatu ditu.

4. Lan-plangintzan aurreikusten diren jarduerak inplementatzen ditu, eta, horretarako, garatu beharreko jardueren berezko prozeduren eta tekniken aplikazioarekin lotzen ditu ezarritako arauak eta jarraibideak.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Genero-indarkeria prebenitzeko edota berdintasuna sustatzeko jarduera egiteko jasotako jarraibideak interpretatu ditu.
- b) Garatu beharreko lan-prozesuekin lotzen den dokumentazioa identifikatu du.
- c) Ezarritako prozedurei jarraituz egin ditu zereginak.
- d) Lanbidearen irizpide deontologikoak kontuan izanik egin ditu lan-jarduera guztiak.
- e) Erabiltzaileei buruzko informazioaren konfidentziasuna errespetatu du.
- f) Erabiltzaile, egoera edo zereginen arabera jarrera egokiak erabili ditu.
- g) Jarduerarako baliabide tekniko egokiak erabili ditu.
- h) Baliabide teknikoen erabileran ezarritako prozedurei jarraitu die.
- i) Erabilitako teknikak zerbitzuaren hartzaileen beharrekin lotu ditu.

5. Segurtasun- eta higiene-irizpideak betetzen ditu, eta higiene- eta osasun-arauak, laneko segurtasunekoak eta ingurumena babestekoak aintzat hartuta jarduten du.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Legezko araudiarekin lotutako nahitaez bete beharreko higiene- eta osasun-arauak, eta enpresaren beraren berariazkoak antzeman ditu.
- b) Higiene- eta osasun-arazoak edo segurtasun-arazoak eragin ditzaketen portaera edo jarrera guztiak ezagutu ditu.
- c) Jarduerarako jantzi egokiak erabili ditu.
- d) Laneko arriskuen prebentzioari dagokionez lanbide-jardueran aplikatu beharreko arauak eta aplikatzekoa den legeriaren oinarritzko alderdiak identifikatu ditu.
- e) Garatutako jardueretan, ingurumena errespetatzeko jarrera argia izan du, eta horrekin lotutako barruko eta kanpoko arauak aplikatu ditu.
- f) Hondakinak biltzeko, hautatzeko, sailkatzeko eta ezabatzeko edo isurtzeko eragiketak aplikatu ditu.

6. Egindako zerbitzua aztertzen du, esku hartzeko prozeduraren kalitate-irizpideekin lotuta.

Ebaluazio-irizpideak:

- a) Genero-indarkeria prebenitzeko edota berdintasuna sustatzeko jarduera egiteko jasotako jarraibideen betetze-maila baloratu du.
- b) Norberaren jarduera kontrolatzeko eta jarraipena egiteko prozesuarekin lotzen den dokumentazioa identifikatu du.
- c) Jarduerak egiteko moduarekiko jarrera kritikoa erakutsi du.
- d) Zereginak egiteko ezarritako prozedurari jarraitu zaiola egiaztatu du.
- e) Lanbide-jarduerak egitean, lanbidearen irizpide deontologikoak aplikatu ditu.
- f) Erabilitako baliabideen eta tekniken egokitzapena argudiatu du.

c) Lanpostuko ikaskuntza-egoerak

Jarraian, lantokiko egonaldian ikasleak gara ditzakeen jarduerak islatzen dituzten zenbait lan-egoera adierazten dira.

- ✓ Enpresaren antolamendu-egitura eta arlo bakoitzaren eginkizunak aztertzea:
 - Enpresaren antolamendu-egitura eta arlo bakoitzaren eginkizunak identifikatzea.

- ✓ Ohitura etikoak eta lanekoak aplikatzea lanbide-jarduera garatzean, lanpostuaren ezaugarrien eta enpresan ezarritako prozeduren arabera:
 - Laneko arriskuen prebentzioari buruzko arauak identifikatzea, baita lanbide-jardueran aplikatzekoa den Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen oinarritzko alderdiak ere.
 - Garatutako jardueretan ingurumena errespetatzeko jarrera izatea.
 - Zuzendu zaion lanaz arduratzea, jasotako argibideak interpretatuz eta betez.
 - Egoera bakoitzean ardura duen pertsonarekin eta taldeko kideekin komunikazio eraginkorra ezartzea.
 - Lana garatzean arauak eta prozedurak aplikatzeaz arduratzea.
- ✓ Informazio- eta komunikazio-jardunak planifikatzea, diseinatzea eta antolatzea, ikuspegi ez-sexista eta ez-diskriminatzailea erabilita.
- ✓ Prozesu osoa ebaluatzea eta kalitate-kontrola egitea informazio eta komunikazioko esku-hartzeetan, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren ikuspegitik.
- ✓ Komunikabideetako edukiei buruzko azterketa eta gogoeta egitea, banaka zein taldeka: prentsa digitala, ikus-entzunezko produkzioak, sare sozialak, blogak, webguneak, prentsa idatzia, informazio-liburuxkak, kontsumo-produktuen zein jostailuen katalogoak, eta abar, betiere genero-indarkeriaren prebentzioarekin lotuta.
- ✓ Gatazkak ebazteko teknika eta baliabideekin saioak egitea.
- ✓ Sentsibilizazio-kanpainak aztertzea eta lantzea, Internet bidez hainbat baliabide eta teknika (grafikoak eta ikus-entzunezkoak) erabilita.
- ✓ Genero-indarkeriazko egoeren prebentzian, aholkularitzan eta zuzeneko esku-hartzean inplikaturako erakundeetara bisita egitea.
- ✓ Elkarrizketak egitea genero-indarkeriaren prebentzian esku hartzeko profesionalekin, hainbat organismo eta erakunderekin: hirugarren sektoreko enpresak, GKEak, udalak, foru-aldundiak, Eusko Jaurlaritza.
- ✓ Galdetegiak lantzea eta praktikan jartzea. Elkarrizketak egiteko, entzute aktiboko teknika eta abarrekin saioak egitea.
- ✓ Ekintza eta programen gidioa osatzea eta balorazio-elkarrizketak egitea (banakakoak/taldekoak).
- ✓ Memoriak eta txostenak egitea, gauzatutako programa edo ekintzen emaitza eta balorazioetatik abiatuta.
- ✓ Enplegua sortu, bertara sartu eta mantentzearen inguruko aholkularitza.
- ✓ Enplegura sartzeko ekimen ekintzaileak, beharrak eta zailtasun bereziko egoerak, *mentoringa* erabiltzeko bide ematen dutenak:
 - Informazioa aztertzea, enplegu-sorgune potentzialak aurkituta.
 - Ingurune positiboak identifikatzea, emakumeek ekimen ekintzaileak egin ditzaten bultzatuta.
- ✓ Genero-berdintasun eraginkorraren inguruko informazio- eta sentsibilizazio-ekintzak diseinatu, antolatu eta aplikatzea, esku-hartzea gerta daitekeen esparru guztietan.

- ✓ Elkarrizketak egitea hainbat emakume-talderi, gai hauen inguruan, adibidez: beren interes eta beharrak, parte hartu eta eragin nahiko luketen gai eta erabakiak, hori egiteko ikusten dituzten zailtasunak, parte hartu ala ez erabakitzen duten arrazoiak.
- ✓ Ariketa praktikoak egitea, autonomia pertsonala eta ahalduntzea garatzeko.
- ✓ Lan-testuinguruetan, entzute aktiboko, motibatze, gainbegiratzeko eta komunikatzeko teknikak garatzea eta haiekin esperimendatzea, eta horiek egokitzea, esku-hartzea banakakoa zein taldekakoa den kontuan hartuta.
- ✓ Norberaren bizitza, familia eta lanekoa uztartzeari buruzko ekintzak, eta horien eragina laneko osasunean eta denboren kudeaketan.
- ✓ Lan-plangintzan aurreikusten diren jarduerak ezartzea, eta, horretarako, garatu beharreko jardueren berezko prozeduren eta tekniken aplikazioarekin lotzea ezarritako arauak eta jarraibideak:
 - Ezarritako prozedurei jarraituz egitea zereginak.
 - Lan-jarduera guztiak lanbidearen irizpide deontologikoak kontuan izanik egitea.
 - Erabiltzaile, egoera edo zereginen araberrako jarrera egokiak erabiltzea.
 - Jarduerarako baliabide tekniko egokiak erabiltzea.
- ✓ Segurtasun- eta higie-ne-irizpideak betetzea, eta higie-ne- eta osasun-arauak, laneko segurtasunekoak eta ingurumena babestekoak aintzat hartuta jardutea:
 - Laneko arriskuen prebentzioari dagokionez lanbide-jardueran aplikatu beharreko arauak eta aplikatzekoa den legeriaren oinarritzko alderdiak identifikatzea.
 - Garatutako jardueretan, ingurumena errespetatzeko jarrera argia izatea, eta horrekin lotutako barruko eta kanpoko arauak aplikatzea.
- ✓ Ikasleak lan-zentroan egindako egonaldiari buruzko esperientzia aztertzea, komunikatzea eta baloratzea.
- ✓ Lanbide-orientazio pertsonala aztertzea, lan-zentroan izandako esperientzia kontuan hartuta.

4 GUTXIENeko ESPAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK

PRESTAKUNTZA ESPAZIOA	AZALERA (m ²) / 30 IKASLE	AZALERA (m ²) / 20 IKASLE
Balio anitzeko gela	60	40
Gizartearentzako zerbitzuetarako gela	150	100

4.2 Ekipamenduak:

PRESTAKUNTZA ESPAZIOA	EKIPAMENDUA
Balio anitzeko gela	<ul style="list-style-type: none"> - Ikus-entzunezko ekipoak. - Sarean instalatutako PCak, proiektzio-kanoiak eta Internet. - Arbela. - Hondakinen edukiontzia. - Irakasle mahaia, besaulkia eta guzti. - Ikasmahaia. - Esekigailuak. - Argazki-kamera digitala. - Sarraila duen armairua, informatika eta ikus-entzunezko tresneria gordetzeko. - Armairu-beira arasa, kristalezko atekin. - Apalategiak. - Software elkarreragilea. - Bideo-kamera. - Hormako proiektzio-pantaila.
Gizartearentzako zerbitzuetarako gela	<ul style="list-style-type: none"> - Lan-mahaia. - Aulkiak. - Irakasle mahaia, besaulkia eta guzti. - Arbel zuri finkoa. - Proiektzio-pantaila. - Proiektzio-kanoia eta Interneteko konexioa. - Armairua, sarrailarekin. - Armairu-beira arasa, kristalezko atekin. - Apalategiak - Irudi eta soinu digitaleko ekipamenduak. - Esekigailuak. - Hondakinen edukiontzia.

5. IRAKASLEAK

5.1 Irakasleen espezialitateak eta irakasteko eskumena Genero Berdintasuna Sustatzeko heziketa-zikloko lanbide-moduluetan.

LANBIDE MODULUA	IRAKASLEEN ESPEZIALITATEA	KIDEGOA
0017. Gizarte-trebetasunak	Gizarte arloko esku-hartzea	Bigarren Hezkuntzako irakaslea
0020. Lehen laguntzak	Osasun- eta laguntza-prozedurak Diagnostiko kliniko eta ortoprotesikoko prozedurak	Lanbide Heziketako irakasle teknikoa
	Irakasle espezialista	
0344. Gizartean esku hartzeko metodologia	Gizarte arloko esku-hartzea	Bigarren Hezkuntzako irakaslea
1128. Gizarte-garapena	Gizarte arloko esku-hartzea	Bigarren Hezkuntzako irakaslea
1401. Informazioa eta komunikazioa generoaren ikuspegitik	Gizarte arloko esku-hartzea	Bigarren Hezkuntzako irakaslea
1402. Genero-indarkeriaren prebentzioa	Gizartearentzako zerbitzuak	Lanbide Heziketako irakasle teknikoa
1403. Emakumeentzako enplegua sustatzea	Gizartearentzako zerbitzuak	Lanbide Heziketako irakasle teknikoa
1404. Berdintasuna sustatzeko jardun-esparruak	Gizarte arloko esku-hartzea	Bigarren Hezkuntzako irakaslea
1405. Emakumeen gizarte-mailako parte-hartzea	Gizarte arloko esku-hartzea	Bigarren Hezkuntzako irakaslea
1406. Berdintasunerako gizarte-hezkuntzazko esku-hartzea	Gizarte arloko esku-hartzea	Bigarren Hezkuntzako irakaslea
1407. Genero-berdintasuna sustatzeko proiektua	Gizarte arloko esku-hartzea	Bigarren Hezkuntzako irakaslea
	Gizartearentzako zerbitzuak	Lanbide Heziketako irakasle teknikoa
E-200 Ingeles teknikoa	Ingelesa	Bigarren Hezkuntzako irakaslea
1408. Laneko prestakuntza eta	Laneko prestakuntza eta	Bigarren Hezkuntzako

orientabidea	orientabidea	irakaslea
1409. Enpresa eta ekimen sortzailea	Laneko prestakuntza eta orientabidea	Bigarren Hezkuntzako irakaslea
1410. Lantokiko prestakuntza	Gizarte arloko esku-hartzea	Bigarren Hezkuntzako irakaslea
	Gizartearentzako zerbitzuak	Lanbide Heziketako irakasle teknikoa

6. LANBIDE MODULUEN ARTEKO BALIOZKOTZEAK

HEZIKETA ZIKLOETAKO LANBIDE MODULUAK (LOGSE, 1/1990)	GENERO-BERDINTASUNA SUSTATZEKO HEZIKETA ZIKLOKO LANBIDE MODULUAK (LOE, 2/2006)
Talde-dinamika eta -animazioa	0017. Gizarte-trebetasunak
Gizartean esku hartzeko testuingurua eta metodologia	0344. Gizartean esku hartzeko metodologia
Gizarte-garapena	1128. Gizarte-garapena

7. TITULUKO LANBIDE MODULUEN ETA KONPETENTZIA ATALEN ARTEKO TRAZABILITATE ETA EGOKITASUN LOTURAK

7.1 Konpetentzia-atalen egokitasuna lanbide-moduluekin, horiek baliozkotu edo salbuesteko

KONPETENTZIA ATAL EGIAZTATUAK	BALIOZKOTU DAITEZKEEN LANBIDE MODULUAK
UC1022_3: Gizarte edo lurralde-esparru jakin bat osatzen duten eragileen artean garatzen diren gizarte-jardunen eta -proiektuen eta herritarrek parte hartzekoen plangintza, garapena eta ebaluazioa dinamizatzea. UC1024_3: Gizarte-proiektuen eta -jardunen komunikaziorako eta hedapenerako estrategiak ezartzea. UC1026_3: Genero-ikuspegia txertatzea gizartean esku hartzeko proiektuetan.	0344. Gizartean esku hartzeko metodologia
UC1020_3: Gizarte-eragile nagusiekin (herritarrekin, teknikariek eta administrazioekin) harremanak ezartzea eta mantentzea, horien arteko harremanak dinamizatuta. UC1021_3: Gizarte-proiektuetan eta -baliabideetan herritarren parte-hartzea sustatzea. UC1023_3: Elkarte-ehunaren sorreran eta garapenean parte hartzea, bultzatzea eta laguntzea. UC1025_3: Gizarte-eragileen arteko gatazkak kudeatzea, bitartekaritze-prozesuak eta -teknikak aplikatzea.	1128. Gizarte-garapena

UC1453_3: Informazio-kanalak sustatzea eta mantentzea esku-hartzearen ingurunean, genero-ikuspegia txertatuta.	1401. Informazioa eta komunikazioa generoaren ikuspegitik
UC1584_3: Emakumeen aurkako indarkeriazko egoerak hautematea, prebenitzea eta arreta jasotzeko prozesuan laguntzea.	1402. Genero-indarkeriaren prebentzioa
UC1582_3: Esku-hartzearen inguruneke erakunde, enpresa, emakume eta eragileak hauteman eta informatzea lan-harremanei buruz eta enplegua sortu, bertara sartu eta egonkortzeari buruz, betiere emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorra oinarritzat hartuta.	1403. Emakumeentzako enplegua sustatzea
UC1583_3: Emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerako proiektuak hauteman, aztertu, ezarri eta ebaluatzeko lanetan parte hartzea.	1404. Berdintasuna sustatzeko jardun-esparruak
UC1454_3: Emakumeen parte-hartzea eta sare egonkorren sorrera bultzatzea, genero-ikuspegia baliatuta, gizartean jarrerak aldatzen eta emakumeak ahalduz lagunduko dutenak.	1405. Emakumeen gizarte-mailako parte-hartzea

7.2 Lanbide-moduluen egokitasuna konpetentzia-atalekin, horiek egiaztatzeko

LANBIDE MODULU GAINDITUAK	EGIAZTA DAITEZKEEN KONPETENTZIA ATALAK
0344. Gizartean esku hartzeko metodologia	UC1022_3: Gizarte edo lurralde-esparru jakin bat osatzen duten eragileen artean garatzen diren gizarte-jardunen eta -proiektuen eta herritarrek parte hartzeko plangintza, garapena eta ebaluazioa dinamizatzea. UC1024_3: Gizarte-proiektuen eta -jardunen komunikaziorako eta hedapenerako estrategiak ezartzea. UC1026_3: Genero-ikuspegia txertatzea gizartean esku hartzeko proiektuetan.
1128. Gizarte-garapena	UC1020_3: Gizarte-eragile nagusiekin (herritarrekin, teknikariekin eta administrazioekin) harremanak ezartzea eta mantentzea, horien arteko harremanak dinamizatuta. UC1021_3: Gizarte-proiektuetan eta -baliabideetan herritarren parte-hartzea sustatzea. UC1023_3: Elkarte-ehunaren sorreran eta garapenean parte hartzea, bultzatzea eta laguntzea. UC1025_3: Gizarte-eragileen arteko gatazkak kudeatzean, bitartekaritza-prozesuak eta -teknikak aplikatzea.
1401. Informazioa eta komunikazioa generoaren ikuspegitik	UC1453_3: Informazio-kanalak sustatzea eta mantentzea esku-hartzearen ingurunean, genero-ikuspegia txertatuta.
1402. Genero-indarkeriaren prebentzioa	UC1584_3: Emakumeen aurkako indarkeriazko egoerak hautematea, prebenitzea eta arreta jasotzeko prozesuan laguntzea.



1403. Emakumeentzako enplegua sustatzea	UC1582_3: Esku-hartzearen inguruneke erakunde, enpresa, emakume eta eragileak hauteman eta informatzea lan-harremanei buruz eta enplegua sortu, bertara sartu eta egonkortzeari buruz, betiere emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorra oinarritzat hartuta.
1404. Berdintasuna sustatzeko jardun-esparruak	UC1583_3: Emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerako proiektuak hauteman, aztertu, ezarri eta ebaluatzeko lanetan parte hartzea.
1405. Emakumeen gizarte-mailako parte-hartzea	UC1454_3: Emakumeen parte-hartzea eta sare egonkorren sorrera bultzatzea, genero-ikuspegia baliatuta, gizartean jarrerak aldatzen eta emakumeak ahalduntzen lagunduko dutenak.



Instituto Vasco de Cualificaciones
y Formación Profesional
Kualifikazioen eta Lanbide
Heziketaren Euskal Institutua



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Lanbide Heziketako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Formación
Profesional